

Euskal Festak Zestoan 1898

Luzia
Alberro
Goikoetxea



27

colección
Lankidetzan
bilduma

Euskal Festak Zestoan 1898

Laburpena / Resumen / Resumé	9
Udalaren aurkezpena	11
1. SARRERA	13
2. EUSKAL FESTAK	15
2.1. Zer dira euskal festak?	15
2.2. Euskal festen aitzindari, zer?	16
2.3. Antoine d'Abbadie, lore jokoen aita	16
2.4. Antoinen atzetik	20
2.4.1. Zazpi probintzietara	21
2.4.2. Gipuzkoan, Donostiara, Itz-jostaldien Batzarreari esker	22
2.4.3. Forurik ez eta...aldundiarentzat ere festok probetxugarri	29
3. EUSKAL FESTAK ZESTOAN	34
3.1. Zestoa XIX. mende bukaeran	34
3.2. Euskal festen prestakuntza	40
3.3. Euskal festen egitaraua	57
3.4. Euskal festen kronika	59
3.5. Euskal festen balantzea	70
4. AZTERTU BEHARREKOAK	76
5. LABURBILDUZ	78
6. ZESTOAKO EUSKAL FESTEN MENDEURRENA: 1898-1998	80
7. BIBLIOGRAFIA	81
8. ITURRIAK	86

ERANSKINAK	87
1. Eranskina. Zestoako bizilagunek bertan behera gelditutako ganadu lehiaketa ospa zedin egindako eskaria.	89
2. Eranskina Zestoako bizilagunek bertan behera gelditutako literatur lehiaketa ospa zedin egindako eskaria.	97
3. Eranskina Ganadu lehiaketako sarituen zerrenda.	100
4. Eranskina Literatur lehiaketako irabazleen lanak.	103
Bibliographic Section	119

“Euskal Festak Zestean” lanaren helburua 1898ko irailean Zestean izan ziren Euskal Festen azterketa da. Antoine d’Abbadiek sortutako lore-jokoen haritik, Donostiako Itz-jostaldien Batzarrea (literatur lehiaketan arduradun) eta Gipuzkoako Diputazioa (ganadu lehiaketan arduradun) izan ziren Euskal Festa hauen bultzatzaile nagusi. Era honetako Euskal Festen garrantziaz ohartzeko euskal probintzietan foruak galtzeak izandako eragina eta honen aurrean euskal lurretan sortutako berpizkunde erantzuna kontuan hartu beharra dago.

Giltza-Hitzak: Zestoa. Euskal Festak. XIX. mendea. Itz-jostaldien Batzarrea. Literatur lehiaketa. Ganadu feria.

El objetivo del trabajo “Euskal Festak Zestean” es el análisis de las Fiestas Vascas que tuvieron lugar en septiembre de 1898 en Zestoa. Al hilo de los juegos florales creados por Antoine d’Abbadie, la llamada *Itz-jostaldien Batzarrea* de Donostia, que se encargaba de los concursos literarios, y la Diputación de Gipuzkoa, que se encargaba de los concursos de ganado, fueron los promotores principales de esta Fiestas Vascas. Para apreciar la importancia de este tipo de Fiestas ha de tomarse en cuenta el impacto que la pérdida de los fueros produjo en las provincias vascas y la respuesta o renacimiento que frente a esto se suscitó en dichos territorios.

Palabras Clave: Zestoa. Fiestas Vascas. Siglo XIX. *Itz-jostaldien Batzarrea*. Concurso literario Feria de ganado.

Le but de ce travail «Euskal Festak Zestean» est d’analyser des Fêtes Basques qui eurent lieu en septembre 1898 à Zestoa. Au fil des jeux floraux créés par Antoine d’Abbadie, ce qu’on appelait *Itz-jostaldien Batzarrea* de Donostia, qui se chargeait des concours littéraires, et la Députation de Gipuzkoa, qui se chargeait des concours de bétail, furent les promoteurs principaux de ces Fêtes Basques. Pour juger de l’importance de ce type de Fêtes Basque il faut faire entrer en ligne de compte l’impacte qu’a produit la perte des fueros dans les provinces basques et la réponse ou renaissance qu’a suscité cette perte dans ces territoires.

Mots clés: Zestoa, Fêtes Basques. XIXème siècle. *Itz-jostaldien Batzarrea*. Concours littéraire. Foire du bétail.

UDALAREN AURKEZPENA

Euskal Festa edo Lore Joko haiek duela ehun urte pasatxo ospatu ziren. Denbora hori igaro arren, orduan bezala, zalantza eta arazoa eragiten zuten hainbat eta hainbat gauza edo ekitaldik gaur ere gaurkotasun handia dute.

Ez dakit arazo edo zalantza horien inguruan pasatako denboran bilakaera positiborik egon den, nahiz eta urte guzti haietan hainbat esfortzu egin diren.

Euskarak eta euskalgintzak garai hartan seguru gaur baino osasun hobea izango zuela nahiz eta ikusten zen orduan ere erasorik, baina erasoak eraso hainbat pertsona saiatu ziren Euskal Herriaren euskal izaera hori mantentzen Euskal Festak eta Lore Jokoak bezalako ekimenekin. Ikusten zen orduan ere zenbait jenderi Euskal Herriak eta euskalgintzak buruko min bat baino gehiago sortzen ziela.

Zestoaren kasuan, zorionez, urteak igaro arren eta erasoak izan arren euskalgintzak osasun ona duelakoan nago, orduan bezala herri euskaldun izaten jarraitu dugu eta garai hartako euskal festa haietan aipatzen ziren euskal literatura, abeltzaintza, bertsolaritza eta abarrek gaur egun ere, dagokigun garaietara egokituta, harrera onik badute.

Tristuraz ikusten dugu, ordea, beste herri askotan –gehiegi urrutiratu beharrik gabe– nahiz eta ahalegin handia egin, euskarak duen arazoa. Eta iruditzen zait horren errudun handienetakoak gu geu, euskaldunok, garela; askotan ematen du euskaldun izate horrek lotsarazi egiten gaituela, XIX. mendeko bihurtzen gaituela.

Argi dago gaur egun ere arazo asko ditugula euskararen inguruan, baina orduan bezala guztiok geure partetik zerbait jarri behar dugu. Kanpotik –adibidez, orduan Abbadiak bezala– laguntza badugu eta izango dugu, baina euskal izaera mantentzea nahi badugu, euskaldun izaten jarraitu nahi badugu, guk geuk egindako lanari esker izango da eta seguru hemendik ehun urtera ez dugula euskarak eta euskalgintzak dituen arazoetaz hitz egingo.

Gorka Unanue Zabala
Zestoako Alkatea

1. SARRERA

Orain ehun urte, irailaren 17a. larunbata zen. Goizeko zazpiak inguru. Ira-ola errotako Felix Zufiria txerrikira joan zen. “Etorri polittak! Bai itxura ederrekoak zaudetenak! Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederati... Hogeitik gora txerrikume eta bi txerrama. Aurtengoan saria niretzako izango da. San Joan ermitako zuhaitzira joan beharra daukagu. Bixkor, bixkor!”

Orain ehun urte, irailaren 18a igandea zen. Goizeko hamarrak. Mariak, aurpegia garbitu, orraztu, zuen arroparik txukunena jantzi, meza liburua hartu eta parrokiarako bidea hartu zuen. Prozesioarekin egin zuen topo: bandera, aldundiko jaun gorenak, Inazio deunaren imajina, Ama Birjinarena... elizarako bidean zihoazen. Ur bedeinkatuarekin “aitaren” egin, ohiko bankura gerturatu, eta bertan eseri zen. Domingo Agirre sermoilari: bai barrenean sentitu zituela gure Mariak “Jauna, kristau egiazkoak gera, gurutzetarrak gera, euskaldunak gera!” Amen- On Domingo Agirreren sermoiko azken hitzak.

Orain ehun urte, irailaren 19a, astelehena zen. Goizeko hamarrak ziren. Felix Zabaleta mutikoa euskaraz irakurri eta idazten abila genuen. Maisuak esana zion euskal jaiak bazetozela eta, lehiaketa izatekoa zela eta prestatu beharra zeukala. Hala egin zuen. Baita saria irabazi ere: marrazteko margo kaxa ederra. Jendea adi zen. Ez hainbeste haurretara. Bai ordea, han, zutituri zen Antonio Arzac-i, Donostiako Itz-jostaldien batzarreko idazkariari, begira: “Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Zestua-ra, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa izan dan, aurten, izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia”.

Orain ehun urte, irailaren 17, 18 eta 19an euskal festak ospatu ziren Zestoan. Zein da eskuetan duzuen lanaren helburua? Honez gero antzemana izango diozue: 1898an Zestoan izandako euskal festak aztertzea.

Posible ote da ordea, Zestoako euskal festak aztertzea lehenik euskal festak zer diren ez baldin badakigu? Hau da lehenik eta behin, euskal festen izaeraz, jatorriaz... hitz egitearen arrazoia. Eta nola Antoine d’Abbadie aipatu gabe? Ikusiko duzue zein garrantzi izan zuen gure irlandar-euskaldunak / euskaldun-irlandarrak festa hauen sorreran.

Euskal festen sorrerak adinako garrantzia izan zuen, ordea, berauen zabaltzeak: eta zabaldu, zazpi probintzietara zabaldu ziren. Zabalpen hau euskara eta euskal kulturaren babestea eta indartzea helburu zuten erakundeek

egin zuten posible. Horien artean aurkitzen dugu Donostiako Euskal Itz-jostaldien Batzarrea. Horiek izango ditugu Donostian euskal festak antolatzen aitzindari. Gipuzkoako Aldundia gehituko zaie ondoren: horri esker eta, aurre-
rago ikusiko dugun bezala, behar berezi bati erantzun nahirik, Gipuzkoa guztira zabaldu ziren euskal festok. Gipuzkoa guztira eta baita Zestoara ere iritsi ziren. Zestoako euskal festak ulertzeko Donostiako Itz-jostaldien Batzarreak eta Aldundiak zein helburu zituzten, festen antolaketa nola parte hartzen zuten, eta abar jakitea argigarri izango zaigu.

Ikerlanaren atalik zabalena Zestoako euskal festak aztertzeari eskaini diogu. Prestakuntza nolakoa izan zen, norke parte hartu zuen aztertuko dugu lehenengo. Ondoren egitaraua zein izan zen argituko dizuegu. Festa hauen kronikaren berri emango dugu gero. Atal hau festen balantze baten bidez amaituko dugu.

Euskal festen azterketan aurrera egin nahian, horiei dagokien zenbait ezaugarri erreparatuko diogu: erabakigarria al da antolatzailea euskal festetan? Zein izan zen euskal jaien eta euskal literaturaren arteko erlazioa? Zein euskal jaien eta nazionalismoaren artekoa? Atal honetan, erantzun baino gehiago, galdetu egingo dugu. Leihoak zabaldu, eta ikusmira urrutiratu.

Ikerlan honen ondorioak papereratuko ditugu ondoren. Atal honetan, euskal jaiak, eta gure kasuan, Donostiako Itz-jostaldien Batzarreak eta Aldundiak lagundutako euskal jaiak probetxua nori eta zergatik eskaini zieten agertzen saiatuko gara. Kultur interesak al ziren festa hauen eragile? Ganadu eta nekazaritza hobetu beharrak agian? Eta foruak? Edo hobe esan, hauek galdu izanak, ez al zuen eraginik izan? Mendeurrenari ere egingo diogu erreferentzia lan hau burutu ahal izateko erabilitako iturri eta bibliografia aipatu aurretik. Lanari zenbait eranskin ere gehitu diogu (azterlanerako erabilitako dokumentuen kopia, eta abar).

Erabilitako ikerketa metodologia induktiboa izan da. Konkretetik hasi (Zestoako euskal festak) eta orokorragora jo dugu. Zestoako euskal jaiak aztertu ondoren, Donostiako Itz-jostaldien Batzarreak eta Aldundiak antolatutakoak ikertu ditugu eta, azkenik, euskal jaiak bere orokortasunean. Gaia zuei aurkezteko garaian, ordea, alderantzizko bidea jarraitu dugu, konturatuko zinenez edo zarez. Lehen mailako iturriak erabili ditugu batik bat Zestoako euskal festak aztertzeko; gainerako euskal jaien berri izateko aldiz, bigarren mailakoetara jo dugu (aldizkari eta bibliografiara).

Sarrera amaitu aurretik eskerrak eman nahi genizkieke Zestoako herriari eta Eusko Ikaskuntzari ikerketa lan hau ahalbideratu dutelako. Eskerrak baita ere Zestoan, eta gainerako artxibategi eta liburutegietan lagun izan ditugunei. Eskerrak azkenik (barkamen eskaera agian) lan hau burutu beharra zela medio, laguntasun eta adiskidetasun uneak eman ez (ukatu ia) dizkiedanei.

Ergobian, 1998ko urrian¹

1. Oharra: lan hau 1998ko urrian aurkeztua izan zen. Zestoako Udalak eta Eusko Ikaskuntzak antolatutako beka baten irabazle izan zen urte hartan bertan.

2. EUSKAL FESTAK

Komenigarri deritzogu euskal festen inguruan zenbait argibide emateari. Zer dira euskal festak? Nork eraginda sortuak dira? Noiz? Ba al da euskal festen artean nolabaiteko sailkapenik egiterik? Galdera hauei guztiei ondorengo orrialdetan erantzuten saiatuko gara. Ez dugu uste hori ulertu gabe Zestoako euskal jaiak ulertzeko gai izango ginatkeenik.

2.1. Zer dira euskal festak?

Zer egin ohi dugu hitz baten esanahia zein den jakin nahi dugunean? Hiztegia hartu eta... “Fiesta Vasca o Euskara”-k zer esan nahi duen begiratu genuen²: “denominación genérica bajo la que ha solido encuadrarse una serie muy diversa de celebraciones literarias, deportivas, agrícolas, musicales, folklóricas, etc. con hincapié manifiesto sobre el euskara y los rasgos diferenciales”. Euskal festak, beraz, izenak dioen bezala, festak ziren (musika, jokoak, lehiaketak, dantza...), baina ez edozein eratako festak, euskal festak baizik (beraz, lehen aipatutako ekitaldiek euskal kutsua agertzen zuten).

Ekitaldi horiei guztiei, ordea, ez zaie izen bakarria eman. Nork antolatzen zituenaren arabera eta abar ekingiza berdinek izen desberdinak ezagutu zituzten (lore-jokoak, *fiesta euskara*, euskal jaiak, *fiestas de la tradición*...). Dena den, izen horien guztien artean bi multzo bereiz ditzakegu. Aurreko lan batean³, ondorengo bereizketa egiten genuen: “euskal jaiak, euskal festak...” gisa-ko izenak ospatzen ziren ekitaldi guztiei (orokortasun bati buruz mintzo) ematen zitzaizkien izenak ziren (dantzaldi, musika emanaldi, ganadu lehiaketa...) eta abar. Beste hauek berriz, “koplarien guduak, lorejokuak, itzjostaldiak, berxutaco guduak, euskal izkribatzallen indar neurtzeak...”, literatur lehiaketari egiten zieten erreferentzia. Bereizketa horrekin, euskal jaietan literatur lehiaketaz gain gainerako ekitaldiek ere garrantzi handia zutela adierazi nahi izan genuen (aurrerago ikusiko dugun lez, d’Abbadietarrek bultzatutako jaialdietan batez ere). Zestoako euskal festetan ere ikusi ahal izango dugu literatur lehiaketaz gain, bazirela garrantzi handiko ekimenak, nahiz eta orain arte euskal jaien inguruan burututako ikerlanetan aspektu literarioak izan diren aztergai nagusi⁴.

Baina euskal jaiak zergatik? Nork edo zerk eraginda? Ba al zuten eredu-tzat har zitekeen aitzindaririk? Irakur itzazue ondorengo lerroak, ea zuen jakin-min aseezina baretzen den! (edo nire galde-min mugagabea apaltzen den, erantzun beharraren erantzunez!)

2. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Diccionario. XIII. alea. Donostia: Auñamendi, 1982. 455 or.

3. ALBERRO GOIKOETXEA, Luzia: *Areatzako Euskal Jaialdiak. 1897*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1998. 25-26 or.

4. Ikus 3. atala.

2.2. Euskal festen aitzindari, zer?

Euskal festei Antoine d'Abbadiek eman zien hasiera 1851. urtean⁵. Egia esan, euskaldunek ez zuten antzekorik ezagutu urte hartara arte.

Euskal festarik beraz ez, baina gertatuak baziren euskararekin erlazio txikiren bat gordetzen zuten hainbat lehiaketa. Erdi Arokoa zen, Euskal Herriaz kanpo, literatur lehiaketak antolatzeko ohitura: Toulousen, Valentzian, Katalunian... Euskal Herriari dagokionez, 1609. urtean izan zen Nafarroako Iruñean euskaraz idatzitako olerkia saritu zuen lehiaketa, ustez euskaraz idatzitako lanak saritzen lehenengoa⁶. Pedro de Ezcurra, Miguel de Aldaz eta Joan de Eliçalde lortu zuten saria. 1610. urtean ere izan zen sariketarik.

1656. urtean Bartzelonan jokatu zen literatur lehiaketara Francisco Bustamante militar eta poetak euskaraz idatzitako lana aurkeztu zuen.

Xabier Maria Munibe, Peñafloidako Kondeak, bere ikastegian, ikasturte amaierako festaren barnean, euskaraz idatzitako lanen arteko lehiaketa antolatzen zuen.

XVII. mendean, XVIII. mendean zenbait aztarna... Eta gero? Zer dugu XIX. mendean aipagai? Garai hartan erromantizismoa aipatu beharra daukagu. Literatur lehiaketak Europa osoan egiten dira ezagun. Eta Euskal Herrian, ba al zen literatur lehiaketarik? Lehiaketa girorik? Patri Urkizuren esanetan, bertolarien arteko norgehiagoketan suma zitekeen lehia bizia. Gainerakoan, XIX. mendean, Antoine d'Abbadie izan genuen literatur lehiaketak euskal festetan barneratuz, biak, bai literatur lehiaketak bai euskal festak sortu, bulzatu eta zabaldu zituena.

Ezinbestekoa zaigu beraz Antoine d'Abbadieri buruz, bi hitz bederen esatea. Nor genuen? Zergatik sentitu zuen euskal festa hauek sortzeko beharra?

2.3. Antoine d'Abbadie, lore jokoen aita

Badira d'Abbadieri buruzko lanetan Antoine d'Abbadie nor zen azaltzeko saiakera politak. Sarrera gisa, horien berri emango dizuegu: horiei esker ohar-tu ahal izango baitzarete gizon hark berea zuen izate aberatsaz.

5. URKIZU, Patri: "Anton Abbadiaren Koplarien guduak (1851-1897). Kronika antzeko hurbiltze saioa". In: *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma (1851-1897)*. Donostia, Bilbo: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia, 1997. 14. or.

6. Areatzako euskal festen azterketan egin bezala, atal honetan ere ondorengo lanak ditugu iturri: LOIDI BIZKARRONDO, J.A.: *Euskal jaiak. Fiestas Euskaras*. Irun, 1983. 31-32. orrialdeak. Eta URKIZU, Patri: "Anton Abbadiaren Koplarien guduak (1851-1897). Kronika antzeko hurbiltze saioa" In: *Anton Abbadiaren koplarien...* op. cit. 11-47. orrialdeak.

“Según y qué se lea, ya sea una enciclopedia, un manual especializado, una carta, Abbadie podrá ser viajero, astrónomo, mecenas, inventor, adivino, geógrafo, numismático, filólogo, folclorista, políglota, aventurero, físico, misionero, arquitecto, antropólogo, cartógrafo, académico, historiador, exegeta o alcalde de pueblo”⁷.

“XIX. mendeko jakintsu ereduatarikoa dugu. Bidaiari ausarta, astronomoa, geografoa, antropologoa, hizkuntzalaria, poeta itzultzailea eta testu eta eskuizkribu biltzailea, hainbat zientzi elkarteko kide eta sortzaile-kide, *légion d'honneur* delakoaren dominaren jabeduna 1850-ean, *Etiopiako bidaiak zirela eta zientziari eta komertzioari egin zerbitzuengatik*, hainbat biltzarretan partehartzaile langilea, Frantziako *Institut de Sciences*-eko lehendakari, eta abar, eta abar.”⁸.

Ez genion gezurrik, ezta? Antoine d'Abbadie benetan genuen gizon interresgarria. Baina gatozen orain bere bizitzaren berri modu egituratu eta zehatzagoan ematera.

1810. urtean jaio zen Dublinen, Irlandako hiriburuan. Aita euskalduna zuen, Arnaud-Michel d'Abbadie, Urrustoin jaioa, baina iraultza frantsesa zela eta, bere herria utzi eta erbestera alde egin beharra izan zuena. Irlandan eza-gutu zuen Elisabeth Thompson, familia aberatseko alaba ikasia. Bion seme genuen Antoine d'Abbadie.

Antoinek bigarren mailako ikasketak Toulousen egin zituen. Zuzenbidea ikasteari berriz, Parisen ekin zion. Arestian ikusi dugunez ordea, zuzenbideaz gain astronomia, linguistika, magnetismoa... zituen gogoko Antoinek. Bidaia ugari ere egin zuen bere bizitza guztian

Hôtel de Brancas



Portrait de M. d'Abbadie fait par le Baron Goussier pendant son séjour à la Conférence anti-séculaire de Brancas.

Antoine d'Abbadie, lore-jokoen aita

7. SAGARZAZU, Iñigo: *Abbadie*. Hondarribia, 1997. Antoine d'Abbadieren biografia duzu hau, irakurle.

8. URKIZU, Patri: “Zientzilari gazte baten bidai-liburutto argitaragabearen aurkezpena”. In: *Antoine d'Abbadie: Pensées, études et voyages de 1835 (carnet inédit)*. Bilbo, Donostia, 1997. 11. or.

Aipatu autoreez gain, Jean Louis Davant Euskaltzainaren obra dugu aztertu beharra Antoine d'Abbadieren berri izan nahi badugu. Horra hor, besteak beste, *Euskara* aldizkarian (XXII, 11-23 or) “Euskaltzaindian sartzeko mintzaldia”, 1990an idatzitako *Abadia Urrustoi* pastoralara, eta 1997ko irailean Antoine d'Abbadieri buruz Hendaian ospatutako biltzarrerako prestatutako “Anton Abbadiairen bizitza” hitzaldia ere.

zehir: Brasil (1836), Etiopia (1839-1849), Norvegia (1851), Algeria (1867), Haiti (1882), Atenas (1885), Alexandria (urte berean)... ezagutu zituen. Bidaia horietan begiak zabal-zabalik zituela ibiltzen zen gure Antoine: izarrak, lurra-
ren ezaugarriak, magnetismoari buruzko datu bilketak... izaten zituen gogoan
bere jardunean. Horietaz gain, bertako biztanleen hizkuntza, ohitura, eta abar
ere aztertzen zituen. Bidaia haietako batean, Nilo ibaiaren sorburuaren bila
aritu ziren bere anaia eta biak. Aurkitu zutela uste ere bai, baina oker zebil-
tzan (nahiz eta hanka-sartzeaz inor ohartu ez urte batzuk geroagora arte).

Baina Antoine d'Abbadiek, urrutiko kulturak aztertzeaz gain, gertukoa ere
aztergai zuen. Euskal jatorria, bere aitagandik hartua, ondo gogoan zuen. Eus-
kal kulturarekiko zaletasunak bultzatuko du d'Abbadie jauna euskal jaiak
antolatzaera (aurrerago mintzatuko gara horretara bultzatu zuten arrazoiez).

1849. urteaz geroztik, Euskal Herria izango du bizileku. 1859. urtean, Vir-
ginie de Sain Bonnet Liongo emakumearekin ezkonduko da. Viollet Le Duc
frantziar arkitekto famatuari aginduko diote eraiki dezala bientzat etxe edo
jauregia. Hendaiaiko itsas bazterrean aurki dezakegu gaur egun ere d'Abba-
diatarren *chateaua*: neogotikoa kanpo aldetik, urrutiko kulturekin (Etiopiare-
kin) loturiko apaingarriez hornitua barnetik⁹.

1892. urtean, Zientzi Akademiko buru egin zuten. 1896. urtean eman
zuen bere azken nahiaren berri, gaztelua, Zientzi Akademiaren esku utziz.
1897ko martxoaren 19an hil zen Parisen. Hemezortzi egunez beilatu omen
zuten bere gorpua.

Idazlan ugari argitaratu zituen Antoine d'Abbadiek, gai ugari tratatuz gai-
nera: udalen erreforma, gai zientifikoak eta abar.¹⁰ Idazlan horiei arreta pixka
bat eskaintzeak Antoine d'Abbadie hobeto ezagutzen lagunduko digute duda-
rik gabe.

Arestian aipatu dugu Antoine d'Abbadiek euskal jaiak antolatzearen zer-
gatiak argitzen saiatuko ginela. Ez da hau erronka makala! Areatzako euskal
jaien azterketaz ari ginela genioen bezala...

“Ez litzaiguke zail egingo Euskal Herriko XIX. mendeko historian aipa-
garrien diren gertakariak izendatzea: Frantziar iraultzaren ondorenak eta
gerra Karlistak. Zentralizazio prozesuak Bidasoaren alde banatan: Paristik
eta Madrildik euskaldunak bereganatu asmoz jarraitutako prozesuak. Indus-
trializazioa. Nazionalismoaren sortzea. Nahikoa aztertuak izan diren proze-
suak ditugu. Hauek ote euskal jai eta lore-jokoen sorreraren arrazoi?

9. Gazteluari buruzko informazio gehiago BERGER, M. Claude; SIBERS, Jean Françoise:
“Izan, itxurak egin orde”. *Elhuyar*, 73-74. zbkia. 1993. 18-21. orrialdeak. Antoine d'Abbadieri
buruzko lehen aipaturiko biltzarrean ere izan zuen gaztelua gaitzat hartu zuen hizlaririk.

10. Ezinbestekoa Patri Urkizuk prestatutako d'Abbadieren obran konsulta: *Penseés, études
et voyages de 1835* eta *Recueil de textes*. Azkena aipaturiko obran, Patri Urkizuk Antoine d'Ab-
badieren obraren berri ematen digu zerrenda baten bitartez. Donostia-Bilbo, 1997.

Oker genbilzke gertaera edo fenomeno bati arrazoi edo kausa bakarra aurkitu nahi bagenio. Gertatuari gehiago hurbilduko gatzazkio arrazoi desberdinak bilatzen saiatzen bagara, ikuspuntu desberdinak abiapuntu hartzen baditugu. Hau dela eta, zentralizazio prozesuak euskal jaien sustatzaile bakartzat hartzea ez zaigu fidagarri suertatzen. Honi, beste elementu bat gehitu behar diogu: zein neurritaraino da zuzena era honetako kausa-ondorio loturak sortzea? Benetan lotura hauek izaterik ba ote? Eta hala balitz, kausa-ondorio loturak modu berean egituratu al dira historian zehar? XXI. mendearen atarian, XIX. mende erdi aldeko gizon-emakumeen logika zein zen ulertzeko gai ote gara? Zein zen ulertu eta beronen baitan pentsatzeko gai? Ez dakigu zenbateraino, baina horretan saiatzeko asmoz ekin diogu idazteari”¹¹.

Erreparo guztiarekin. Kontu handiz. Horrela jokatu beharrean aurkitzen gara une honetan. Zergatik? Argi utzi behar dugu, orain, hipotesiekin jolasean ari garela, nahiz eta idatzita egon eta irakurri ahal izan, hemen ikus dezakezuen ezer gutxi dago frogatuta. Ezinezkoa da gisa honetako ikerketa lan txikitetan gauza handien aurkikuntzak egitea. Baina aldi berean, egindako ikerketek zenbait zantzu, bide berri, maratila... ikusten uzten digute. Nahiz eta guk galdera oro erantzun ahal izan ez, osasungarria deritzogu galderak idatzita, denen bistan uzteari, non jarraitu eta zer jorratua izan dezazuen.

Zein da guk proposatzen dugun hipotesia? Gure ustetan, Antoine d’Abbadiek euskal jaiak euskal izaera jakin bat babestu nahian sortzen ditu. Ikusten du egoera zenbat aldatzen ari den, testuingurua zeinen gatatzakatsua den... Honen aurrean zerbait egin beharra dagoela erabakitzen du. Erabaki horren fruitu lirateke Euskal jaiak¹².

11. ALBERRO GOIKOETXEA, Luzia: *Areatzako euskal jaialdia* op. cit. 31-32. or.

12. *Ibidem*. 31-40. or.

“XIX. mendea, mende gatatzakatsua dugu Euskal Herrian, modernitaterako sarrera ematen baita, euskal gizartearen sorrera bizi da. Nork eragina da gizartearen jaiotza, herria gizarte bihurtzearen prozesua? Madril eta Paristik eragindako indar zentralizatzaileek euskal erakundeen indartzea ekarriko dute ahultzearen ordean, eta euskal egiturak izango dira botere sare pribatuak publikotzeari ekingo diotenak. Nola erantzuten dio herriak prozesu honi? Erantzun, ekinez: izan ere, foruek, dirauten artean behintzat, prozesu honetan parte hartzeko (prozesua gainbegiratzeko) aukera luzatuko baitiote.

Zer dakar ordea foruen galtzeak? Herriari gizarteratze prozesuan partehartzea ukatzea. Prozesuak hala ere aurrera darrai. Zein da arriskua? Herria agintariengandik urruntzea: herriari herri izaera zemaio ten botere loturak aldatuz darraite eta foruak ziren elementu bateratzailea falta da orain. Horretaz gain, herria gizarteratze prozesua, lehen euskal jauntxo en eskuetan zegoena, ez euskaldunen eskuetara, gidari-tzapera pasako den beldur dira euskal boteredunak. Nola berreskuratu eta sendotu jauntxo eta herriaren arteko loturak? Foruen berreskuratzea helburu harturik (lelo, lema gisa), euskal tradizio eta izaera bat asmatu (euskalduna BETI horrelakoa izana dela defendatuko dute, lotura-jarraipen sentsazioa areagotzeko), idealizatu eta jarraitu beharreko eredu bezala ipinirik. Familiak aita gidari duen bezala, hala behar du udalak, probintziak eta Euskal Herriak. Gidariak, euskalduna (asmatutako tradizioaren arabera) behar du izan eta baita berak babesten eta zaintzen duen herriak ere, horrela lortuko baita galdutako boterea (partehartzeko eskubidea) berreskuratzea: prozesuaren gidari izatea batzuek (izaten jarraitzea), eta prozesuan nolabaiteko kontrola eragitekoa besteek, gehiengoak, herri xeheak.

Antoine d'Abbadiek, berak antolatutako Euskal jaietan euskaldun fededun, zintzoa, baserritar girokoa babestu eta bultzatzen zuen. Izan ere, elementuon inguruan antolatzen zituen euskal festak. Igande goizean, meza nagusia izaten zen; bizimodu "tradizionala"-ren egunerokotasunari loturik zeuden ekintzak ere lehiaketagai bihurtzen zituen (haria egitea, ura iturritik etxera garraiatzea, baratzeko lanetan aritzea, ganadua zaintzea...). Horiei euskarekin eta euskal literaturarekin loturiko beste zenbait gai gehitzen zitzaizkien: euskal musika (txistulari, alboka jotzaile...), pilota, bertsolariak, dantzariak, euskal literatura bultzatzea... Azken horretarako, literatur lehiaketak antolatzen zituzten. Horietan, zenbait baldintza ipintzen zituzten antolatzailleek: zein gairi buruz aritu behar ziren (zenbaitetan), zein neurritan... Bertsoa nagusitu zitzaion hitz lauari, eta bertsoa ere, irabaziz gero, jendaurrean kantatzekoa zenez gero, ahozko bertsolaritzari oso lotua agertzen da.

Lehen esan bezala, 1851. eman zien hasiera d'Abbadiek euskal jaiari. Pilota partida antolatu zuen urte hartan Antoine d'Abbadiek. Jai osoagoak 1853. urtean ospatu ziren Urruñan. Hamar urtez Urruña izan zuten euskal jaiak ospaleku. Sara, Donapaleu, Maule... ere ezagutu zuten ondoren. 1879. urtean ospatu ziren lehenengoz Hego Euskal Herrian, Elizondon. 1880an Maulen, 1881. urtean Irun aldera etorri zitzaigun Antoine, eta 1883an Markinara egin zuen bisita. Antoine d'Abbadiek ez zuen bere euskal jaiak Araban ospatzeko zorionik izan: bai ordea haren alargunak, 1899. urtean, Aramaion¹³.

Antoine eredutzat hartuz ordea, beste zenbait erakunde ere hasi zen euskal jaiak ospatzen. Hori izango da hurrengo atalean aztertuko duguna (zestorrok, pazientzia! Pixkanaka-pixkanaka, Zestoara gerturatuz ari gara eta!).

2.4. Antoinen atzetik

Euskal jaien sortzaile eta neurri batean zabaltzaile, Antoine d'Abbadie izan genuen. Baina jai hauen zabalkundean izan zuen laguntzailerik d'Abbadiek. Euskal probintzietan euskal kultura babestu eta indartzea helburu zuten elkarte eta erakundeak ugaldtu egin ziren euskal gaiak ardatz zituzten aldizkariekin batera, askotan aldizkari horiek, erakundeen kanpo harremanetarako tresna bilakatu zirelarik¹⁴.

13. D'Abbadieren Euskal jaien kronika eskuragarri duzue:

ESTORNES LASA, Bernardo: "Fiestas y certámenes literarios convocados por d'Abbadie (1853-1901)... In: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura. Enciclopedia sistemática*. Lehenengo liburua. Donostia, 1969-1981. 408-564. or.

URKIZU, Patri: "Anton Abbadiaren koplarien guduak (1851-1897). Kronika antzeko hurbiltze saioa". In: *Anton Abbadiaren koplarien guduak*. op. cit. 11-61. or.

14. Honi buruz ESTORNES LASA, B.: "El despertar vasquista (1877-1897)". In: *Literatura I*. op. cit. 373-407. or. Berak aipatutakoak jarraitu ditugu gehienbat.

2.4.1. ZAZPI PROBINTZIETARA

Hasiera batean, euskal hiriburuetan antzeman zen euskal kulturaren loral-dia. Nafarroa-Iruñeari dagokionez, 1877. urtean Asociación Euskara de Navarra sortu zela esan behar. Sortzaile izan zituen Juan Iturralde Suit, Arturo Campión, Nicasio Landa, Esteban Obanos, Florencio Ansoleaga, Aniceto Legarda, Antero Irazoki, Fermin Iñarra, Estanislao Aranzadi, Emilio Oloriz, Salvador Echaide, Rafael Gaztelu, J. Altadill eta Joaquin Azcona. Bere helburu nagusien artean “Euskal izkuntza iraun-aziz zabaldu; napar erriaren literatura ta edestia, legeak eta oiturak ikasi ta ezagutu, ta onerako ta aurrera-kuntzarako dan guztiari laguntasuna ta indarra eskeiñi” aurkitzen ziren. Asociación Euskara de Navarra, sei sailetan banatzen zen: hizkuntza eta literatura (guztietan garrantzitsuena); etnografia, kondaira eta legea zeritzona; ohitura eta irakaskuntza; nekazaritza; industria; eta salerosketa. Erakunde honen bazkideen artean d’Abbadie, Bonaparte printzea... aurki genitzakeen. *Revista Euskara* (1878-1883) aldizkariak baliatu ziren beren ideien berri emateko. Elkarte horrek hainbat euskal jairen antolaketan parte hartu zuen: d’Abbadiek Elizondon antolatutakoak moldatzen lagundu zuen, Iruñako Udalarekin elkarlanean ere aritzen zen... Literatur lanak, gai historikoak zituzten ikerlanak, entseguak... saritzen zituzten antolatutako lehiaketetan. Nahiz eta euskara bultzatzea helburu izan, gaztelaniaz idatzitako lanak ere onartzen zituzten.

Bizkaia eta Bilbori dagokionez, Euskal Erria elkarte aipatu beharra daukagu. 1881. urtean sortu zen elkarte hori. Mario Adan Yarza eta Arellano Galarza zituen buru, eta batzordekide Antonio Iruetagoiena, Miguel Eguren, Jose Mari Angulo, Carlos Ereño, Anacleto Martinez, Santiago Meabe, Claudio Ortuzar, Aureliano A. Valle eta Gillermo Gorostidi. Izen horietaz gain, aipatu beharrekoak ditugu Bizkaia eta Bilbo inguruan eman zen kultur berpizkundearen sustatzaile gisa Sagarmínaga, Vicente de Arana, Aristides de Artiñano, Juan E. Delmas eta Antonio Trueba, beste batzuen artean.

Euskal Erria elkarte Bilbon literatur lehiaketak antolatzeaz arduratzen zen. Kasu honetan ere, euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztutako lanak onartzen zituzten. Zein indar zuten eragile? Ikus dezagun:

“‘Euskal-Erria’ deritzon Uri ontako elkarte edo lagun-bilkidak, ezaguturik zeñen gaioneko eta prochugarriak izan litezkean gure arriarentzat “Jostaguda loratueen” izenarekin adierazten diran itzjostaldi eta beste ere onetako festak, zeren geitu eta zabalduaz irakasde eta jakintea irazarri edo enaiarazten duten denbora berean jaioterriari zor diogun naitasuna...”¹⁵.

Zer esan Arabari buruz? Euskal kulturaren aldeko mugimendua ez zen hain zalapartatsua izan probintzia honetan. *Revista de las Provincias Euska-*

15. *Fiestas euskaras que se celebrarán en la sociedad Euskalerría de Bilbao los días 30 y 31 del próximo mes de julio*. Bilbo, 1882. 7. or.

ras (1878-1879) aldizkariaren inguruan lantalde aipagarria bildu zen: J. Apraiz, Federico Baraibar, Ricardo Becerro de Bengoa, Sotero Manteli, E. de Velasco eta Fermin Herran ditugu beste batzuen artean. Literatur lehiaketak Gasteizko Ateneoak antolatzen zituen. Euskal festei dagokionez, berriz, eta lehen esan bezala, Madame d'Abbadieren eskutik iritsi ziren Arabako Aramaiora 1899ko abuztuan¹⁶.

Eta zer esan Gipuzkoa eta Donostiaz? Toki berezia merezi dute horiek. Zergatik? Liburu honen ardatz Zestoako euskal festak izanik, Donostiako eta Gipuzkoako euskal festek osatzen dutelako gure aztergaiaren gertuko kontestua.

2.4.2. GIPUZKOAN, DONOSTIARA, ITZ-JOSTALDIEN BATZARREARI ESKER

1879. urtea. Donostian euskal jaiak¹⁷ lehen aldiz ospatu ziren.

“Uri onetako Bilguma geidiatiak, pesta-giariari aditu ta gero, erabakitz du euskal izkribatzalleen bilkida, bersolarien josta-guda, eta chistu-soñularien leiak egitea, José Manterola jaunak aipatu duben eran, Agorrraren 7garrenean.

Egun berean, Probintzi onetako Ekautuen Bilguma chit geidiatiari bialtzen zaio aurreko erabaki au, galdetzen zaiolarik parte artu nai duen euskararen onean egitera dijoan jolasbide onetan” (uztailaren 13an).

Zeintzuk ziren festa hauek sortzearen arrazoiak? Orain arte nahikoa eza-gunak ditugunak¹⁸:

“Donostiako Bilguma edo Aiuntamentuak bere aldetikan dezakean guzia egin narik (sic) gure izkuntz ederra eta oitura on eta zarrak mendi oetan gorde eta alditeken geiena zabaltzeko, ezkeintzen ditu sari batzuek euskararen onean egingo dan pesta batean emango diranak, eta joztaguda artan parte artu nai duten guziak jakiñ dezaten oek zer diran, ta nola emango diran, adierazitzen dira emen guzien ezaguerarako”.

Donostiako Udalak euskal kulturaren garrantzi handiko diren zenbait pertsonen gonbitea luzatzea erabakitzen du: horien artean Luis Lucien Bonaparte printzeari, “euskera eta euskal-erriari dizkien naitasun aundia, eta beraren onean egin dituen lan miragarriak” direla medio¹⁹. Baina baita Antoine d'Abbadie eta Nafarroako Euskaldun Elkargoari ere (ikus beraz zein eragin izan zuten horiek Donostiako euskal jaialdien sorreran!). Luis Lucien Bonaparte printzeak ezin izango zuela joan eta eskutitza idatzi zien Lon-

16. *Euskalzale*, 1897-VIII-24.

17. *Euskal -izkribatzalleen indar-neurtzea*. 1879ko Agorrrilaren 7garren egunean. Memoria gisakoa. Donostiako Udal liburutegian.

18. *Ibidem*. 6. or.

19. *Ibidem*. 9. or.

drestik Donostiako Itz-jostaldiko Batzarreko kideei. Horra kuriositate gisa zuentzat irakurgai²⁰:

“Jauna: Artu det atsegin askoz Donostiako Bilguma chit noble eta jakintsuaren partetik bidaldu dizkidazun azaldea eta batezere neretzat balio andia duen paper baten bidez egiten didan gurteska, an euskal-izkuntzaren onean egingo diran festetara joateko; baña pena andi batekin esaten dizut ez dezakedala iñolaere joan, nai nukean bezala, jostaguda ain egoikia ikustera, eta ematen dizkiot, zure bitartez, esker asko Bilguma errespagarri orri, nereganako duen begirune gogotsuagatik.

Chit ondo derizkiot festa oriek egitea euskal-izkuntz ederra gorde eta zabaldutzeo lur noble orretan, eta segurutzen dizut nere bizi guztian izango dedala euskal-erriaren oroipena, zeñari opa derizkiotan zoriontasunik andienak.

Jaungoikoak gorde zaitzala urte askoz.

Londresen, 1879garrengo Aboztuaren 22an, L.L. Bonaparte”.

Euskal festa hauen prestaketan Jose Olano, Jose S. Irastorza, Canuto I. Muñoz, Jose Manterola, Manuel Antonio Antia (Urnietako parrokoa), Claudio Otaegui eta Ramon Artolak hartu zuten parte²¹.

1880. urtean ere izan zen euskal festarik Donostian. Horiei dagokionez, berri zehatzagoa dugu banatutako sariei buruz. Udalak zilarrezko koroa eskainiko zion euskaraz idatzitako legenda onenaren egileari; Aldundiak, burdinezko tintontzia (urrezko apaingarriduna), luma, seilua eta paper-moztailea abeslaririk onenentzat; Asociación Euskara de Navarra-k, urrezko domina euskal dantzen deskribapen onena egiten zuenari; L. Brocheton jaunak, zilarrezko erramu sorta, Okendo nabigatzailea gaitzat zuen oda onenari; Aldundiak zilar eta urrezko pentsamendua (hori zer ote? Lore gisakoa agian?) euskal poesia onena idazten zuenari eta, azkenik, Udalak urrezko luma bertsoz idatzitako legenda onenaren egileari.

1881. urtean ere izan zen euskal jairik Donostian. Baita 1882an eta 1883an ere. 1894. urtera arte jarraian ia. 1896. urtetik aurrera, euskal jaiak Gipuzkoa guztira zabaltzen hasi ziren Aldundiaren gogoari erantzun nahirik²², nahiz eta aldi berean, Donostian ere ekitaldi berezirik antolatzen zen.

20. Ibídem, 9-10. or.

21. Donostiako euskal festen berri zabalago izango duzue ondorengo liburuan: *Literatura I*. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo B. Enciclopedia Sistemática. Arte, Lengua y literatura. Donostia, 1969. 472. orrialdetik aurrera (ordenu kronologikoan). Ezinbestekoa gertatzen da baita ere *Euskal-Erria* aldizkariaren kontsulta. Pentsa zenbateraino, ezen Donostiako Itz-jostaldien Batzarreak bere espresio bide ofizialtzat izendatu baitzuen aldizkaria. Honetaz gain, urtez urte argitaratzen joandako oroimengarri edo memoriak ere azter ditzakegu: hauetan egitarauaren berri, irabazleen berri... ematen da, baita irabazle suertatu ziren zenbait lan argitara eman ere. Ikus ahal izango duzuen bezala, Donostiako Itz-jostaldien Batzarrea euskal literatura eta musikaren lantzeaz arduratzen zen batez ere.

22. Ikus 2.4.3. atala.



Donostiako Itz-jostaldien Batzarrearen goiburua

Bada, dena den, Donostiako euskal jaiei dagokionez, aipatu beharreko data berezi bat. 1882. urtean, Euskarazko Itz-jostaldien Batzarrea sortu zen²³. Horretarako bai Donostiako Udaletxe baita Aldundiari ere beren eskaeren berri eman zieten Batzarrea sortzeko asmotan zen gizon talde batek.

Donostiako Udaleko Artxibategian ikusi ahal izan dugunez, horra zeintzuk ziren Batzarreak Donostiako Udalari 1882ko martxoaren 25ean eskaintzen eta eskatzen zizkionak²⁴:

“La comisión que suscribe, en vista del favorable resultado que vienen ofreciendo estos honorosos certámenes y la influencia que pueden ejercer en la conservación de nuestra prehistórica lengua y en el desarrollo de una literatura propia y especial, que eleve al bascuence de la categoría de una lengua vulgar, haciéndole remontarse a las esferas del arte y a la expresión de las manifestaciones todas del espíritu humano; teniendo, por otra parte en cuenta las dificultades que anualmente retrasan la publicación de los programas, y los nobles propósitos manifestados por V.E. al solicitar su apoyo para su creación y sostenimiento, creen que es ya llegado el momento de dar forma y organización propia a esos certámenes, elevados ya por V.E. a la categoría de institución permanente, creando un centro, permanente también, que con vida propia y hasta cierto punto independiente, aunque siempre bajo el alto patrocinio de V.E. y de la Exma. Diputación, cuide de la organización de todos los trabajos preparatorios é inmediatos, sin necesidad de distraer la atención de V.E. ni el personal de sus oficinas.

Al efecto, ha estudiado detenidamente el asunto, pesando las ventajas é inconvenientes que puede ofrecer la creación de un “Consistorio de Juegos florales”, semejante al que recientemente han fundado en Paris los felibres²⁵, y á los que existen en nuestra propia patria en diversos pueblos de Cataluña y Valencia, y ha formulado su pensamiento en el proyecto de Estatutos que tiene el honor de someter á la aprobación de V.E.”

23. Erakunde honi buruz, BENGOCHEA, J: “El Consistorio de Juegos Florales Euskaros”. In: *Euskal-Eria* 71. alea (1914) 550-563. or.; 73. alea (1915) 537-556. or.; 75. alea (1916) 530-545. or.; 77. alea (1917) 529-551 or.

24. Donostiako Udal Artxiboa. Sección B-negociado 7- serie IV-libro 265 - Exp. 4.

25. Probeentzako poetei ematen zitzaizen izena. Felibrismoa 1854. urtean Probentzan sortu zen eskola literarioa dugu. Hauen helburu Probentzako hizkuntza eta literaturaren berpizkundea zen. Donostiarrek beraz, begiak ingurura begira zabalik zituzten!

Zein izango zatekeen Batzarrearen egitekoa?

“Con estas bases el Consistorio, cuya creación proponemos, preparará con estudio y meditación y con la antelación necesaria los certámenes anuales, constituyéndose á la vez en un centro científico de carácter académico, que podría resolver con cierta autoridad y prestigio las cuestiones lingüísticas y literarias que se sometieran a su examen.

...creemos firmemente que el Consistorio, cuyo proyecto presentamos, es de fácil planteamiento y puede ser de gran utilidad aquí donde todavía se mantiene viva, á pesar del abandono aunque ha sido mirada durante siglos, una lengua tan rica como original, cuyo abolengo se ignora, cuyas relaciones con las demás conocidas son objeto de serios estudios por parte de ilustres filólogos y que recientemente y en nuestra propia patria ha merecido las mayores muestras de consideración á un congreso tan respetable como el de Americanistas que ha solicitado hace pocos meses aun, por voto unánime, la creación por el Gobierno de S.M. de una cátedra de idioma”.

Zeintzuk ziren Batzarrearen behar eta eskakizunak?

“Para que el Consistorio pudiera tener una vida normal bastaría, en nuestro sentir, que V.E. señalara con este objeto la cantidad anual de quinientas pesetas, cediera un salón para sus reuniones ordinarias, que podría ser muy bien el de Actos del Instituto, que ocupa con un carácter análogo el ateneo de esta ciudad; y el Teatro principal, como lo viene haciendo, para la fiesta anual de al distribución de premios, y por último, que se declare esta solemnidad como una de las funciones comprendidas en el artículo 32 del reglamento de la Academia municipal de música para la asistencia de los profesores y alumnos de dicho importante centro²⁶.

En cuanto al archivo para la custodia de los papeles, libros y demás documentos del Consistorio ningún punto creemos mas apropiado que la Biblioteca municipal, en la que podría destinarse un estante para este objeto²⁷.

Con esto y con que la Exma. Diputación, á la que sometemos igualmente el proyecto, acceda a elevar á quinientas pesetas la subvención anual que tiene ya acordada con destino á Juegos florales, creemos que el Consistorio puede alcanzar una vida, modesta si, pero altamente provechosa á la conservación de la lengua vascongada y al florecimiento de nuestra especial literatura.

José Manuel Aguirre Miramón; José Diaz; José María Beitia; José Irastorza; Manuel Gorostidi; Canuto Ignacio Muñoz; José Manterola.”

1882ko maiatzaren lehenengoan Donostiako Udaletxean onartua izan zen dokumentu hau. Ikus zein zen agiriak piztutako interesa:

“Los que suscriben, individuos de la Comisión de Instrucción pública a cuyo informe ha pasado el adjunto proyecto de “Consistorio de Juegos flo-

26. Kontserbategiko irakasle eta ikasleak musika lehiaketan parte har zezaten bilatzen zuten litz-jostaldien batzarrekoek.

27. Zoritzarrez, ezin izan dugu artxibategi hau (dokumenturik) aurkitu. Donostiako Udal liburutegiak, bertako lantaldeko kide den Arantza Arzamendiren esanean, toki aldaketa ugari jasan ditu, eta ez omen litzateke harritzekoa izango hauetakoren batean bila gabiltzan artxibategia galdu izana.

rales euskaros de San Sebastian” y la memoria presentada por la Comisión encargada de la organización de los últimos Juegos florales celebrados en esta ciudad, tienen el honor de manifestar a V.E. que han visto con el mayor agrado los mencionados documentos inspirados en el vivísimo y noble deseo de establecer como Institución permanente unos certámenes provisionales hasta ahora, destinados á enaltecer nuestra primitiva y rica lengua vascongada, cual se acostumbra en todos los pueblos cultos, cuantos trabajos se efectúen para el mayor desarrollo de nuestra literatura”.

Zeintzuk ziren ordea *Consistorio de Juegos florales* delakoaren oinarri edo estatutuak? Ondorengo lerroetan garrantzitsuenak aipatuko ditugu²⁸:

Batzarrearen helburuak “procurar por cuantos medios estén á su alcance la conservación y propagación de la lengua vascongada, y estimular el cultivo de su especial literatura. Podrá además extender su esfera de acción, en cuanto se lo permitan sus recursos con que cuente, a la conservación y propagación de nuestra música popular” genituen (1. titulua, 1. artikulua).

Batzarreak Gipuzkoako Aldundia eta Donostiako Udala izango zituen babesle (2. titulua, 3. artikulua). Mota desberdinetako partaideak izango zituen: “protectores, honorarios, número y efectivos” bezala izendatzen dituztenak (2. tit., 4. artikulua). Batzarrea, bere osotasunean, izango da euskal festen egitaraua zehaztuko duena, baita erakundea zuzentzeaz arduratuko den batzorde iraunkorra aukeratuko duena ere (2. tit., 6. art.). Urtean bitan bildu beharrean aurkituko da Batzar edo Consistorioa: maiatzeko lehenengo hamabostaldian eta abenduko bigarreanean (2. tit. 8. art.). Maiatzeko bileran festen egitaraua zehaztuko da: hau ekainean argitaratu beharko da, literatur lanei gutxieneko lau hilabeteko aurkezpen epea eskainiz (2. tit., 9. art.). Batzarrearen zeinua 2. tituluko 10. artikuluan argitzen zaigu: “Euskarazko itz jostaldien batzarrea Donostian” leloa agertuko du, baita Gipuzkoa eta Donostiako armariak ere. Poesiari dagozkion zenbait sinbolo ere agertu ahal izango ditu.

Estatutuetako 3. tituluan, Batzarreko kideei buruz mintzo zaigu arau bilduma hau. Donostiako Udala eta Aldundia babesle gisa agertzen zaizkigu (11. artikulua). Gainerako partaideen ezaugarriak ere zehazten dira titulu honetan (ohorezkoak, eta abar). Kide eraginkorrei dagokionez (14. art.), “podrán aspirar al título de socios efectivos, previa admisión, todos aquellos individuos que, deseando cooperar á los fines de la Institución soliciten su ingreso en ella, y contribuyan de una sola vez y en un plazo único a los gastos del Consistorio, con la cantidad fija de cuarenta pesetas, ó con la cuota anual de diez pesetas, á su elección”. Zeintzuk ziren bazkide izatearen abantailak? Irakur dezagun 17. artikulua:

“Todos los socios, sea cualquiera la clase á que pertenezcan, gozarán de voz y voto en las Juntas generales, y tendrán derecho á un ejemplar de

28. *Euskal-festak Donostian. Oroimengarriak*. Donostiako Udal liburutegian aurki dezakegu euskal festa desberdinak biltzen dituen oroimengarri bilduma hau. Bertan elkarte honen estatutuak ere biltzen dira.

la Memoria anual de los certámenes, y de cualquiera otro impreso que se costee por el consistorio, y á la preferencia de localidades para toda función de pago organizada por la Institución. Serán además invitados á todas las sesiones de carácter académico que celebre el Consistorio”.

Laugarren tituluak Batzarrearen Batzorde iraunkorraz mintzo zaigu dokumentua. Hori lehendakari, lehendakariorde, idazkari, idazkariorde, diruzain eta bi batzordekidez osatuko da. Gipuzkoako Aldundiak eta Donostiako Udalak ere ordezkari bana izendatu beharko dute batzorde iraunkorreko partaide izan daitezen (18. tituluak). Batzorde iraunkorra urtero berrituko da, baina erdizka, hau da: ordeko zirenak (lehendakariorde, idazkariorde eta abar) kargua hartzera pasako dira lehendakari, idazkari, eta abar bihurtuz (19. artikulua). Ondoren, batzorde iraunkorraren egitekoez mintzo zaigu dokumentua, baita berau osatzen duten kideen egitekoez ere. Horietan garrantzitsuenetakoa dugu 26. artikuluan aditzera ematen dena:

“Será obligación de los miembros de la Comisión permanente la organización de las fiestas anuales y la disposición de todos sus preparativos, el entenderse con las comisiones de las Corporaciones protectoras para todo lo concerniente á ellas, la elección de los objetos que han de concederse como premios, la redacción y distribución de los Programas y Memorias, la presidencia de los certámenes y actos académicos y todos los demás trabajos propios de la misión”.

27. artikulua ere badu garrantzirik:

“La Comisión dará cuenta al Consistorio, en cuanto le sea posible, así como á las Corporaciones protectoras, del resultado anual de las fiestas; firmará los Programas de los Concursos, resolverá sobre las solicitudes de ingreso de socios que se presenten, nombrará los miembros que han de constituir el Jurado para cada certamen, é informará á la Junta General (?), al cesar en su cargo, su gestión durante el año”.

Bosgarren tituluak, berriz, lehiaketan epaimahaiaren ezaugarriak buruz mintzo zaigu dokumentua. Itz-jostaldien Batzarreko elkartekideek har dezakete parte bertan, bost kidez osatua izango da gutxienez, eta abar.

Sariei buruz mintzo da seigarren tituluak. “Con arreglo á los fines de la Institución, todos los premios que se otorguen por el Consistorio deberán ser precisamente sobre trabajos en lengua vascongada” (33. artikulua). Hona jarraian titulu bereko beste zenbait artikulua:

-34. artikulua: “Se destinará total ó parcialmente todos los años la subvención concedida por la Excma. Diputación para el señalamiento de un premio al mejor trabajo en prosa ó verso sobre un hecho histórico, una tradición, narración ó leyenda, ó la descripción de usos y costumbres del país bascongado”²⁹.

29. Atal honi esker izango du nolabaiteko presentzia hitz lau eta leiendak euskal jaien mundu honetan. Donostiako euskal jaietan izango du bere txokoa. Ikus Ana M^a Toledo Lezetaren hitzaurrea *Leiendak (1879-1891)* obran. Donostia, 1990.

-35. artikulua: “De la subvención concedida por el Excmo. Ayto. de San Sebastian se señalará asimismo anualmente un premio para el mejor trabajo sobre hechos de la Historia particular de la ciudad, ó la narración de las glorias de alguno de sus beneméritos hijos”.

-36. artikulua: “Por lo demás, el Consistorio acordará cada año los premios que sobre estos puedan concederse, la cuantía de cada uno de ellos y los temas sobre que deberán versar, y podrá gestionar de las Corporaciones ó personas amantes de la Institución, en la forma que estime más prudente, el señalamiento de nuevos premios”.

-37. artikulua: “La distribución solemne á los escritores laureados se hará en la fiesta que se celebrará anualmente el día 21 de Diciembre³⁰, ó en su defecto, en uno cualquier de la segunda quincena del mismo mes, cuya elección quedará a cargo de la comisión permanente”.

Zazpigarren tituluan merituzko kideei buruz mintzo zaigu dokumentua: nortzuk izango diren, zein eskubide dituzten eta abar. Estatutuak zortzigarren tituluz amaitzen dira: bertan estatutuak aldatu nahi izanez gero zein baldintza bete behar diren eta abar esaten da.

Donostiako Itz-jostaldien Batzarreak, beraz, arestian aipaturiko arauak izango zituen kontuan idazle eta musikarien artean lehiaketak antolatzerakoan. Zestoako euskal jaietaz arituko garenean ikusiko dugu arau horiek betetzeak zein ondorio zituen.


Ezin ahantz dezakegu Gipuzkoa eta Donostian emandako euskal kulturaren berpizkundeaz ari garen atal honetan, *Euskal-Erria* aldizkaria. Zein zen aldizkari honen helburua?

“A recoger y transmitir los rasgos peculiares de la vida propia de estas siete provincias, que forman lo que podemos llamar la HEPTARQUIA EUSKARA, á dar a conocer su antiquísima lengua, su especial literatura, sus originales cantos y tradiciones, su historia, sus leyes y sus costumbres, reuniendo cuanto de mas curioso se ha dicho de ellas, reproduciendo los trabajos de más interés, inéditos, agotados ya o poco conocidos de nuestros antiguos y más distinguidos escritores, y buscando el apoyo de cuanto prestan hoy culto y nombre a las letras bascongadas, para hacer así de nuestra revista un verdadero Álbum, un archivo manual de curiosidades del país, se dirigirán nuestros esfuerzos”³¹.

Euskal-Erria aldizkaria Itz-jostaldien Batzarrearen aldizkari ofiziala bihurtu zen. Horiek horrela, eta Zestoako euskal festei gagozkiela horrela dela aitortu behar, askotan aldizkari hau bera izango dugu Donostia eta Gipuzkoako euskal jaiei buruz informazio gehien ematen diguna.

30. Donostian, Santo Tomas eguneko feria ospatzen da egun honetan. Euskal giroko jaiak duen. Baserriak Donostia baserriartu egiten du egun honetan. Euskaldundu ere bai?

31. *Euskal-Erria*, 1880, 1. sei hilabetea, 4. or.



Euskal-Erria aldizkariaren lehen alean agertzen zen marrazkia

2.4.3. FORURIK EZ ETA... ALDUNDIARENTZAT ERE FESTOK PROBETXUGARRI

Ikusi dugu euskal festak Donostian ospatzen hasi zirenetik Gipuzkoako Aldundia tartean genuela. Baina zergatik erabakitzen du Aldundiak 1894. urtetik aurrera euskal festak probintzia osora zabaltzea? Zein zen XIX. mende bukaera hartan Aldundiaren egoera? Zein zen 1876az gero Gipuzkoan bizi zen egoera? Zein foruak galdu izanaren ondorioak?

Foruak indarrean zirela, Gipuzkoako probintziak Batzar Nagusiak eta Aldundia zituen bere gobernurako³². Batzar Nagusiak urtean bitan ospatzen

32. Gipuzkoako Batzarre Nagusiak gaitzat dituzten lanak ugariak dira. Horien artean...

Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Las Juntas Generales de Gipuzkoa. Donostia, 1996.

VV.AA.: *Historia de las Juntas Generales y Diputación Foral de Gipuzkoa.* Donostia, 1992. Azken lan honetan bada Juan Antonio Saez Garciak egindako gai honi buruzko gerturatze bibliografikoa. Interesgarria izango zaigu honen azterketa gaia sakondu nahi izanez gero. 1992az geroztik bibliografia kontsultatu nahi izanez gero, eman begiratu bat ondorengo argitalpenen atal bibliografikoei:

- ACHON INSAUSTI, José Angel: "A voz de concejo". *Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa: los Bãñez y Mondragón, siglos XIII-XVI.* Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 1995.

- RUIZ HOSPITAL, Gonzalo: *El Gobierno de Gipuzkoa al servicio de su rey y bien de sus naturales. La Diputación provincial de los fueros al liberalismo (siglos XVI-XIX).* Donostia, 1997.

- TRUCHUELO GARCIA, Susana: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII).* Donostia, 1997.

ziren: uda eta neguan. Batzar hauen iraupenari buruz iritzi desberdinak ditugu. Hauetara, herri desberdinetako prokuradoreak biltzen ziren. Hauetaz gain, Batzar hauetara, aipagarri diren zenbait kargu publiko ere joaten zen: Korrejidorea (erregearen ordezkaria), lehendakari laguntzailea (hau Batzarak ospatzen zireneko herriak izenda zezakeen letratua zen), eta eskribaua (hitz egindakoaz aktak idazten zituen).

Batzar Nagusiak biltzen zirenean, giro berezia sortzen zen euskal herrietan. Ikus dezagun Larramendik zer dioskun³³:

“Las juntas de cada año duran seis días, y pocos años ha duraban once días. El pretexto de evitar gastos a las repúblicas ha acortado el término; pero ha introducido también mucho atropellamiento en el exámen y decisión de tantos negocios como ocurren de ordinario, y se dejan frescamente para la diputación de entre año. Que algún año, en que por casualidad hay pocos negocios, se contenten con los seis días, y si quieren con menos, ya pudiera pasar; pero que en otros años, en que ocurre multitud de graves dependencias, traten de ceñirse a los seis días, y esto sólo por la mañana, y aunque conozcan que es poco el tiempo, esto es lo que no puedo acomodarlo a la prudencia. Pero ello sucede así, y otros habrá que lo entiendan mejor que yo. Durante las juntas se hacen dos funciones sagradas, magníficas, de gran lucimiento, en el primero y tercero día, en que por esa razón son breves las juntas. Salen de ellas con todo orden, y entrando en la iglesia, que está muy adornada y todo dispuesto para la procesión solemne, salen con ello por las calles con clarines y otros instrumentos y música de cantores. Todo en obsequio de María Santísima en su Purísima Concepción y del gran patriarca San Ignacio de Loyola, patronos y titulares de la provincia, y especialmente de sus juntas, cuyos bultos, riquísimamente adornados, van infundiendo alegría y devoción por las calles. Entrando de vuelta en la iglesia, y sentados en el circo de los junteros, presididos del corregidor y diputado general, empieza la misa más solemne y luego el sermón, el primer día a la concepción y el segundo a San Ignacio, en que los oradores a competencia hacen demostración de su elocuencia. Así fuera ella más instructiva y menos lisonjera.

En estos y en los demás días van los caballeros a la habitación del corregidor, y precediendo los clarines, le acompañan a la iglesia; oyen luego la misa rezada, y salen para las casas de ayuntamiento. Todos van vestidos de negro y uniformes, estándoles prohibidas las telas. Dejan a la entrada los espadines en señal de quietud y paz que ha de haber en la junta; y hay en el fuero gravísimas penas para los que sacasen armas y se desenfrenasen en injurias y voces pesadas, y ha muchos años que no se oye escándalo ni tumulto”.

Batzarrak ospatzen zireneko lekuari buruz esan herri zerrrenda bat bazela, eta haiek txandaka ospatzen zirela. Hauek ziren Batzar Nagusiak ospatzen zireneko herriak: Zestoia, Segura, Azpeitia, Zarautz, Villafranca (Ordizia), Azkoitia, Zumaia, Hondarribia, Bergara, Mutriku, Elgoibar, Deba, Errenteri, Getaria. Herri horiei berriak gehitzen joan zitzaizkien: 1846an Oñati, 1860an Irun eta

33. LARRAMENDI: *Corografía de Guipúzcoa*. Descripción escrita en 1754. Buenos Aires, 1950. 105-106. orrialdeak.

Oiartzun, 1865.ean Eibar, eta 1867an Zumarraga. Batzar Nagusi horietaz gain, aparteko arazorik sortzen bazen, Batzar berezia deitzen zen Usarraga (Bidanian) edo Basarten (Azkoitian). Zein zen Batzar Nagusi horien egitekoa? Erdi Aroan, Gipuzkoako bizitza publikoa erregulatzea, Gipuzkoako lurraldean bakea mantentzea zuten eginkizun, eta beraz, existitzen ziren araudi eta abar betearazten zituzten. Baina horretaz gain, bazuen botere judiziala ere. Batzar Nagusiak izendatutako pertsona zen probintzian zergen bilketa egiten zuena. Aro Modernoan, Batzar Nagusien eginbeharrak zehaztuz joan ziren, gehituz. Funtzio militarra ere hartu zuten: guda zenean, gerrarako prest zeuden gizonak prestatu eta antolatzen zituzten (Gipuzkoako gizonek ezin zuten gudarako beren probintziatik atera). Aurretik ere bazituen funtzio ekonomiko, judizial, administratibo eta lege-egileak mantentzen dituzte.

XIX. mendera gerturatu ahala, Gipuzkoako Batzar Nagusiek egoera gatazkatsua ezagutuko dute. Konbentzioko Gerra zela eta 1793. urtean Donostia hartua izan zen eta frantses gudarosteak Miranda de Ebrorainoko toki hartu zuten. 1794ko urrian Batzar Nagusiak Getarian bildu ziren, Frantziarekin irtenbideren bat hitzartu nahirik. Ez zuten lortu, ordea.

Napoleonen gudarosteak Espainian sartzearekin batera Batzar Nagusiak beren izaera galduz edo aldatuz hasi ziren³⁴. 1813an espainiarren garaipenak Batzar Nagusiak berriz bildu ahal izatea ekarriko du. Egoera ordea, aldatu egingo da, 1812an Cadizko Konstituzioak Espainiako bizimodu politikoa aldarazi egingo baitu. Espainian erregimen konstituzionala edo forala onartu, Gipuzkoako Batzar Nagusiak egoera eroso edo deserosoagoan aurkituko dira. 1837. urtetik aurrera okertu egingo dira gauzak³⁵. 1837ko irailaren 16an Foru Aldundiak Probintzia Aldundiak izatera pasako dira. 1839.ean berriz, lehenengo Gerra Karlistaren ondoren, foruak baieztatuko dira, bai, baina "sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía".

1876ko uztailaren 21ean erregimen forala indargabetu egiten da eta 1877an erakunde foralak desegin. 1876az geroztik, Aldundietako kideak sufragio unibertsal bidez aukeratuak izango dira.

34. CAVA MESA, María Jesús: "Juntas Generales y Diputación de Gipuzkoa (1808-1979)". In: *Historia de las Juntas Generales y Diputación...* op. cit. 129-194. or.

35. Dena den, bada prozesu honi buruzko iritzi aipagarriak. José María Portilloren hitzetan euskal probintziak indartu egiten dira ahuldu ordez Madrildik eragindako zentralizazio prozesuaren aurrean. Ikus:

PORTILLO, José María: "La jurisdicción inventada. Jurisprudencia y política provincial en la monarquía hispana". In: *Scienza e Politica. Per una storia delle dottrine*. 7. zbkia. 1992. 3-19. or.

PORTILLO, José María: *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las provincias vascas (1760-1808)*. Madril, 1991.

PORTILLO, José María: "Las provincias vascas y la guerra de la convención: primer encuentro con la revolución". In: *Studia Historia. Historia Moderna*. XII. zbkia. 1994. 71-89. or.

Hari berean...

RUBIO POBES, Coro: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del estado español, 1808-1868*. Madril, 1996.

Euskal festei buruz ari garelarik... 1894. urtean, Aldundiak horiek herriz herri ospatzea erabaki zuen. Horrela, ondorengo saila aipa dezakegu: 1896an Arrasaten, 1897an Oiartzunen, 1898an Zestoan, 1899an Zumarragan, 1900an Zumaian, 1901ean Azpeitian, 1902an Oñatin, 1903an Irunen, 1904an Ordizian, 1905ean Bergaran, 1906an Donostian, 1907an Elgoibarran, 1908an Eibarren, 1909an Hernanin, 1910ean Azkoitian, 1911an Seguran, 1912an Zarautzen, 1913an Tolosan ospatu ziren, eta abar. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Aldundiak babestutako euskal jai hauetan gainera, Aldundiko kideak parte hartzen zuten prozesioa osatuz, meza nagusia ere izaten zen... Sistema foralaren indargabetzeak Batzar Nagusiak ezin ospatua ekarri zuen. Zergatik hartu zituen Aldundiak euskal festak garai bateko Batzar Nagusietan ospatzen ziren prozesio, eta abar egin ahal izateko aitzaki gisa? Zergatik behar hura sentitu? Garai hartako euskal festek euskara bultzatu eta ganadu arraza, eta abarren hobekuntzaz gain (aurrerago ikusiko dugu ganadu lehiaketek zein garrantzi zuten) zein helburu zuten bada? Zestoako euskal festetan hitzaldia egin zuen Aldundiko partaide zen Pavía jaunak emango digu erantzuna³⁶:

“Por lo demás, señores, -a nadie que conozca a los bascongados puede ocurrir que nos hayamos reunido en la villa de Cestona con el único objeto de solazarnos; ni que el Concurso agrícola, por muy beneficioso que resulte para el país, sea el fin principal que persiguen la Diputación provincial y las demás corporaciones que prestan al mismo su valiosa cooperación; ideal más elevado movió desde un principio á los autores del proyecto de celebrar anualmente un certamen agrícola y de ganadería, alternando al efecto entre 18 pueblos de la provincia y no estará de más recordarlo en esta ocasión.

Nuestra generación, que ya declina en el otoño de la vida, recuerda con un sentimiento impregnado de melancolía, aquellos risueños tiempos de la niñez en los que, para dicha de Guipúzcoa, imperaba aún el *régimen foral*; las animadas conversaciones que en el seno de nuestras familias se sostenían, cuando se aproximaba la época de la celebración de las notables *Juntas generales* que llevaban á los pueblos de ésta región del *Euskal-erria* una vida, una animación y un contento de que difícilmente puede formarse idea al presente; el respeto y la veneración con que nuestros padres nos enseñaron á hablar de la *Diputación foral*, institución que á nuestros ojos aparecía rodeada con la misma aureola que al recogerlos en nuestro espíritu vemos ceñir la frente de nuestras cariñosas madres. Por eso, al persuadirnos que aquel estado pertenece ya á la historia, que nuestro fuero secular es desconocido á la generación que nos sigue en el camino de la vida, sentimos todos la necesidad de explicárselo, de sostener el recuerdo de nuestras perdidas libertades, de trabajar por todos los medios legales para la reivindicación de nuestro peculiar régimen al cual somos deudores del estado floreciente en que nos hallamos, comparado con el resto de España.

Obedeciendo á este orden de consideraciones, la Excm. Diputación provincial de Guipúzcoa, con plausible acuerdo, resolvió celebrar anualmente estos Concursos que habrían de servir de motivo para que la Cor-

36. *Euskal-erria*, XXXIX. alea (1898) 261-264. orriak.

poración provincial y los Ayuntamientos de los pueblos se reunieran en un sentimiento común, estrechándose los lazos que el cariño y la tradición formaron. Cual en el tiempo de la época foral, congregados en el templo las autoridades populares, y el pueblo que las nombró, darían gracias al Altísimo por los favores que su munificencia había derramado sobre ellos; y le pedirían luces para administrar bien, y para elegir administradores probos: la voz de los ministros del Señor resonaría como antaño ensalzando la gloria de María Santísima en su Purísima Concepción, y del gran Patriarca San Ignacio de Loyola, aconsejando á los guipuzcoanos á seguir las huellas de sus mayores, que fueron religiosos, amantes de sus tradiciones, buenos usos y costumbres, y animados del espíritu de la democracia cristiana”.

Euskal festetan gainera euskal izaera jakin bat goraiatzan eta bultzatzen da³⁷, Aldundiak berak ere bultzatu gura duena:

“Las antiguas danzas euskaras, los concursos de poesías en la milenaria lengua de *Aitor*, los *zortzikos* y demás cantos populares y los *irrintzis* de nuestros montañeses, serían fondo apropiado á esta resurrección de nuestra vida foral, que tan grato recuerdo habría de dejar entre todos los guipuzcoanos, y habría de herir con huella indeleble la imaginación de los que, niños hoy, serán mañana los hombres que rijan los destinos del país basco. El fomento de la agricultura y la ganadería, principales veneros de la riqueza de éste país, se estimularía con los Concursos anuales, premiando los esfuerzos de nuestros *baserritarrak*, nervio principal de la población vasca, á la par que demostraría que nuestras Diputaciones provinciales, fieles continuadoras de las Diputaciones forales de perdurable memoria, si atendían preferentemente á los intereses morales de nuestra querida provincia, no descuidaban el fomento de los intereses materiales de sus administrados”.

Aldundiak, foruen deuseztapenaren aurrean, jarrera aktiboa hartzen du, eta euskaldun orok ere jarrera hori har dezan eskatzen du³⁸:

“... No sabemos lo que el porvenir nos reserva al salir de la tremenda crisis que nuestra Patria atraviesa en la actualidad, pero deber nuestro es el estar preparados á todo evento. Pidamos, sí, pidamos la reivindicación de nuestros fueros; pero no con estériles lamentaciones, cual débiles mujeres, sino trabajando con ahinco por recuperarlos aprovechando al efecto cuantos medios nos permitan las leyes. El amor á nuestros fueros no ha de ser meramente platónico, cosa harto cómoda seguramente, ha de ser un amor que nos lleve al sacrificio; por eso los que forman en las filas de las clases ilustradas deben estudiar con ahinco el origen, historia y modo de ser de nuestro régimen foral; enseñando luego á los demás, valiéndose ora de la palabra, ora de la pluma, cuanto en sus vigiliass consiguieron aprender; porque cuanto más conocidos sean nuestros fueros, más serán amados y mejor se apreciarán sus beneficios”.

37. *Ibidem*. 263. or.

38. *Ibidem*, 264. or.

3. EUSKAL FESTAK ZESTOAN

Iritsi zaigu Zestoan izandako euskal festak aztertzeko ordua, baina horren aurretik, XIX. mendeko Zestoa izango dugu kontuan.

3.1. Zestoa XIX. mende bukaeran

Pablo Gorosabelek honela deskribatzen digu 1862. urte inguruan Cestona (Zestoa)³⁹:

“Santa Cruz de Cestona: villa del partido judicial de Azpeitia, arcipresazgo mayor, antiguo obispado de Pamplona. Se halla situada en paraje algo elevado sobre el rio Urola, entre las villas de Azpeitia y Zumaya, á los 1 gr. 26 min. 30 seg. de longitud oriental, 43 gr. 14 min. 36 seg. de latitud septentrional. Confina por oriente con Aya y Rexil, por poniente con Deva, por sur con Azpeitia, por norte con Zumaya. Pertenecen á su vecindad y jurisdicción la tierra de Aizarza (sic) y valle de Arrona, y tiene en su término los barrios denominados Lasao y Alzolarás. Cestona fue en lo antiguo pueblo fuerte, cercado y murado; pues no se podía entrar en su recinto sino por cuatro portales situados en los puntos cardinales de oriente, poniente, sur y norte. La población consiste en dos calles principales con edificios muy regulares y un arrabal contiguo. En su jurisdicción hay cinco casas solares ó palacios, que son las de Lasao, Alzolarás, Lili, Iriarte y Bedua, y diferentes casas armeras antiguas, de donde descienden algunos títulos y caballeros de distinción; prueba de la mucha importancia que tuvo esta villa en un tiempo. En el censo de población formado en el año de 1860 el vecindario de toda la jurisdicción ascendió á 2.453 habitantes. Cestona tiene desde lo antiguo el título de NOBLE Y LEAL VILLA; y usa de un escudo de armas, en campo de plata, en cuya parte superior á su derecha se ve un castillo, y á la izquierda un león empinante, y en la izquierda cinco corazones de oro⁴⁰. La iglesia parroquial que tiene dentro del cuerpo de la villa es de la advocación de Santa Ana, que es de bastante buenas formas; cuya patrona es la misma villa, y se halla servida por un vicario y dos beneficiados. La tierra de Aizarna y valle de Arrona tienen sus respectivas parroquias, como se dijo al tratar de sus descripciones; a cuyos artículos remito al lector”.

“Celebra feria de ganados los últimos lunes de cada mes; para cuyo efecto parece obtuvo facultad real á fines del último siglo, de que tan solo hay noticia. La ocupacion principal de sus habitantes es la labranza de los campos, que es una de las mejores pues (sic) hacen en todo el país, y las cosechas de trigo, maíz, nabo, legumbres y castaña son abundantes; y tiene también bastante ganado vacuno. En su jurisdicción hay dos herrerías, una en el barrio de Lasao, otra en el de Alzolarás, y varios molinos harine-

39. GOROSABEL, Pablo: *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa*. Bilbo, 1972 (La Gran Enciclopedia Vasca berrargitaratua. 120-123. orriak).

40. Gorosabel ez dabil oso zuzen kasu honetan. Hiru zati ditu Zestoako hamarriak. Goiko partea bitan banatua dago: ezkerrekaldean gaztelua eta eskuinaldean lehoia dituela. Behekaldean berriz, berak urrezko bihotz bezala deskribatzen dituenak ditugu.



Zestoa XX. mende hasieran

ros. Además se han establecido recientemente seis fábricas de cal hidráulica, ramo muy importante de industria, que ocupa muchos brazos y produce grandes beneficios en el pueblo. También hay en su término algunas minas de carbón de piedra ó sea antracita; la cual se explota desde hace pocos años, y sirve para calderas de toda clase. En el citado barrio de Lasao hay una fuente de aguas termales salinas con una buena casa de baños y hospedería de bañistas; muy concurrida en la estación de verano por gentes del país y de otras provincias interiores del reino. Cestona tiene una escuela elemental de niños dotada con 2.000 reales anuales y otra incompleta de niñas con 1.100”.

Baina gertura gaitetzen, kronologiari dagokionez, 1898ra, euskal festak Zestoa ospatu zirenera. Nolakoa zen Zestoa 1898. urtean? Zein giro bizi zen? Izan al zen aipatzeko moduko gertakizunik?

XIX. mende bukaeran bizi zen giora ohitu gaitetzen, Antonio Arzac-ek, 1898ko irailaren 18an Zestoa eskainitako hitzaldiaren berri emango dizuegu. Bi kontzepturen inguruan antolatu zuen esatekoa: lehena eta geroa, oroitzea eta esperantza izatea⁴¹.

41. *Euskal-Erria*, XXXIX. alea, 1898. 312-313. orriak.

“Oroitz eta esperantzak.

Jáunak: Denbora guzietan, beti, bi itz oyen artean dago gizonaren bizia, eta batez ere euskaldunarena gaurko egunian, ainbesteraíño, non, nik esango nuken oroitzik ez daukan euskaldunik bada, zentzua galdu duela; esperantzik gabekoa, dagoela eri. Eta ezin izan liteke beste moduz: Jainkoak berak esaten digu ez dala gizona ogiz bakarrik bizi, au da, sabelaren gañian dauzkala biyotza ta burua, maité eta gauzen azkenbuka arrazoyaren argira ezagutzeko. Argatik, Diputazio chit goituak, bere gurasozko naitasun eta jakindurian⁴², erabaki zuen, ganadu eta lur-lana laguntzearekiñ batean, oroitu bear genduela gure aiten aitonen izkuntza eta oituretaz, zér ziran aztu gabe, eta beñere, sekulan, galduko ezditugulako esperantzarekiñ⁴³.

Ala ezpalitz, ganaduak saritzeko bakarrik, Diputazio chit goitua erriz-erri ibilltzea, nago izango litzakela gauza... motza. Baña, erri batera, gaur Zestua mendiz inguratutako euskal-kabi ontara bezela bildu Probinziya gobernatzen duten gizonak: aurrenik beren erritarrakiñ, egiazko anaitasunean anziñako legera Prozesioa egiña; elizan, On Domingo Agirre jaunaren sermoi paregabea entzun, gure amen kolkoan ikasitako izkuntza, ill arteraño bedeinkagarrian; ondoren, musika, kanta, festa eta dantza euskaldunak, mundu guziko gizonik jakintsuenak famatuak, mantendu eta indartu; denbora berean nekazari onradu, prestu eta langilleai lagunduaz... ¡a! Nork daki onek zenbat balio duen! Agertuko da urte guchi barru⁴⁴, eta ez genuke gaur kalterik izango, baldiñ gure Junta oroigarriak galdu ziran mugatik, ekiñ bazitzayon egin pide oni. Kontu: Junta ayen antzea Diputazioa erriyetara ez etortzekotan..., kontu, jaunak, ez ote litzak-en au, gaur edo bigar gure lurra gobernatzera gizon arrotzak sartzeko ematen genuen pauso berri bat; eta ontara ezker, (ez dago zer esanik), galduak giñake; ibilliko giñake ¡o Jaungoikoa! gure lurraren gañean, baña gure izatea litzake lur azpian dauden illotzena bera.

¡Euskal oroitzak!... denak daukatzute gogoan nik daukaten bezela, chikitatik gaurtaraño. Baña ez da aski, bakoitzak, oroitz oyek piztutzen dituzten oitura onak bere barruan gordetzea; euskal-azi ona betiko galdu ez dediñ, lan egiñ bear degu gauden egunetan, zergatik guk gure umeai erakusten ezpadiegu euskaldunak izaten, ¿nola oek erakutsi bear diye bigar berenai?

.....
.....

Eta ¿zer esan esperantzeta?... Oroitzak izanik beren zimendu eta sus-trayak, oek berriturik ageri da ayek noronz dijoazen. Munduko gora-berak diranak dirala, gure izatea beti laguna, gozua, batere neke eta penik gabekua baldiñ balitz ¡non legoke gure baliyua! ¡non euskaldunen fede zarra! ¡Ez! Gaitzik gabeko esperantzak, doakabeak gaur illuntzen baditu, argitaratuko dira bigar, ala nola odehyak estaltzen duten eguzkiya berriro agertzen dan Jainkoaren borondatez.

42. Ohar gaitezen Aldundi eta herritarren arteko harremanak, odol-harreman gisa agertzen direla, guraso eta seme-alaben artekoak balira bezala.

43. Hemen ikusten da euskaldunen artean amaiera, bukaera, galera sentsazioa bizi zela. Honi aurre egin nahirik sortzen dira, besteak beste, euskal jaiak.

44. Pavía jaunak bere hitzaldian emandako ideiak errepikatzen ditu hemen Arzacek.

Barkatu, jaunak, nere azken itzak tristeak badira, ondo goguan dauz-kagun urrutiyetan galdu diran mutill soldaduak, agur bat donkitzeko⁴⁵. Al... baserri oyetako ama eta neskacha askoren begiyetatik dijoazen mal-koak aunditu dituztela nago mendi arteko errekak!... negargariya iduritzen zait choriyen kanta bera atariyetako len-lengo arboletan, zeñen itzalean ari ziran, bildotsak bezela jostatzen, gero illtzera eramateko... mutill giza-rajo ayek!... Ta echera datozenak... ez det esan nai nola datozen!... Dipu-tazio chit goituak esku ematen diye beren famili gaisoa; baña au ez da aski ama orrek semea galdu badu, eche ori indar gabe eroriya badago, emen daude mutill ayen lagun zirenak, emen auzuak, zelai oyetan lan egiñ eta eche oyek jasotzeko, zertatik elkarri, ta batez ere bearran arkitzen danari laguntza, izan ta izango dan beti euskal-oituretan, menturaz ede-rrena.

Aspaldian, gure mutillen eskuetan dizdiratu dute armak, eguzkiaren errañuetara; ¡zenbatez obia etzan izango dizdiratu izan balute aitzur eta laiak!

Au eskatzen diot nik Jaunari, nere lur kutunaren zorionerako, Antonio Arzac.”

Antonio Arzac-ek esan digunari erreparatzen badiogu, bi dira aipa ditza-kegunak: batetik, XIX. mende bukaeran, euskalduna zenbait berrikuntzen aurrean aurkitzen zen, aldaketa handien aurrean eta hauei iragana oinarri hartuta erantzun behar zitzaie la aipatzen digu Antoniok, hauek ziren Arza-cek bere hitzaldian “oroitza” eta “esperantza” kontzeptuak erabiltzearen arrazoiak; eta bestetik, gertakizun konkretu bati buruz ari zaigu Kubako gerra aipatuz. Zein izan zen Kubako gerrak Euskal Herrian izandako eragi-na? Eta Zestean?

Lehenengo galderari erantzun nahirik esan behar da ez garela erantzu-teko moduan aurkitzen. Ez dugu gai hau, Kubako gerra eta Euskal Herria modu orokorrean tratatzen duen lanik ezagutzen⁴⁶. Dena den, eta Euskal Herrian sentitzen zena zer zen suma dezazuen, horra garaiko zenbait ber-tso⁴⁷ (herriarengan horien eragina zenbaterainokoa izan zen jakiterik ez badugu ere):

45. Arzac ondoren, Kuba eta Filipinetako gerran dauden soldadu-mutilei buruz arituko zaigu. 1895 eta 1898 urte bitartean Kubak independentziaren alde egingo du borroka Espainiagan-diko askatasuna lortu nahirik, honen kolonia baikenuen. Espainiak soldaduak bidaliko ditu Kuba-ra gerran parte har dezaten (hauen artean euskaldunak ere bazirelarik). Erabakiorra izango da 1898ko apirilaren 21ean EEBBak gerran sartu izana, Kubaren alde borroka egin nahian (gudan partaide izateko aitzaki Maine itsasuntzi ipar-amerikarrak jasandako eraso zutela). Azken hauen garaipena berehalakoa izango da. 1898ko abenduaren 12an utziko ditu Espainiak Kuba, Puerto Rico, Filipinak eta Guam irla.

46. Ez dugu gai honi buruzko argitalpenik ezagutzen. Bai ordea, aurtengoan mendeurrena betetzen denez gero, honen inguruko hitzaldiak: EHUak udako ikastaroetako kurtso bat, hitzaldiak Koldo Mitxelena kultur unean, eta abar.

47. Txirritarenak dira hauek. Auspoa saileko 103 eta 104. aleetan aurki ditzakezue 84. orrialdetik aurrera.

Milla zortzireun irurogei ta
amaseigarren urtian
ekaitz gaizto bat sartu zitzaigun
Kantabriyako partian;
lenago etzen kintik tiratzen
gure sor-leku maitian,
elementu au nondik sortu zen
ongi entera gaitian.

Kintak jarri ta ondorenian
beste ogei bat urtian
zeinbat amaren seme onradu
Cuban sartu zen lurpian;
guraso askok negar egin du
ura saldu zen artian,
geienak lutoz jantzi giñaden
Kantabriyako partian.

Aberats askok pagatzen zuen,
soldadu juan zenbait pobre,
lege ori jarri ez bazan ere
arlotiarentzat obe;
atzenerako estranjerua
egin zen islaren jabe,
len ere Cuba saldu ziteken
oinbeste gizon il gabe.

Eta Zestoan zein eragin izan zuen Kubako gerrak?⁴⁸ Zein egoeratan aurkitzen zen Zestoa 1898. urtean? Zestoako Udal Artxibategiko zenbait dokumentu izan ditugu galdera horiek erantzun ahal izateko iturri⁴⁹. 1897-1898 urteko erroldaren arabera⁵⁰, izatezko 2.637 biztanle ziren eta legezko 2.627. Zestoan aurkitzen zirenetatik, 2.523 espainiar gisa agertzen dira, eta atzerri-tar gisa 3 besterik ez. 115 dira errolda egiterako garaian kanpoan aurkitzen diren zestoarrak: 40 gizon eta 75 emakume⁵¹.

Jaiotza, ezkontza eta heriotzei dagokionez⁵², hamabi izan ziren 1898. urtean egindako ezkontzak, 96 jaiotako haurrak, eta 61 hildakoak. Heriotza horien zergatiak ez dira gerrari lotuak agertzen, bestelako gaitzei baizik: arnas aparatuekin edo digestio-aparatuekin lotutakoei, tifoideei, eta abarrei.

48. 3.2. puntuan ikusiko dugun bezala gerra giroak euskal festak etetea ekarri zuen ia.

49. Atal hau aberasteko, 1998ko irailaren 17an Zestoan ospatutako mahai inguruan Iñaki Azkunek esandakoak lagungarri izan dakizkiguke.

50. Zestoako Udal Artxibategia. Sail. B., neg. 9, sor.II, Lib. 3., Esp. 8.

51. Kanpoan ziren emakumeak, gizonezkoak baino ugariagoak ziren beraz, nahiz eta gerra garaian izan, eta abar.

52. Zestoako Udal Artxibategia. Hemendik aurrera Z.U.A. Sail. B., Neg. 9, Sor II, Lib. 3, Esp. 9.

Zeintzuk ziren Zestoarren artean bizimoduan aurrera egiteko moduak? Zertan egiten zuten lan? 1897-1898 urtetako industria eta salerosketa matrikulei erreparatzen badiegu⁵³, garai hartan hiru taberna (Tarazona, Ateche, Alcorta) zirela esan beharko dugu. Kinkila saltzaile bakarra genuen eta handizkako ardo saltzaileak (*al por mayor*), berriz, 24 (Zufiria, Alberdi, Eguiguren, Múgica, Olascoaga, Galarraga, Alberdi, Uria, Uranga, Pagadizabal, Urbietta, Valenciaga, Lizaso, Arteche, Alcorta, Elorza, Iceta, Illarramendi...). Txikikazko pattar saltzaile (*al por menor*) Gorrititarrak genituen. Txikikazko haragi saltzailea, Iriondo. Ur mineralei loturik Echaidetarrak ageri dira. Garraioei dago-kionez, idi pareaz Gurruchaga, Epelde, Michelena, Lazcano, Iburguren, Echeverria, Iribar, Zubimendi, Mancisidor, Elustondo, Costa, Aristondo, Zulaica, Azcue, Galdona, Azpeitia, Urbietta, Erquicia, Bereciartua, Zubizarreta, Albisu, Elosu, Irureta, Arteche... ibiltzen ziren. Telare mekanikorik ere bazen (Zuazo, Alkorta). Fundizio fabrika (Zuazo), teilak eta adreiluak egiten zituen fabrika (Alberdi), kare hidrauliko edo zementu naturala egiten zutenak (Uriarte, Echeverría, Corta), papera egiteko pasta lantzen zuteneko fabrika (Eleizgaray), marmolak zerratzeko fabrika (Aranberri)... Errotak berriz Echaide, Zufiria, Zuazo, Iribar, Zurueta, Guesalaga, Barrena, Illarramendi, Eizmendi, eta Azcueta-rraren eskutan genituen. Okintzan berriz Zavaleta eta Zuazuetarrak. Bi mediku ere baziren eta botikaria ere bai. Gozogile (Elorza, Echaide, Alcorta, Olaizola, Iruretagoyena), igeltsero (Querejeta, Alberdi), hargin (Odriozola), zurgin (Goitia, Oyarzabal, Unamuno, Gaztañaga, Lizaso, Iburguren, Michelena, Esnal, Martin Mugica), alpargatari (Alberdi, Cestona, Lersundi), bizargin (Alcorta), zestogile (Irureta, Mendia), errementari (Azpillaga, Mugica, Ugarte, Eguiburu, Mugica), hojalatero (Querejeta) eta zapataririk ere ez zen falta (Aramberri eta Orbegozo).

Bada udal artxiboan zestoarrek Kubako gerran zirenei luzatutako laguntzaren berri ematen digun agiririk⁵⁴. Bertan bai Udalak, bai banakakoek emandako laguntzak azaltzen dira:

- 1898ko maiatzaren 20an, 835 pezeta eta 60 zentimo.
- maiatzaren 28an 275, 05 pezeta.
- ekainaren 7an 160,50 pezeta.
- ekainaren 13an 47,30 pezeta.
- ekainaren 28an, 28,25 pezeta.

Orotara beraz, 1.346,7 pezeta ziren zestoarrek Kubako gerran zirenen alde emanak. 1898. urtean izan ote zen Kuban gudan hil zen Zestoarrak? Guk aztertutako agirien arabera ez dirudi. Dena den, lasaiago aztertu beharreko gaia litzateke hau.

53. Z.U.A., Sail. C., Neg.7., Lib. 1., Esp. 18. 1897-1898: Registro de Matrículas industriales y de comercio.

54. Z.U.A., Sail. E, Neg.5, Sor.III, Lib.1., Esp.1. 1898: Listas y documentos sobre la suscripción nacional voluntaria para atender el fomento de la marina y los gastos de la guerra.

3.2. Euskal festen prestakuntza

Zestoako euskal festek, helburu eta nolabait esateko antolatzaile anitzak zituzten, helburu bakoitzeko bana, nahiz eta festak, azken finean bakarrak izan. Euskal kultura (literatura, musika, bertsolaritza), baina batez ere literatura bultzatu nahirik, Donostiako Euskal Itz-jostaldien Batzarrea genuen. Ganadu eta nekazaritza bultzatu eta hobetu nahian berriz, Aldundiko Nekazal Batzordea. Eta Aldundiaren presentzia gipuzkoarregana gerturatu nahirik, Aldundia bera. Aniztasuna, baina bakarra. Entzun ezazue aurreko esaldiaren izatea zertan oinarritzen den. Aurrerago ikusiko dugun bezala, nahiz eta Zestoako euskal festak prestatzen hasiak izan, Kubako gerrak sortzen zuen giro tristea zela eta, bertan behera utziak izan ziren. Ganaduzaleen protestek, ordea, behartu egin zuten Aldundia ganadu lehiaketa eta meza (Aldundiko kideen prozesio eta abarrekin) ospatuko zirela baieztatzen. Itz-jostaldien Batzarreak eta Zestoako zenbait bizilagunen protestek, berriz, literatur eta musika lehiaketak ere ospa zitezen eragin zuten. Ekitaldi desberdinak ziren baina festa bakarra osatzen zuten.

1897ko Azaroan, 1898ko euskal festetan begiak, Komisio probintzialak Aldundiagandik enkargua jaso zuen: euskal festak hobetzeko (kontuan izan bi urtetako esperientzia zutela jada euskal festak antolatzen: 1896an Arrasaten eta 1897an Oiartzunen izan baitziren) zer egin zitekeen aztertzeko eskatu zion Aldundiak Komisioari, baita euskal jai haiei zegokien aurrekontua prestatzeko ere⁵⁵.

Aurrekontuari zegokionez, Aldundiak eta Udaletxeek zein gastuei aurre egingo zieten bereiztea beharrezkoa zela zeritzoten komisio probintzialeko kideek. Aldundiak nekazal eta literatur lehiaketetako sariek sortutako gastuak bere gain hartuko zituen eta gainerakoak (antzerki emanaldiak, kantuak, musika...) Udalak ordaindu beharko zituen. Zenbait kantitate aurreratzen ditu: ganadu lehiaketetako irabazleei 9.395 pezeta inguru, Itz-jostaldien Batzarreak ematen dituen sari eta dituen beharrei erantzuteko 1.305 pezeta, sermoi egileari 500 pezeta,... Bazkariaren zenbatekoaz, beste zenbait gastuz... ezin du Komisio horrek zenbatekorik aurreratu, zailak baitira zehazten.

Euskal festak hobetzeari zegokionez, berriz, oinarri berriak proposatu zituen Probintziako komisioak (iturri beretik):

“Primera. Bajo los auspicios de la Diputación se celebrarán el primer domingo de Julio y lunes y martes siguientes de cada año, en el pueblo á que haya cabido en turno, concursos de agricultura y ganadería y fiestas euskaras.

Segunda. La función religiosa del primer domingo de Julio, dará principio con una procesión á la que asistirán el Ayuntamiento de la localidad en que se celebren las fiestas, las Comisiones auxiliares y la Diputación, ésta

55. Gipuzkoako Agiritegi orokorra. JD ITF 1538/ 377. 50-52. orriak.

en traje de etiqueta, conduciéndose custodiadas por miqueletes, las efigies de la Purísima Concepción y de San Ignacio, de propiedad de la Provincia. El sermón que se pronuncie durante la Misa solemne del domingo, habrá de ser precisamente en vascuence.

Tercera. Después del banquete oficial y esku dantza se celebrarán en la tarde del domingo, todo el lunes y la mañana del martes, los Juegos florales y demás concursos que se crea conveniente organizar. Los tamborileros, bersolaris y otros, que en certámenes análogos hayan obtenido tres veces un primer premio, quedarán fuera de concurso, pero podrán formar parte del Tribunal que ha de discernir la recompensa, con voz consultiva.

Cuarta. La admisión del ganado y productos agrícolas que se presenten al concurso, tendrá lugar el lunes por la mañana, su examen y clasificación el mismo día por la tarde, y el siguiente, martes, también por la tarde, la adjudicación de premios, que se hará precisamente por la Diputación, ó por la autoridad ó persona quien esta designe.

Quinta. Los premios á los toros se abonarán: la mitad en el acto y la otra mitad un año después, en vista de un certificado del Alcalde del pueblo donde resida el dueño del toro, con el que se acredite que ha estado destinado á semental, siendo precisa la presentación de la res. De este modo se atiende, más eficazmente, al mejoramiento de la raza vacuna, haciendo que los toros premiados, que desde luego se supone que son los más notables, sirvan para reproductores.

Sexta. Si algún expositor renunciase al importe del premio que le corresponda, se le dará un diploma en que conste la distinción que ha obtenido y la generosa renuncia que hace de la recompensa en metálico; y siempre que esta pertenezca á un primer premio, su nombre será inscripto en un cuadro de honor que se colocará en "Fraisoro" figurando como socio protector de esta Casa-modelo⁵⁶.

Séptima. Además de la remuneración en metálico que se conceda, se entregará á cada expositor premiado un diploma firmado por el Presidente de la Diputación, en que se haga constar el objeto de la distinción y su recompensa. Estos diplomas deberán estar colocados en sus marcos.

Octava. Se establecerá mayor número de premios, inferiores en un tercio próximamente á los menores de la sección á que correspondan, con objeto de fomentar la concurrencia, para los expositores á quienes el Jurado considere conveniente concedérselo, dentro del límite que tenga señalado, y sin que nunca, ni por ningún concepto pueda exceder la cantidad que se invierta en premios y recompensas del presupuesto que, con antelación se fije. Los premios á que se refiere esta base, podrán ser otorgados á expositores que, habiéndolo obtenido antes, y no mereciéndolo mayor, vuelvan á presentar su ejemplar ó producto premiado en los concursos siguientes, aunque sea procedente de las otras dos ramas en que se considera dividida la Provincia para estas exposiciones.

56. Nekazal hobekuntzak probatzeko 1896an Aldundiak zabaldutako etxea. Zizurkilen aurkitzen zen hau. In: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Diccionario Enciclopédico*. Donostia, 1982. 104-106. or.

Novena. Todas las otras de ornato público que los Ayuntamientos de los pueblos en que se celebran las fiestas, acuerden llevar á cabo, se costearán exclusivamente de fondos municipales. De cuenta de la Diputación será tan solo la instalación de un pabellón que se colocará en el sitio más conveniente de la localidad en que se verifiquen los concursos, bastante amplio para llenar los distintos servicios á que se le destina, como el reparto de premios, conteniendo una mesa en forma de herradura, capaz para treinta personas en uno de sus arcos, coronado todo él con las armas y bandera de la Provincia, y de una instrucción tal que siendo de fácil desarme, pueda ser transportada de unos á otros pueblos.

Décima. Se entiende que continúan en vigor los acuerdo anteriormente adoptados por V.E. sobre la materia, en todo aquello en que no hayan sido derogados ó modificados por las presentes bases⁵⁷.

Zestoako euskal festen prestakuntzarako eta aurreko urtetako zenbait huts sahiestu nahian, Antonio Arzac festen arduradun izendatzea proposatu eta erabaki zen:

“El Vocal que suscribe (Colmenares, Vocal de la Comisión especial de Agricultura y ganadería) ateniéndose al dictamen aprobado por la excma. Diputación en sesión de 4 de noviembre último en orden al informe del Sr. Dn. Alfredo de Laffitte relativo á la memoria de D. Antonio Arzac acerca de las fiestas euskaras y concursos de agricultura y ganadería que anualmente se celebran, tiene el honor de manifestar a V.E. que acercandose el periodo de las sesiones semestrales del mes de Abril, cree llegado el momento oportuno de que la comisión provincial se encargue de hacer el presupuesto detallado de gastos de las indicadas fiestas para someterlo a la sanción de la Diputación, y que acepte las modificaciones tan acertadamente propuestas por el Sr. Laffitte en su luminoso informe.

Conforme á lo que en este se indica, el vocal que suscribe, juzga conveniente para el mayor resultado de los fines que la Diputación persigue el que se confiera al Sr. Arzac el cargo de Delegado, revistiéndole en lo sucesivo para el desempeño de los servicios que á petición de la Corporación provincial ha prestado hasta hoy, de la autoridad indispensable que dá el nombramiento (1898ko otsailaren 24an)⁵⁸

Arzac jauna izango zen gainera nekazal eta kultur lehiaketeki batasuna emango ziena, festa bakar batean bilduko zituen:

“Además la Exma. Diputación tiene fundadamente acordado que las fiestas euskaras y concursos literarios se verifiquen como vienen celebrándose, juntamente con los de Agricultura y ganadería hermanando así los adelantos materiales con el progreso intelectual y moral; y para cuanto


57. Oinarri hauek, 1898ko apirilaren 21an eztabaidatu ziren Gipuzkoako Aldundi probintzialan. Horiek horrela, Zestoako euskal festei zegokionez, arau hauek bere osotasunean betetzeko obligazioa zegoen (ikusiko dugu benetan horrela izan ote zen).

58. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, hemendik aurrera G.A.O. JD ITF 1538/377, 44-45. orrialdeak.

concierno al asunto y dar a la empresa indicada la unidad de acción que requiere, nadie tan indicado como el Sr. Arzac por su acreditada experiencia”⁵⁹.

Arzac jaunak, onartu egin zuen kargua, bere eskuz idatzitako eskutitzean ikus dezakegun bezala⁶⁰: “Acepto, profundamente reconocido, el expresado cargo, que procuraré desempeñar inspirándome en los verdaderos intereses de nuestra amada tierra”.

Otsailerako garaiko inprenta gizonak hasiak ziren beren zerbitzuak eskaintzen (programa, iragarki, eta abar diseinatu eta inprimatzeko): Victoriano Iraolak, otsailaren 26an, “Que debiendo celebrarse el verano próximo las anuales fiestas euskaras en la villa de Cestona, ha formado el adjunto boceto que pudiera servir, en el caso de ser aprobado por esa digna Comisión para los carteles anunciadores de las citadas fiestas”⁶¹. Zergatik hainbesteko presa? Eskutitzean berean irakur dezakegunez, “Al tomarme la libertad de hacer esta proposición a V.E. tan anticipadamente, es con el único objeto de que, siempre que sea aprobada, tenga el que suscribe, tiempo suficiente para su ejecución y así poder presentar un trabajo concluido, circunstancia que no concurrió en los del año pasado, por falta del tiempo necesario para la ejecución de los mismos”. Ez zen Victoriano Iraola izan ordea bere zerbitzuak eskaini zituen bakarra. Federico Alvarezek horra



Zestoako euskal festen iragarpen kartela prestatzeko Federico Alvarezek aurkeztutako aurrekontua

59. *Ibidem*.

60. *Ibidem*.

61. G.A.O. JD ITF 1550/ 451.

zein diseinu eskaintzen zuen: “el detalle interesantísimo del hijo del país que reza al oír el toque de la cercana iglesia indicando el medio día. Después, en medios tonos ocupando todo el resto del papel se pondrá el escudo de Guipuzcoa e impreso encima o sobre puesto el texto del anuncio en caracteres que no dañe al escudo ni viceversa”⁶². 500 alek 800 pezetetako prezioa zuten, eta Victoriano Iraolaren kasuan berriz, ale bakoitzak, 2,50 pezetetakoa.

Zarauzko musika bandako zuzendari zen Antonio Abadek ere eskaintzen dizkio Aldundiari bere zerbitzuak Zestoako euskal festetarako (1898ko apirilaren 29an iristen da eskutitza Aldundira). Hark Zestoako Udalaren eskutan uzten du musika bandaren aukeratzea.

Martxoaren 23an, Antonio Arzác-ek, Komisio Probintzialak hala eskatuta, festen aurrekontua prestatu eta aurkeztu zuen. Horra bertan agertzen ziren zenbait datu:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Salbea interpretatuko zuen organista	Zehaztu gabe
Sermoa edo hitzaldia egingo zuenari	500 pezeta
Donostiako Orfeoia ⁶³	16,50 pezeta abeslariko
Orotara: 1.072 pta.	
Literatur eta musika lehiaketetako sariak	980 pezeta
Itz-jostaldien- batzarrearen gastuak (Zestoara bidaia, eta abar)	325 pezeta
Euskaldun-fedea antzerki taldearen emanaldia ⁶⁴	613 pezeta
Iragarkiak-kartelak	2,50 pta bakoitza
Bazkari ofiziala	Zehaztu gabe

62. Ibídem.

63. Antonio Arzác-ek Donostiako Orfeoia abesten zituen euskal abestien berri ere ematen digu: “Gernikako arbola, Inchauspeko alaba, Festará, Nere maitiarentzat, Goizeko izarra, Coros suecos (euskal letrekin), Lartaun, Boga, Ezkonberriak, Biyotz penatuba, eta Illunabarra”.

64. Hauek ziren antzezten zituzten antzerki obrak: Anton Kaiku, Gabon, Au ostatua, Alkate berriya, Urrutiko inchaurrak, Bar renen arra, Bañan ¿zein naiz ni?, Abek istillubak, Martin Tiñaku, Aterako gera, Aritzaren zumo gozua, Au poza, Umezurtza, Damuba garaiz.

65. G.A.O. JD ITF 1550/451.

Arzác jaunak, aurrekontuen zehaztapena 1898ko abuztuaren 3an burutu zuen⁶⁵:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Elizkizunetarako musika izatea (orkesta, ahotsak...)	1.300 pezeta
Zestoako erretoreari (eliza apainketa, eta abarretarako)	300 pezeta
Domingo Aguirre sermoigileari	500 pezeta
Amabirjina eta Inazio deunaren imajinak, eta abar prestatu eta Zestoara ekartzea	40 pezeta

Apirilean, arestian aipaturiko eta euskal festak antolatzen zituztenek jarraitu beharreko arautegia onartu zen. Honetaz gain, Machimbarrena jaunak, Domingo Aguirre proposatu zuen igande goizeko mezetarako hizlari. Denek onartu zuten ideia.

Apirilaren 29an, Zestoako Udal eta Komisio probintzialak festak ez ospatzea erabaki zuten Euskal Herria eta Gipuzkoa sufritzen ari ziren egoera txarragatik (Kubako gerrak eta lehortek eraginda). Bakea gailentzerakoan ospatuko ziren euskal festak Zestoan. Horrela jasotzen da agirietan⁶⁶:

“Pidió la palabra el Sr. Moco-roa, y en nombre de la Comisión manifestó que se había acercado á ésta una representación del Ayuntamiento de Cestona, indicando la conveniencia de que, en atención á las críticas y angustiosas circunstancias que atraviesa nuestra patria, se suspendieran por este año los concursos de agricultura y fiestas euskaras que, bajo los auspicios de la Diputación, habían de celebrarse en aquella villa”.

Komisio probintzialak ideia hori gogoz hartu zuela gaineratu zuen Moco-roa jaunak. Denak ez zeuden ados ordea. Aranguren jaunak horrela zioen:

“... no había razón para aplazar la celebración del concurso de agricultura y ganadería pues eso equivalía á irrogar perjuicios a los labradores que habían hecho los más ó menos cuantiosos para cuidar á los ejemplares de las diversas especies de ganado que trataban de presentar al referido concurso, el cual en manera alguna pugnaba con las tristezas de la patria, si se disponía como podía y debía disponerse que se eliminara este año todo lo que tuviese carácter de fiesta y regocijo, y se limitase al certamen á lo que directamente de la riqueza pecuria de la Provincia”.

Arangureni Pavía jaunak erantzuna eman zion:

“... y dijo que no era factible esa eliminación que proponía el Sr. Aranguren puesto que de celebrarse los concursos, había que verificarlos con sujeción a las normas trazadas ya por la Diputación, y que si en Cestona se prescindía de las fiestas euskaras que en otras villas se habían verificado, aquél pueblo creería que se le trataba como si fuese de peor condición”.

66. G.A.O. JD ITF 1550/451.

Gaiari zenbait buelta eman ondoren, bozketa egitea erabaki zuten. Hamar jaiak bertan behera uztearen alde agertu ziren eta lau kontra.

Jendea, ordea, ez zen gustura erabaki harekin. “Comisión especial para el fomento de la Agricultura y ganadería” zeritzonak, honela zioen 1898ko maiatzean Aldundiari zuzendutako instantzian⁶⁷:

“Bien se comprende que los tiempos que corremos no son adecuados para la celebración de fiestas, pero las exposiciones de ganadería fundadas por V.E. con el aplauso general de la Provincia, tienden á fomentar su riqueza, nunca mas necesaria que ahora, para hacer frente á los sacrificios que forzosamente ha de imponer á todos la patria, obligada como se halla á defender su honor en una guerra inicua y salvaje.

Por las funciones que desempeña esta comisión, se halla en contacto con la clase labradora del país, y puede hacerse eco de sus aspiraciones cerca de V.E., y en este sentido debe manifestarle, que la suspensión acordada irrogaría á muchos labradores considerables perjuicios, porque han preparado su ganado contando con el certamen, aparte de que significaría un paso atrás en las mejoras iniciadas, cuyo desarrollo principalmente en lo que se refiere al ganado vacuno, se hace mas patente cada día”.

Orain arte azaldutakoari, ondokoa gehitzen dio Komisioak:

“Dejando á un lado otras consideraciones, la comisión se cree en el deber de decir a VE, que en la exposición de Cestona es donde trataba de adquirir los reproductores que ha de sustituir á los que se importaron de Suiza, porque estos van á llegar á la edad reglamentaria para separarlos del servicio, y es evidente que la elección de los animales no se puede hacer bien, si los mejores no se hallan reunidos en el concurso”.

Baina horretaz gain, herrietako baserritarrak izango dira Zestoako euskal festak eta batez ere ganadu lehiaketa bertan behera utzi izanaz kexatu, eta ospa dadin eskatuko dutenak.

Zumaiatik, adibidez, 1898ko ekainaren 2an...

“El Ayuntamiento de la villa de Zumaya, haciéndose eco de las aspiraciones generales de sus administrados, especialmente de aquellos que

67. G.A.O. JD ITF 1550/451. Benetan onuragarritzat jotzen dira ganadu lehiaketak dokumentu honetan. Zergatik? “Las exposiciones son un estímulo muy grande, porque despiertan en el labrador, de suyo rutinario y poco dado á novedades, deseo de progresar, con el fin de obtener para si las utilidades que obtienen otros, por la introduccion de nuevas razas de animales y por la mejora en los cultivos y en particular de los pastos.

No es aventurado suponer, que si el labrador guipuzcoano sigue la marcha iniciada, desde que VE. tuvo el buen acuerdo de establecer la casa modelo de experimentación (Fraisoro), importando del extranjero los reproductores para perfeccionar especialmente la raza vacuna y la de cerda, fijando las paradas convenientemente y como complemento necesario los premios en los concursos anuales, se creará antes de mucho tiempo en Guipuzcoa, un mercado que habrá de recoger una buena parte, de los fondos que los importadores de vacas lecheras dejan en el extranjero, obteniendo de este modo la recompensa de tantos sacrificios hechos por VE. en favor de sus administrados”.

viven dedicados á las labores agrícolas, ha acordado con unanimidad dirigirse respetuosamente a V.E. en súplica de que se sirva modificar la resolución que adoptó en sesión de 29 de abril último, al disponer que se suspendieran los concursos de agricultura y ganadería y las fiestas euskaras que en el mes de Julio próximo habían de celebrarse en la vecina villa de Cestona, bajo los auspicios de V.E.

Los motivos que indugeron (sic) a V.E. a la adopción de ese acuerdo, no pueden ser más nobles y dignos de respeto.


Las conflictivas circunstancias que atraviesa nuestra Madre Patria con ocasión de la guerra que sostiene con los Estados Unidos, no son realmente las más apropiadas para fiestas y regocijos públicos. Pero es de advertir, Excelentísimo Señor, que con la celebración de los concursos que V.E. patrocina, más que de promover animadas fiestas, se trata de fomentar la riqueza pecuaria de Guipúzcoa, estimulando al agricultor y al ganadero á la adopción de mejoras y al abandono de la rutina, en cuanto esta tiene de perjudicial. Y suspender con carácter más ó menos indefinido, concursos que conducen á un aumento de riqueza y suponen un beneficio no escaso para los intereses agrícolas de Guipúzcoa es, no obstante lo generoso de los móviles en que V.E. se instruyó para la adopción de ese acuerdo, ocasionado á desanimar á los labradores que, fiados en anteriores resoluciones de V.E., aspiraban á obtener en el anunciado concurso de Cestona, el premio debido á sus bien encaminados afanes”.

Ondorengoa proposatzen dute Zumaiatik (besteak beste, 1900. urtean euskal festak Zumaian ospatzekoak zirelako eta haiek txandarik galdu nahi ez zutelako):

“Supriman en hora buena cuanto no sea esencial al concurso de agricultura y ganadería y todas aquellas fiestas y regocijos que en otras circunstancias sirven de ornamento, pero que ahora entrarían en pugna con las tristezas nacionales, que en el alma guipuzcoana encuentran siempre riguroso eco. Pero omitiendo todo eso superfluo, bien se puede, en sentir de esta Corporación, disponer que dentro de este mismo año, y en la época que V.E. tenga á bien señalar, se verifiquen en Cestona los mencionados concursos, con lo cual evitará que esta villa de Zumaya a la cual compete (sic) la celebración de esas fiestas en el año de 1900, pierda el turno de aquel año, y tenga que aguardar al siguiente”.

Zumaiako herritarrez gain ordea, Aizarnazabal (ekainaren 8an), Azkoitia (ekainaren 7an, 19 pertonek sinatua), Azpeitia (ekainaren 7an, berrogei pertsonen sinadurekin), eta Zestoakoak ere beren kexak azaldu zituzten (erabilitako arrazonamendua zumaiarrenaren antzekoa zenez, ez dugu berriro azaldu)⁶⁸. Sinadurarik gehien jasotzen duen eskaera, zestoarena da. Hona hemen sinatzaile nor izan genituen: Benigno Gonzalez, Juan Ignacio Tellería, Felix Murguiondo, Timoteo C. Zubiria, Agapito Elósegui, Blas Alcorta, Jose Manuel Cestona, Cruz Alcorta, Jose María Querejeta, Pedro Parodi, Martin Eizaguirre, Vicente Ibarguren, José Leon Zabaleta, José Miguel Azpillaga,

68. Eskaera hauek ere G.A.O. JD ITF 1550/451.



Zestoako herritarren sinadurak Zestoan euskal festak ospa zitezen eskatuz

Adolfo Zuazo, José M^a Olazabal, Eulogio Zuazo, Simon Lizaso, Juan José Iru-retagoyena, Juan Benito Zubimendi, Valentín Cortadi, José María Goitia, Miguel Olazabal, Manuel O. Zarate, José María Iriondo, Juan M^a Macazaga, José Gil de Aguirre, José Manuel Mugica, Tomás Lizaso, José Ignacio Lizaso, Antonio Eguiguren, José Gaspar de Eguiburu, Marcelino Aizpuru, eta abar..(ehun sinadura inguru, bai. Batzutan, ez norberak egina, “Al ruego del firmante por no saber escribir...”) (ikus 1. eranskina).

Pentsa noraino ez zen onartu euskal festak suspenditzea, ezen 1898ko maiatzaren 2ko *La Voz de Guipúzcoa*n egunkari hartako irakurle batek ondorengo proposamena egiten baitu:

“Con motivo de la resolución adoptada por la Diputación respecto del concurso de agricultura y ganadería que había de celebrarse en Cestona, y que tan perjudicial resulta para cuantos trataban de tomar parte en dicho acto y muy particularmente á los criadores de reses vacunas y de cerda, asestando, al propio tiempo, rudo golpe á los nacientes entusiasmos, un amigo nuestro residente en un importante pueblo de la provincia nos escribe exponiéndonos una idea que nos parece muy razonable, y en tal concepto vamos á exponerla.

Los premios otorgados en el Concurso agrícola, propiamente dicho, de Oyarzun, importaron 4.095 pesetas; pues bien, limítense á los ganados vacunos, lanar y de cerda; más á los quesos, mantequillas y sidra, cuyos premios en el citado concurso importaron 2.820 pesetas, y ¿no podría suceder que hubiera en la provincia algún pueblo que se atreviese á cargarse con este gasto? Por ejemplo, alguno de los que celebran los festejos por San Pedro, que pudiera muy bien amalgamar uno y otros, abarcando el día 2 de Julio y terminando el día 3 que es domingo?”

Kexa haiek ikusirik, Aldundiak uztailaren lehendabizikoan erabaki zuen “egiñ dedilla Zestua-n nekazaritza eta ganaduen bilkida, eliza-festa utsakiñ, asiera emanik datorren Agorraren 11-n”⁶⁹. Erabaki horren berri eskaerak aurkeztu zituzten guztiei eman zitzaien. Literatur eta musika lehiaketetara beren lanak bidali zituztenei aurkeztutako lanak berreskura zitzaketela esaten zitzaizen (abuztuaren 1.go eguna baino lehen). Gainerakoan *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu egingo zituzten horrela merezi zutenak.

Itz-jostaldien Batzarreak ere, zenbait zestoarrekin batera, literatur lehiaketa ospatu beharra agertu zioten Aldundiari:

“Los que suscriben, vecinos de la Villa de Cestona...entienden los firmantes que el acuerdo de la Exma. Diputación de no costear fiestas profanas en atención a las tristes circunstancias porque atraviesa el país, no puede hacerse extensivo al anunciado certamen Literario Musical que persigue mas altos fines que el de una distracción o pasatiempo. Y por lo tan-

69. *Euskalzale, 1898ko garagarriaren 21an*. Datu hau dokumentazio ofizialean ere aurki dezakegu baina kasu honetan aldizkari hau erabili dugu informazio iturri erabakiak publiko egiteak zein garrantzi zuen ikus dezazuen.

to suplican a V. se sirva disponer que el Consistorio de Juegos Florales Euskaros que tan dignamente preside, célebre el certamen en Cestona al mismo tiempo que el concurso agrícola” (Zestoan, 1898ko uztailaren 26an) (hamabost sinadurekin) (ikus 2. eranskina).

Honela irakur dezakegu *Euskal-Erria* aldizkarian⁷⁰:

“Diputazio chit goituak, ill onen 24-ean izantako billaldian, erabaki du baimena ematea Zestuako urkondear batzuen eskaerari, zeñari lagundu dion Donostiako Euskal-itz jostaldien Batzarreak.

Egingo dira, bada, izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzak, eta bere denboran agertuko degu nolakoak izan diran.

Ala berean, erabaki du Probinziako Batzar Nagusiak, datorren Agorren 17 eta 18 garren egunetara atzeratzea, 10 eta 11-rako otsaunditua zegoen Nekazaritza eta Ganaduen billaldi eta sari emaldiya”.

Ospatu, beraz, hasieran pentsatu bezala ospatu ziren Zestoako euskal festak, antolatzaile eta helburuak anitzak bazituzten ere, festa bakarrak zirelako.

Ondorengo lerroetan euskal festa hauen prestakuntza nolakoa izan zen agertzen saiatuko gara. Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea idazle, musikari eta bertsolarien lehiaketak antolatzeaz arduratzen zen, *Euskal-Erria* aldizkarian ikus dezakegun bezala (*Euskal-Erria*, XXXVIII. alea (1898) 272-274. orrialdeak). Aurreko ataletan (1.4.2. atala, estatutuak) agertutakoari eutsi egiten zion Eskal-itz-jostaldien Batzarreak jai hauen helburuari dagokionez:

“Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarreak, gure euskara eder, itzkribu eta musika jatorriztik ditugunak alegiñ guztian gorde eta zabaltzeko egiñ-pideari beti leyal, argitaratzen du, Gipuzkoako Diputazio chit goituaren erabakiari jarraiturik, eta bere baimenarekiñ, aurtengo udan Zestua-n egiñ bear diran euskal-fésten azaldea, prestaturik ontarako ondoren agertzen diran indar-neurtz eta jostagudak”.

Zeintzuk ziren lehiaketaren atalak? Zeintzuk sariak? Egokien programa edo “azaldea” garai hartan argitara eman zen bezala zuei agertzea iruditzen zaigu. Horra, bada, oraingoan ere *Euskal Erria* iturri dugula Euskal-itz-jostaldien Batzarreak egindako deialdia⁷¹:

70. XXXIX. alea, 190. orrialdea.

71. *Ibidem*. Zestoako euskal-festen egitaraua (literatur eta musika lehiaketari zegokiona) beste zenbait aldizkari eta egunkarietan ere aurki dezakegu: *Euskalzalzen* (1898-IV-21an) adibidez.

AZALDEA.
IZKRIBATZALLÉEN INDAR-NEURTZEA

Euskal-izkuntza jakindeak zabaltzen sayatzen diran izkribatzalleai, lanbide onragarri onetan aurrera ere jarraitzeko limurkarizat, emango zaizkate ondorengo sari oek:

1.ko EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA edo diploma, euskarazko itz-larri eta Gipuzkoako izkeran lanik onena aurkezten duenari, agerturik gure Fueroen Batzar edo Junta orogarrien sustrai eta kondaira eta ayetan izaten ziran festena.

2.garren LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, euskarazko itz-larri eta edozein probintziko izkeran egintako lanik onenari, adierazten dirala, garbiro, Zestua-ko gloriya kondairarrak eta bertako seme argido rtarren (sic) doayak.

3. garren LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, edozein neurri eta euskal-izkera motan jarritako itz-neurtu edo berso moldaera ederrenaren egilleari, nekazariyen bizimodua kantatzen duela.

ALDEERA. *Berrogei ta amar pezeta eta bitezarra.*

4.garren. LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, Gipuzkoako euskal-izkeran, Zestua-ko ur sendagarrien kondaira agertzen duela, izkribatutako liburuchorik onenari.

5. garren EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, Aizarnako Santa Engrazia ermitaren kondaira, itz-larri ta Gipuzkoako euskal-izkeran, obeto egiten duenari.

6.garren. EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, jostiruditar moldaerik onena, itz-neurtu edo larrietan eta Gipuzkoako euskal-izkeran egiten duenari, gaya izan litekela ala negargarri nola pozgarri motakoa.

ALDEERA. *Berrogei ta amar pezeta eta bitezarra.*

7. garren. DIBUJATZEKO KAJACHO EDO GIS ONTAKO BESTE SARI BATZUEK, ordu laurden batean euskaraz ongiyena irakurri eta izkribatzen duten neska eta mutillentzat.

MUSIKALARIEN INDAR-NEURTZEA

1.ko LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, lau gizonek batean kantatzeko moldaerarik onenari, jatorrizko euskaltasun eta besteren antzikeza dituela.

2. garren IRUROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, danboliñ-banda osorako egokiena antolatua aurkezten dan zortzikorik onenari. Banda osoak izan bear ditu bi chistu-danboliñ, chistu-lodi bat eta atabala.

3.garren. IRUROGEI PEZETAKO SARI BAT, zortziko ori ongiyena jotzen duen danboliñ-banda osoari.

BERSOLARIEN JOLASBIDEA

Egingo da Euskal-erriko bersolarien bilkida eta jostaguda bat, emanik LAROGEI PEZETA, erdira, bi onenai, au da *berrogei pezeta* bakoitzari".

Oinarri hauei, Donostiako Itz-jostaldien Batzarreak zenbait ohar gehitzen dizkie lehiaketan parte hartzeko asmoa dutenei zuzendua:

“OARKERAK

1. ko Indar-neurtze oetarako aukeratzen diran lan guziak bialduak izan bear dute korrioaren bidez paper bilgo ziertotu edo zertifikatueta, zuzende onekiñ: SEÑOR SECRETARIO DEL CONSISTORIO DE JUEGOS FLORALES EUSKAROS.- SAN SEBASTIAN.

2. garren. Lan guziak bialdu bear dira indar-neurtze ontarako, esan dan eran, datorren Garagarrillaren 1. ko egunerako.

3. garren. Lan bakoitzak ekarriko du barrenen paper-bilgo ichi bat, ipi-ñirik bertan izkibatzailearen izen eta izengaña edo lonbrea, non bizi dan agertzen duela.

4. garren. Moldaera guziak esamiñatuko ditu uskal-itz-jostaldien Batzarreak eta sarituak izaten diran izkirazkoetatik batzuek moldizkiratuko dira osto banaketan, beren egilleai ogeina emanik.

5. garren Sarituak izaten diran izkirazko moldaera guziak ipiñiko dira Batzarrearen urteoroko Oroimengarrian, jostirudirakoaz kanpora, batzuek emanik beren egilleai, Diputazio chit goitu eta beste batzarreai bezela.

6. garren Batzarrearen goarpelariak irakurriko ditu moldaeren erabakida eta egintzari dagokion jolas-aldi bat.

7. garren Irakurriko dira sarituak izaten diran izkribuetatik ortarako luziegi ez diranak.

8. garren Emango zaizkate sari, bitezar eta osto moldizkiratuak, oek jasotzera aurkezten diran egilleai.

Donostian, 1898-ko Marchoaren 16-ean. Batzarrearen izenean, Alfredo Laffitte (Dianagusia) eta Antonio Arzac (Goarpelaria).”

Zer esan dezakegu orain arte ikusitakoaz? Hasteko, argi geratzen dela literatur eta musika jaialdiak Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrearen eskuetan geratzen zirela (aurrerago ganadu lehiaketa Aldundiko sail konkretu batekoen esku geratzen zela ikusiko dugun bezala).

Hiru atal zituen festak, hiru lehiaketa mota: idazleentzako bata (garrantzitsuena: zazpi sailetan banatzen baitziren opariak, zenbaitetan akzesitak ere ematen zituztelarik, eta dirutan ere kopururik altuenak hemen ematen baitziren, orotara 640 pezeta), musikarientzakoak bestea (hiru sailetan banatua, 200 pezetako saria orotara), eta bertsolarien arteko lehia azkenik (80 pezetako sariarekin, bi bertsolarien artean banatzeko).

Zein ezaugarri zituen idazleen lehiaketak? Hasteko, bai gaia baita forma ere zehazturik agertzen dira. Zein eratako gaiak eskatzen dituzte? Historia oinarri dutenak batez ere: Foruei buruzko lana eskatzen da, Zestoaren historiari buruzkoa, Zestoako ur sendagarrien historiari buruzkoa, Aizarnako Santa Engraziko ermitaren historiari buruzkoa... Horei eguneroko bizimodua gogoan duten lanentzako sariak ere gehitzen zaizkie: nekazarien bizimoduari buruz aritzeko eskatzen zaie idazleei. Jostiruditar modaerari dagokionez (antzerkia) ez da gai-rik zehazten: tragedia edo komedia izan daitekeela agertzen da. Zergatik gai historikoekiko lotura hau? Iragana ahaztu beldur direlako, eta ez dutelako lehenean oinarritzen ez den gerorik ulertzen, ez behintzat euskaldun izaten jarraituaz.

Zer esan formari buruz? Prosa, poesia eta antzerkia. Hiru formak aurki ditzakegu. Prosa saiakera itxurako gaiei dagokionez, eta poesia nekazarien bizi-

tzari buruz idazterako garaian. Antzerkiari ere tokitxo bat egiten zaio (aurrera-go ikusiko dugun bezala, Donostiako Itz-jostaldien Batzarrea izango da euskal-festetan antzerkiari tokia egingo dion bakarrenetakoa). Eta euskalkiei buruz? Bereizketarik egiten al da? Bai. Itz-larri edo prosaz idatzitako lanetan gipuzkeraz idatzitako lanak eskatzen dira gehienbat (Gipuzkera bultzatu nahiaz? Gipuzkoar idazleen sustatzea bultzatu nahirik?). Edozein euskalkitan Zestoako historiari buruz edo “nekazariyen” bizimoduari buruz aritu ahal izango da.

Zer esan musikarien arteko lehiaketaz? Kantuz eta instrumentuen bitartez sortutako musika saritzen dela. Abestien izaera, gaia, eta instrumentuak ere euskal tradizioari lotuak behar dute izan (danbolina, txistua, eta abar).

Lehiakideei egiten zaizkien oharrak, arruntak dira. Dena den, aipa ditzakegu zenbait aspektu. Adibidez, lehenengoan, idazlanak nora bidali behar diren adierazten zaigunean, helbidea gaztelaniaz emana dator (euskara ez baitzen gehienetan administrazioko langileek ulertzen zuten hizkuntza). Garrantzitsua da, lehiaketa hauetan saritua izateak lana argitaratzeko aukera ematen zuela adieraztea, baita idazlana jendaurrean irakurria izaten zela esatea ere.

Zer dakigu ganadu lehiaketaz? Zein ataletaz osatzen zen? Zeintzuk ziren bertan parte hartzeko bete beharreko baldintzak?

Orain arte esandakoa baietsiz, Gipuzkoako Aldundiak “alegiñ guztiyan Nekazarilan eta Ganaduen onari laguntzeko” antolatu asmo zituen ganadu lehiaketak⁷². Egitarauarekin batera emango ziren sariak ere aipatzen ziren:

GANADU MOTA	1. saria	2. saria	3.saria	besterik
Zezen, zekor, idiskoa (1-3 urte bitartekoa) = sari bat bertako arraza garbikoari.	300 pta ⁷³ .	250	200	100,75
Behi edo biga (1-5 urte bitartekoa)= sari bat bertako arraza garbikoari.	250	200	150	125,75
Apotera edo ordotsak (sei hilabete, urtebete bitartekoa)	150	100	80	50
Zerriemea (sei hilabete, urtebete bitartekoa)	100	80	50	25
Zaldi edo zaldiñoa (1-5 urte bitartekoa)	150	100	75	
Behor edo behor gaztea (1-5 urte bitartekoa)	100	85	75	65
Aharia (1-5 urte bitartekoa)	80	70	60	
Ardia (1-5 urte)	70	60	40	

72. *Euskal-Erria*, XXXIX. alea, 1898, urtea.

73. Kasu guztietan pezetetaz hitzegiten ari gara. Horregatik, hemendik aurrera ez dugu pta. errepikatuko.

GANADU MOTA	1. saria	2. saria	3.saria	bestarik
Arraza bakoitzeko bi oilo eta oilar bat (6-18 hilabete bitartekoak)	60	50	30	20
Antzarra: saria irabazteko bi eme eta ar bat behar dira (6-18 hilabete bitartekoa)	60	50	30	20
Ahatea (bi eme eta ar bat) (6-18 hilabete bitartekoa)	50	30	20	10
Uso pareta (1-5 urte bitartekoa)	50	30	20	
Erlauntzak	80	40	20	
Astoa (1-5 urte bitartekoa)	80	70	60	
Astaemea (1-5 urte bitartekoa)	70	60	50	
Sagardoa	70	60	50	40
Gazta	50	40	30	20
Gurina	40	30	20	
Untxiak (bi eme eta ar bat)	50	30		
Nekazal tresna (kontuan hartuko da zerez egina dagoen, zertarako, eta iraunkorra den)	70	50	30	

Ikusi ahal izan duzuen bezala, mota guztietako abereak aurkez zitezkeen lehiaketara. Abereez gain zenbait nekazal produkturen kalitatea ere neurtzen zen, nekazal tresnei ere toki txiki bat egiten zaielarrik. Sarien zenbatekoak abereen garrantziari erreferentzia egiteaz gain (zer ematen duenari, zein etekin atera diezaikegunari oso loturik), berau mantentzeko beharrezkoak diren lan eta gaiei oso loturik ere badaude.

Fernando Colmenares diputatua izendatu zuten ganadu lehiaketako epaimahai buru. Honek proposatuko ditu epaimahaia osatuko duten gainerako kideak: Salustiano Olazabal, Cándido Mendizabal, Antonio Borda eta Matias Arteaga.

Zestoako nekazaritza eta ganaduen lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzak ere irakur ditzakegu *Euskal-Erria* aldizkarian⁷⁴. Horietan, Zestoakoa lehiaketa dela eta ez feria azpimarratzen da: hori da oinarrietan agertzen diren ganadu mota eta produktuak besterik ez onartzearen arrazoia. Epaimahaiko kideek esango diete ganaduzaleei beren abereak non jarri. Horientzako bazka, ganaduzaleen kontura izango da eta ez antolatzaileenera.

74. *Euskal-Erria*, XXXIX. alea (1898) 156-159. or.

Ba al da ganadu lehiaketan irabazitako sariari uko egiterik? Bai, eta oinari en arabera “emango zayo bitezar edo diploma bat, zeñean agertuko dan irabazi duen sariya eta nola borondatez uzten duen tokatzen zayon dirua; eta au, lenbiziko sari bati dagokiona baldiñ bada, aren izena ipiñiko da “Fraisoron” jarriko dan laurka edo kuadro onragarri batian, azaldurik lantegi eche ontako lagun ongillea dala”⁷⁵.

Badu Aldundiak orain arte aztertutako legeetan ikusi ahal izan dugunez, lehiaketa honetan bisitariak animaliak ikusteko aukera izan dezaten kontu berezia:

“10.garren. Billaldiyan sartutako ganadu eta egaztiyak, eziñ beren jabiak kendu edo ezkutatuko dituzte jendiak ikusteko orduetan, baldiñ eri jartzen ezpadira.

11.garren. Diputazio chit goituak lendabizi erosten ezpaditu, salgai izango dira, beren jabiak ala nai badute, ganadu eta gañerako gauzak; baña, saldurik ere, beren jabe berriyak eziñ eramango dituzte billaldiya bukatu arteraño.

12.garren. Billaldiyak irauten duen orduetan, larunbat Agorraren 10ean, goizeko zortzietatik amabiyetara eta arratsaldeko ordubiyetatik iruetara, jendiak ikusi litzake ganadu eta beste gauza guztiyak; baña, iruetatik bostetara bitarteko azken orduak, Juezentzat bakarrik gelditzen dira”.

Epaimahaiari buruz ere badu albisterik *Euskal-Erria* aldizkariak⁷⁶.

Euskal festen prestakuntzari buruzko zenbait alderdi ikusi ditugu: Arzac-en ahaleginak, erakunde bakoitzak dagokion festa nola antolatzen duen... Baina zein zen Zestoako Udalak festa horietan betetzen zuen papera? Nola prestatzen zituen euskal festak? Beste gauza batzuen artean, tokia, lekuak, txukunduz, baita lagungarri ziren beste zenbait ekitaldi (dantza, musika, eta abar) antolatuz ere. Ikus 1898ko apirilaren 10ean ospatutako bileran Zestoako Udalak zein akordio hitzeman zituen⁷⁷:

“A propuesta del Sr. Presidente y en atención á las fiestas eúscaras y concursos de agricultura y ganadería que han de celebrarse en esta villa el próximo mes de Julio, se tomaron los acuerdos siguientes:

Primero: Que se proceda inmediatamente al blanqueo general del interior y exterior de la casa Consistorial, se manden los remiendos que se han necesarios tanto en el ramo de albañilería como de carpintería: que se arregle el balcón de la Casa Consistorial, en la forma que permita su estado, retirando las losas anteriores y colocando nuevo enlosado: que se ejecuten también las obras necesarias en el salón de sesiones pintando el techo, las cornisas y los asientos del mismo y renovando las inscripciones de varios pueblos que llevan los asientos.

75. *Ibidem*, 157. or.

76. *Euskal-Erria*, XXXIX. alea (1898). 158. orria.

77. Z.U.A. Udalbatzaren akta liburua. 1894-1900. 131atze-132aurre orrialdeak.

Segundo: que se limpie cuidadosamente la calzada de la calle de Santa Cruz desde la casa de Aristondo hasta la esquina de la de Illarraga y desde la de Acharangua hasta el espolón de la Cruz, recojiendo (sic) la briza (sic) que se halla amontonada y sacándola fuera de la población en carros, para proceder desde luego á su reparación en el primer punto y en el segundo á la construcción de la nueva calzada, aprovechando la piedra de la misma, haciendo que desaparezcan también los montones de escombros depositados entre la casa de Illarraga y la de Apategui y entre esta y la sacristía de la Iglesia”.

1898ko uztailaren 17an berriz, ondorengoaren berri ematen da⁷⁸:

“Acto continuo se dio cuenta de la comunicación que dirige la Comisión Provincial con fecha 11 del actual trasladando el acuerdo de la Excma. Diputación provincial, por lo cual se dispone que el domingo 11 de Septiembre próximo se celebre en esta villa, el concurso agrícola, con todo la función religiosa, comprendiéndose en esta la Salve de la víspera, la Misa solemne con sermón y la Procesión á la que se llevarán además de las efigies de la Purísima Concepción y San Ignacio el estandarte de la Provincia que con aquellas imágenes se hacía en la Iglesia parroquial de Azpeitia; en cuya vista se tomaron los acuerdos siguientes:

Primero: Que se llame al Maestro de danzaris de Andoain D. José Ansa para que se presente en esta y proceda á preparar á los niños que han de ejecutar los bailes del país durante las fiestas que tendrán lugar con motivo del concurso de agricultura.

Segundo: Que se encarguen con oportunidad las correspondientes secciones de fuegos artificiales, toros de fuego, cohetes y demás trabajos pirotécnicos.

Tercero: Que se contraten la Banda de música y los tamborileros necesarios para que acompañados de los del pueblo puedan amenizar dichas fiestas y

Cuarto: Encargar a la fábrica de muebles de Orio dos tableros para anuncios oficiales en el exterior de la Casa Consistorial y con los remates y (?) de relieve ó tallados iguales á la estantería de la Secretaria”.

1898ko abuztuaren 7an, etxeak txukuntzea proposatzen die udalak herri-kideei⁷⁹:

“Asimismo y con motivo de las próximas fiestas éuskaras y concursos de agricultura y ganadería se acordó pasar aviso domiciliario a todos los vecinos del casco de esta población invitándoles a que blanqueen por fuera las fachadas de sus respectivas casas, facilitándoles lechada necesaria que soliciten”.

1898ko abuztuaren 28an⁸⁰:

“Se dio cuenta y quedó enterado el Ayuntamiento de una comunicación del Sr. Delegado de la Diputación acordando trasladar a “los días 17 y 18

78. Z.U.A. Udalbatzaren akta liburua. 1894-1900. 138atze-139aurre orrialdeak.

79. Ibídem, 142. orria-aurrea.

80. Ibídem, 143. or. atzekaldea.

del próximo septiembre la celebración del concurso de agricultura y ganadería, anunciado para los días 10 y 11 del expresado mes”.

Baina festak prestatzeaz gain, iragarri egin behar izaten dira, horietara ahal bezainbat jende ingura dadin. Nola iragarri ordea? Batetik, pertsona ospetsuak banan bana gonbidatu ziren. Gasteizko diozesiko gotzaina⁸¹, aldundiko diputatuak (Nicolás Guerendiain, Jesús M^a Echeverría, José Joaquín de Egaña, Ignacio Echaide, José M^a Aizpiri, Juan Bautista Ichaso-Asu, José de Elósegui y Zavala, José de Iturbe, Eusebio Aranguren, Tadeo Zavala-Anchietia, Esteban de Garmendia) baita Joaquín Pavía, Alfredo Laffitte, eta abar ere. Izen handiko pertsonaiak ere gonbidatu ziren: Ramón María de Lili, Benito Gorostegui, Francisco Zavala y Villar, Rocaverdeco markesa, Mandaseko dukea, Carmelo Echegaray, Gobernadore zibila, eta abar. Baina horietaz gain, herri xehea ere gonbidatua zen Zestoako euskal festetara. Nola? Aldizkari, egunkari, eta abarretan egitarauaren berri emanaz; inguruko herrietako alkateei programa bidali eta bandoan irakur zezaten eskatuz; zenbait tokitan (Norteko tren estazioa eta Zarauzkoan barne) euskal jai hauei buruzko kartelak ipiniz, eta abar.

3.3. Euskal festen egitaraua

Zein ekitaldi eman ziren Zestoako euskal festetan? Zenbat egunetan, eguneko zein ordutan ziren ekitaldiok?

Nahiz eta hasiera batean Zestoako euskal festetan literatur lehiaketa, ganadu lehiaketa eta meza eta prozesioa egingo zirelako ustea izan, aurreko atalean ikusi dugunez, egitaraua bera kolokan izan zelako, aldatuz joan zelako, argitaratuta, egitarau bat baino gehiago aurkituko dugu.

Hasiera batean –orain gutxi 2.2. puntu hasieran ikusi dugun bezala– Zestoako euskal festek onartu berri zen arautegi berrira egokitu beharra zuten. Beraz, hiru egunetako iraupena izango zuten, igandetik astelehenera bitartekoa, uztailean ospatuko ziren, eta abar (ikus 2.2. puntua).

Zestoako euskal festek, ordea, ez zuten aipatu arautegia hitzez hitz bete. Zergatik? Ez ospatzeko zorian izan zirelako. Protestak zirela eta, ordea, ganadu eta meza (prozesioarekin) ospatzea erabaki zen. Argitaratuta aurkitu dugun lehenengo egitarauak ganadu lehiaketak eta ospakizun erlijiosoak besterik ez ditu kontuan. Agorraren 10 eta 11an (irailaren 10 eta 11an) ospatzekoak ziren ekitaldiok. Ikus dezagun zehaztasun handiagoz egitarauak zioena⁸²:

81. Lan ugari zuela eta Zestoako euskal jaietara ezin joango zela erantzun zuen eskutitz bidez. G.A.O. JD ITF 1550/451.

82. Euskal-Erria, XXIX. alea, (1898). 154-155. orrialdeak.

“NEKAZARITZA ETA GANDUEN BILLALDIYA ZESTUA-N⁸³.

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO CHIT GOITUAK BERE KONTURA EGIÑAK

Gipuzkoako Diputazio chit goituaren erabakiyari dagokiyola, alegiñ guz-tian Nekazarilan eta Ganduen onari laguntzeko, izango dira Zestua-n, datorren Agorrean, ondoren agertzen diran billaldi eta eliz-egintzak:

AGORRAREN 10-ean

Goizeko zortzietatik amabiyetara.- Billalდიan sartu nai duten ganadu, egazti eta lur-frutuaren artutzea.

Arratsaldeko ordubiyetik bostetara.- Billaldirako artuak izan diran ganadu, egazti eta lur-frutuaren banakatze eta esamiña Juezakgatik.

Ilunabarrean.- Ama Birjiñaren Jayotzako elizan Salbea musika-talde osoarekiñ.

AGORRAREN 11-an

Goizeko amarretan.- Meza nagusia musika oso ederrarekiñ, sermoya euskaraz duela Zumayako izpa Karmeliten Ikastetcheko apaiz-kapillau On Domingo Agirre gipuzkoar iztun famatuak.

Arratsaldeko labetan.- Agertuko dira sariyak irabazitako ganadu, egazti eta lur-frutu guztiyak, jabeak zein dituzten deyez azaldu eta berai emanaz ondoren ikusten diran sari oek:...”(ikus 2.2. atala).

Euskalzale aldizkariaren portada


83. Ohar zaitzete, hemen jadanik, ez direla “euskal-festa” hitzak erabiltzen.

1898, IRAILA-REN 15.^{MA}

EUSKALZALE

EDERGARRIDUN ALBISTARIA

IRAKURKIZUNAK: I. Euskal festak Zestuan (g).—II. Ipulak (g).—III. Bi aingura (g).—IV. Baita da beñko (b).—V. Euskal-erriko kanta bat (b).—VI. Otsoa eta sigota (g).—VII. Euskaldun-erdialdeko (g).—VIII. Pedro ogitza (b).—IX. Irkiriaria (b).—X. Vascotik Euskalazte (b).



Arantzarri ko Eskartegiaren aitean Hilboko *Arantzarri* aiteen-agurra eristen guzian Amari (1897-ko Agortzilaren 1-an.)

Euskal festak Zestuan

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarreak, gure euslera eder, idribu eta musika jatorritik ditugonak alegiñ guztian gorde eta zabaltzeko egit-pideari beti leial, Gipuzkoako Diputazio tiit goituaren erabakiari jarraiturik, eta bere baimenarekiñ, agertu zuen aur-tengo Zestuan ospatu bear diran Euskal-jaietako azal-dea, eta Batzarreak erabakirik eskribatzale eta musi-kalarien indar-oeurtzeak, ona emen sariak irabazi dituztunen izenak:

Lenengo sari 100 pesetakoa Emeterio Arrese jaun Tolosakuntzari, bere moldaera «Nekazarien biaino-dua» deritzatizagatik.

Bigarrena 50 pesetakoa, Biktorian Iraola-rentzat.

Gai berean irabazi da 50 pesetako aldeera Jose Gamboa-k.

Josturidi edo *Amendi* iskribatzaileen artean irabazi diturte bi aldeera; bat 50 eta bestea 40 pesetakoa Elias Gorostidi eta Jose Artobik.

Egitarau hori izan al zen beraz bete zena? Ez. Literatur eta musika lehiaketak ospa zitezen egindako protestaldiak, euskal jaiak atzeratu (agor edo irailaren 17, 18 eta 19ra) egin zituzten, baita luzatu ere (egun bat gehituz).

Egitarauak hiru atal nagusi zituen, hiru zati garrantzitsu, gainerako ekitaldiekiko ardatz gisa jokatzeko zutenak, egun bakoitzeko bana: ganadu lehiaketa, prozesio eta meza, eta literatur lehiaketa.

3.4. Euskal festen kronika

Euskal festen kronika *Euskal-Erria*⁸⁴ aldizkariaren jarraipena eginaz eza-gutuko dugu. Dena den *La Unión Vascongadan* ere kontsultatu ahal izan dugu (irailaren 16, 17, 19, 20 eta 21ean)⁸⁵ baita 1898ko irailaren 29ko *Euskalza-le* aldizkaria ere.

Irailaren 17an, goizean goiz hasi omen ziren baserritarrak beren ganadu eta hegaztiak Zestoako San Joan ermita ingurura biltzen. Jendea ugari bildu omen zen (“La concurrencia y animación eran ya extraordinarias para antes de las diez, haciéndose difícil el tránsito por los varios departamentos en que se hallaban los ejemplares y productos agrícolas presentados” *Euskal Erria* XXXIX, (1898) 257. orrialdea). Izen-ematea eguerdiko hamabietan bukatu zen. Animaliak erretiratu eta ordu bietarako ekarri behar izan zituzten berriro. Ordu bietan hasi eta bostak aldera arte epaimahaia izan zen animaliak ikusi, begiratu eta aztertu zituena⁸⁶.

Ganadu lehiaketari buruz horra zer dioskun *La Unión Vascongadak*⁸⁷:

“Constituido el jurado que ha de calificar, dio comienzo esta mañana á la admisión de reses, reuniéndose en conjunto una notable exposición, que supera en número y calidad á las celebradas también bajo los auspicios de nuestra Diputación el año pasado en Oyarzun y el anterior en Mondragón.

La parte mejor presentada y que más ha llamado la atención por los hermosos ejemplares que acudieron á este concurso, ha sido la sección destinada á toros, que, efectivamente, y tanto del país, como de raza sui-


84. *Euskal-Erria*, XXXIX. alea, (1898). (257-267. orrialdeak).

85. *La Voz de Guipúzcoa* aztertzeko nahia ere bagenuen baina ez dugu 1898ko iraileko egunkaririk aurkitu (urteen poderioz galdua da, ez da mikrofilmaturik, eta abar guganaino iritsi).

86. Ganaduak aurrera, ganaduak atzera... Zestoa jendetan. Bandoa prestatu zuen Arzac jaunak. Zestoako pregonariak ohikoa baina lan handiagoa izan zuen, horregatik eskatzen zuen ohikoa baino soldata handiagoa! “Patricio Murua natural de esta Villa a V.I. con el mayor respeto y subordinación expone: Que habiendo echado un bando en tres puntos donde se hizo el reconocimiento del ganado, dejando mi cuenta en manos de V.I.

Gracia que el exponente no duda alcanzar del bondadoso corazón de V.I. cuya vida guarde el cielo dilatados años para bien de sus subordinados. Cestona, 19 de Septiembre de 1898. El pregonero, Patricio Murua.

87. *La Unión Vascongada*, 1898-IX-19an.



Ganadu feria Zestean

za, holandesa y cruzados, tenía una colección que bien puede calificarse de excelente.

A juicio de los inteligentes, la que más dificultades tiene para que aparezca con lucida representación, es la de vacas, por presentarse en este capítulo al problema entre el trabajo y la utilidad que pueda obtenerse de estos animales. Dicen los caseros, que los que conservan este ganado en las inmediaciones de San Sebastián y demás poblaciones de importancia de esta provincia, pueden muy bien dedicarlo, con el beneficio de la leche, al engorde y mejoramiento de raza, mientras que los que se encuentran á distancia, y no obtienen utilidad de aquel producto alimenticio, le someten al trabajo, tan rudo en las montañas de esta provincia, que perjudica la tendencia que con los más nobles fines se propone alcanzar en estos concursos.

De todos modos, y á pesar de no haberse presentado ejemplares de explotaciones particulares instaladas en las inmediaciones de Igueldo y de Ayete, y en un delicioso valle de esta provincia, donde se alza un monasterio dedicado á un varón ilustre, de la Diputación (Fraisoro), puede calificarse dentro de las circunstancias que arriba dejo apuntadas, de buena la colección del ganado vacuno.

En el de cerda ha habido clases de York de libras, y en esta región también de peso decayendo el caballar, etc., que fuera de algunas excepciones, no ha reunido más que unos cuantos caballejos y borriquillos de mala muerte; en cuanto a conejos, patos, gansos, gallos, y demás aves se han presentado buenos números de razas del país de Bragama Hoodor.

Resumiendo: ha mejorado la exposición: el beneficio que con estos concursos ha de obtener Guipúzcoa no es nada dudoso..."

Arratsaldeko hiruak aldera Zumarragako musika banda Zestoara iritsi zen, don Joaquín Castañeda buru zuela. Arratseko zazpiak aldera, berriz, Aldundiko kideak iritsi ziren (Lizariturry, Moco-roa, Echeverría, Balbás, Laffitte, Pavía, Ituarte, Guerendiain eta Ichaso-Asu). Haiekin batera mikeleteen buru zen Logendio jauna ere etorri zen, eta Aldundiko idazkari zen Zubeldia jauna ere bai. Kanpai-bueltak, etxeferoak... alaitasun handiz egin zion harrera Zestoak, eta Zestoako Udaleko kideek espreski, Aldundiari. Arzac jauna ere bertan genuen ordurako. Hosto eta landarez egíndako ongietorri arkuak ere prestatu zuten Zestoan: “Zestua-k Diputazio chit goitu Batzar eta kanpotar guziaz ongi etorriya”. “Gernikako arbola” doinua lagun zutela, udaletxerako bidea hartu zuten. Elizarako bidea egin zuten gero, bertan Salbea errezatu zutelarik (kasu honetan, abestua izan zen, Ignacio Fernandez konpositorea zuzendari zutela, herriko kantari eta inguruko herrietakoak ere lagun zituztela). Aldundiko kideek Zestoako bainuetxean igaro zuten gaua.

Irailaren 18an, igandea, musika nagusi zen Zestoako kaleetan. Goizeko zazpietarako hasia zen jendea atzera eta aurrera, Zumarragako banda eta Zestoako danbolin-joleen aireetara. Bederatzi eta erdietan, Aldundiko kideak Udaletxera iritsi ziren. Hamarretan puntuan, elizarako bidea hartu zuten. Prozesio ederra osatu omen zuten:

“Esta, que resultó solemnísima y se llevó á cabo según la usanza foral, salió precedida de cinco cofradías, con dos banderas y tres estandartes, recorriendo la calle que circunda la plaza y entrando nuevamente en la Iglesia con todo el acompañamiento, que presidía el señor Lizariturry, quien llevaba á su derecha al Alcalde de la villa don Juan Echaide, y á su izquierda al vicepresidente de la Comisión provincial Sr. Moco-roa, cerrando la marcha los ordenanzas y alguaciles.

El hermoso estandarte de San Ignacio era conducido por el diputado Sr. Guerendiain, llevando las borlas los señores Colmenares y Laffitte.

Las efigies de San Ignacio y Nuestra Señora eran llevadas en andas y escoltadas por una sección de miqueletes” (Euskal Erria, XXXIX. alea, (1898), 258-259. orrialdeak).

Meza Zestoako bikario zen On Benigno Gonzalezek eman zuen, meza-laguntzen Arroa eta Aizarnako erretoreak izan ziren. Sermoigile, On Domingo Agirre izan genuen⁸⁸. Zer izan zen pulpitutik honek esandakoa? Horren berri zehatzago izan nahi duenak *Euskal Erria* aldizkaria kontsulta dezake (XXXIX.

88. Domingo Agirre Aldundiak gonbidatu zuen Zestoan sermoilari izatera. Horra zer erantzun zuen: “He recibido con gratitud la atenta comunicación que VE. se ha servido remitirme, transfiriéndome un acuerdo del 21 de Abril último, fecha en que esa Excm. Corporación se sirvió confiarme el honrosísimo encargo de ocupar la sagrada cátedra en la función religiosa del concurso agrícola que se ha de celebrar en Cestona; y tengo la satisfacción de anunciar á V.E. que, aceptando con verdadero reconocimiento a la santa y distinguida ocupación con que me favorece, procuraré en ella cumplir con mi deber del modo que me permitan mis escasísimas fuerzas. Dios guarde á V.E. muchos años. Zumaya, 24 de julio de 1898. Domingo de Aguirre”. G.A.O. JD ITF 1550/451.

alea, 1898. urtea, 285-308. orrialdeak)⁸⁹. Orokorrean, Domingo edo Txomin Agirrek euskaldunak aldatzen ari direla sumatzen du. Aldaketa hori, “modernizatzea” deitu ahal dioguna, ez zuen atsegin. Bere oinarrizko ideietako bat lehenaldia idealizatu eta berau berreskuratu beharraren garrantzia azpimarratzea izango da. Horrela, sermoiaren hasieran, honela dio:

“Begi argi, kementsu, distiratzalle batzuek nai nituzke, nere begiradaren almenarekiñ gizaldi luzarokoen lanbro, itzal, laño, illuntasun ta estalki beltz lausotiak desegiñik, illargi gozoaren errañuz argitua bezela, nere asaba zar bedeinkagarrien bizitza on, irme ta zintzoa ikusteko; animako doe bizi, azkar ta ernaiaren jabe nai nuke izan, nere irudimenaren indarrez antziñetako euskal-guraso guztiak lurpetik atera, ta eren gorputz eder, jazkera egoki, oitura on, izkuntz garbi, erri zaletasun ta leñargizko biotz samur Jaungoikozkoarekiñ emen zuen aurrean denak jartzeko; bada orrela eleiza onetan batu zeraten euskaldun benetako guztiok ikustekorik eder ta erakusgarrienekoa gaur goizean ikusiko zenduteke, ta ikastekorik asko ikasi ere bai, zergatik lenagoko gertaerak, jakintsu batek dionez, etorkizunaren atarian ipiñi bear genduzkean argizuzi batzuek bezela dirade” (285-286. or.).

Ondorengo pasarteetan ere euskalduna nola idealizatzen duen ikus dezakegu, baita aldi berean, euskaldun jatorra baserritarrarekin identifikatu ere:

“...Denok dakizute nola dauden gure baserriak, uri edo erri batzuetatik kanpora, churi ta garbi, egokitasun ta era ederrean zabaldurik, batzuek mendi gallurretan, beste batzuek zelaiaren erdian, errekondoan bat edo beste, denak lanerako soro ta alorrek inguruan dauzkatela ta zugaztirenbat aldamenen. Euskal-eche oietan bizi dirade gaurko euskaldunik euskaldunenak, bada erri batzuetan erdakeri asko sartu da; ta eche oietatik dakarki eleizara Jaungoikoaren legea bete naiak, bide luzean, jaiero-jaiero, errekondoetatik gora, mendi gallurretatik bera ta zelaietatik zear, naiz euri naiz ateri dala, edurtzetan bezela eguzki bero galdatan; beti zuri, garbi ta chukun; beti irme, sendo, galant ta osasuntsuak (295. or.).

“... gure mendi-gizonak eztira beñere ogi edo artoaren gosean egoten, ta berberak aitortzen dute beren bizitza on, dontsu ta ezin obee...”

...Bai, or bizi zerate zuek, Aitorren seme zintzoak, mendietako aize osasuntsuen erdian, or bizi zerate paketsu, iñoren ondamu gabe, Jaungoikoaren icharopenean, ta be aldeko urietan dauden siñiste gabeko gizonchoak beñere ezagutu eztuen zoriontsunarekiñ” (296. or.)

89. Domingo Agirrerren sermoiei buruz mintzo zaigu VILLASANTE, Luis: “Domingo Agirre-ren eliz-itzaldiak”. In: *Aranzazu*. (1966) iraila-urria. 17-40. orriak. Artikulu honetan, beste gauza batzuen artean, Luis Villasantek Domingo Agirrek bere sermoi gehienetan gipuzkera eta hizkera ulergarria erabiltzen zituela esaten digu. Urola bailaran ibili omen zen batez ere sermoilari (Aizarna, Aizarnazabal, Zestoa, Azpeitia, Urrestilla, zumaia, Asteasu, Beasain, Zarautz...etab bezalako herrietan). Sermoi guztiak irakaspede bat ardatz hartuta egituratzen omen zituen. Agirrerren sermoietan lau atal bereiz omen zitezkeen: exordia (tratatu beharreko gaiaren aurkezpena), gaia ongi tratatzeko laguntza eskaria Agur Maria errezatuaz, sermoiaren gorputza (ez luzeegia) eta azkena.

Euskaldunak historian zehar garbi nola mantendu diren frogatu nahi izango du (Anibalen garaian, barbaroak Espainian sartu zireneko hartan, franko eta godoen denboretan...). Hori dena zertarako? *Vascoiberismo* deritzan teoriaren defendatzaile agertzeko, eta euskaldunena Jainkoak aukeratutako herri gisa agertzeko (“Orregatik, jaunak, pozez beterik gelditu naiz kondaira zarrak irakurtzean, orregatik alaitu naiz, a! beti bat izan dan nere erri iberotarra eun-kida ta gizaldi guztietan gurutzearen senarekiñ ikusi detalako, gaur gurutzearekiñ dagoan bezala”).

Euskaldunena aukeratutako herria bada ere, kontuz ibili beharra du. Zorionaren bila saiatu behar du: baina ez hemen lurrean, Zeruko zorionaren bila baizik : “Ori da, n. jaun ta a.m., zeruko zorion betikoa, ta zorion ori lortu naian saiatu bear degu gizonok lurbira onetan bizi geraden arte guztian” (291. or). Zeruan zoriona, bai, baina bitartean nola eutsi? “Orregatik, erbeste onetan, gure zoriontasun guztia Jaungoikoa maitatzean dago, Bere onegite dontsuak ezagutzean, Bere mendean gogoz jartzean, Berari poz ematen saiatzean, Aitar-en eskuetatik zorion betikoa icharotean” (293. or.).

Sermoi hau oso gustokoa izan zuten bertan zirenek. Pentsa zenbateraino, ezen gaztelaniara itzuli eta inprimatzeko saiakerak ere egin baitziren⁹⁰.

Meza honetarako musika Toribio Eleizgaray apaizak, Azpeitian organista zenak, konposatua zen⁹¹.

Meza ondorenean, prozesioan parte hartutako agintariak-eta Zestoako bainuetxera joan ziren bazkaldera. Bazkalondoan, zenbait diskurtso izan ziren (Lizariturry, Pavia eta Arzac jaunek hitz egin zuten) euskal jai haien garrantziaz aritu zirelarik beste zenbait gairen artean (lan honetan zehar irakurri ahal izan ditugu diskurtso horietako zenbait zati).

Arratsalde partean, ganadu lehiaketako sariak banatu ziren. Nortzuk hartu zuten parte lehiaketa honetan? Nortzuk izan ziren sarituak? Horren berri ere *Euskal-Erria* aldizkarian izan dezakegu⁹². (ikus 3. eranskina)

90. G.A.O. JD ITF 1550/451.

91. “Toribio Eleizgaray... a V.E. (diputazioari zuzentzen zaio) humildemente expone: que deseando poner por su parte quanto posible le sea para dar el mayor esplendor posible á las fiestas Euskaras que en la vecina villa de Cestona han de celebrarse durante el corriente año, fiestas que con tan buen acuerdo ha organizado V.E.puesto que en gran manera han de contribuir á qué el alma vascongada, tan digna de protección, por sus especiales é inmejorables condiciones, se perpetúe, ha compuesto una Misa sobre motivos de la Marcha de San Ignacio, que desea dedicar á esa exma. corporación y que se ejecutará en la función solemne con que esa ilustre corporacion inaugura las fiestas” (1898ko ekainaren 7an”. G.A.O. JD ITF 1550/451.

92. *Euskal-Erria* aldizkaria, XXIX. alea, (1898), 314-317. orrialdeak. Guk hemen eskaintzen dizuegun informazioa handik laburtua da. Gipuzkoako Boletin ofizialean ere argitaratu zen (37. zenbakia, 1898 irailaren 23an).

Mereziko luke, agian, hemen aurkeztutako emaitzen azterketa sakonagoa egiteak. Aurreko urteetako lehiaketekin konparatuz zein berrikuntza eman ziren, animaliak aurkezten zituztenak nongotarrak genituen, irabazleak nondik zetozen, eta abar. Beste batetarako utziko dugu hori.

Sari ematearen ondoren dantzari txikiek emanaldia eskaini zuten, *La Unión Vascongada*k Zestoara bidalitako berriemaileak, dantzari txikien dantzei buruz ere hitz egiten digu⁹³:

“Llamaron extraordinariamente la atención los bailes del país de los “danzari-chikis”.

El público bascongado en su totalidad presenció emocionado las evoluciones y saltos de los pequeños bailarines. Aquella danza tan varonil, era una evocación de los tiempos pasados, era una manifestación de la virilidad de este privilegiado pueblo.

Al escuchar los acordes del tamboril y ver las piruetas de los microscópicos danzantes, no podía uno menos de recordar con asco, con verdadero asco, el *agarrao* y demás bailes de la degradada chulapería”.

Gauetz, su artifizialak izan ziren, bandaren eta danbolinjoleen musika emanaldiarekin batera.

Irailaren 19an, astelehena, dianak eman zion jaiari hasiera. Goizeko bederatzi eta erdiak aldera, emakumeek lasterketa egin zuten burugainean urez betetako erradak zituztela. Zestoako plazan hiru aldiz egin zuten joan-etorria. Debako Maria Urangak irabazi zuen lehen saria, Maria Arocenak bigarrena eta Juana Elorzak hirugarrena.

Goizeko hamarrak aldera, haurren lehiaketa ospatu zen; euskaraz irakurri eta idazteko trebetasunak neurtu ziren han. Felix Zabaleta, Juan Jose Ugarte, Petra Diaz eta Francisca Telleria nagusitu ziren.

Hamaiketan, Udaletxeko Areto Nagusian, Donostiako Itz-



Zestoako euskal festen oroimengarriaren portada, Itz-jostaldien Batzarreak argitaratua


93. *La Unión Vascongada*, 1898ko irailaren 20an.

jostaldien Batzarreak antolatutako literatur festa ospatu zen. Arzac jaunak, akta irakurri zuen lehenengo. Horra⁹⁴:

“Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Zestua-ra, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa izan dan, aurtan, izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiarekiñ esamiñatu ondorean aurkeztu diran moldaera guziak, zeñen agiria egiten dan urteoroko Oroimengairriyan, irabazi dituzte sariyak, izkribatzalleen artean: On Emeterio Arrese, On Biktoriano Iraola eta On Franzisko Lopez Alén-ek, *Nekazariyen bizimodua*, *Nekazariya eta Gipuzkoa-ko Lege zarrak eta oen Batzarreak* izendatzen diranagatik. Irabazi dituzte aldeerak On José Ganboa, On Elías Gorostidi eta On José Artola-k, *Nekazaritza*, *Ariyo nere diruba eta Legorreko arrantzalia* izentzat dituztenengatik.

Musikalarien artean *sariyak* irabazi dituzte: On Kleto Zabala, On Migel Oñate eta On Kándido Buenechea-k. Lenbiziko biyak *Laurak-Bat* eta *Iziar* azalkaitzat dauzkaten Euskal-kanta moldaeragatik, eta irugarrenak *Buru-*



Literatur lehiaketako irabazleen izenak biltzen dituen batzar-agiria

94. *Euskal-Erria*, XXXIX. alea, (1898) 268. orrialdea. Euskalzalek ere ematen digu honen berri (1898-irailaren 15ean).

tasun bat izendatzen dan zortzikoagatik. Irabazi dituzte *aipamen onragariyak* On Ildefonso Lizariturri eta On Migel Oñatek-k, *Euskal-Féstak* eta *Eztilargi*-ren izenakiñ aurkeztutako zortzikoagatik.

Bukatzerakoan, Batzarreak donkitzen die oroitz bat, Euskal-erriaren alde ainbeste lan egiñ ondoren, urte bete ontan ill diran On Luis María Eleizalde eta On Migel Antonio Iñarra jaunai.

Zestua-n, 1898-ko Agorraren 18-an.”

Zer esan dezakegu beraz Donostiako Itz-jostaldien Batzarreak antolatutako lehiaketaz? Espero zuten bezala gertatu al ziren gauzak? Ikus dezagun. Idazleen lehiaketari dagokionez, zenbait sari eman gabe geratu ziren (ez al zen inor aurkeztu haietara, edo ez zuten agian behar adinako mailarik ematen?). Zestoako historiaren berri, Zestoako ur sendagarrien berri, Santa Engraziko ermitari buruzko lanik... ez dugu ezagutzen. Dena den, arrakasta gehien izan zuen gaia, dudarik ez da, nekazarien bizimoduari zegokiona da. Elias Gorostidi eta Jose Artolak komediek irabazi zuten beren saria. Haurren artean egindako irakur eta idazketa lehiaketak ere onespena izan zuela dirudi.



Francisco López Alen

Irabazle suertatu ziren zenbaiten idazlanak guganaino iritsi dira⁹⁵. Merezi du, gure ustetan, hauen berri, zuk irakurle, izatea (bere osotasunean liburuaren atzekaldean aurkituko dituzu) (ikus 4. eranskina).

Franzisko López Alenek⁹⁶ *Gipuzkoako lege-zarrak eta oen batzarreak* lana aurkeztu zuen. Zer da lan honetan eskaintzen diguna? Bi zati ditu aurkeztutako lanak, izenburuan bertan ikus dezakegunez. Lehendabiziko atalean Gipuzkoako Batzarren historia egiten saiatzen da Franzisko López Alén horretarako garaiko eta aurreko autoreek (zenbaitetan historialariek) egindako lanak kontuan hartuta. Batzarren sorreratik hasi (betidaniko bezala jotzen ditu

95. Argitaratutako Oroimengarrian baina baita *Euskalzale* aldizkarian ere.

96. Donostian jaio zen 1866ko urtarrilaren 9an. Idazle eta margolaria genuen. José López Aizpururen, udal liburutegiko arduradun izanaren seme zen. Bere aitagandik kargua jaso zuen, eta bera ere udal liburutegiko arduradun izan genuen. Ugari idatzitako gizona dugu: Okendoren biografia (1894), San Telmori buruzko lana, euskal festen ingurukoak, eta abar. Euskal-Erria aldizkariaren zuzendari ere izan zen 1904. urtean. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Donostia, Auñamendi. 352-353. or.

ia) eta 1692rainoko (Gipuzkoako lege bilduma argitaratu zen urte hartan) Batzarrei buruzko zenbait berri ematen du. Egitura kronologikoa ematen dio lanari. Ondoren, lanaren bigarren atalean, Batzar Nagusien bilere buruz mintzo zaigu: non ospatzen ziren, norke parte hartzen zuten (hemen “igualitarismo vasco” delakoaren usaina hartzen diogu: “...baña jauregie-tako echeko-jaun dotorienak baserriko nekazaritar nausien parean. Batzarre ayetan ez zan ez aundi ez chikirik; danak bat, danak anayak, danak gutarrak, guziak euskaldunak”), bilerek zein iraupen zuten, eta abar. Aldundiak oroitu eta zabaldu nahi zuten giroa zen López Alenek hemen deskribatzen zuena.



Emeterio Arrese

Argitaratuta ditugun gainerako lanek, nekazarien bizimoduaren berri ematen digute baina kasu honetan bertsoz.

Emeterio Arresek⁹⁷ *Nekazariyen bizimodua* lana aurkeztu zuen. Hainbat zati bereiz ditzakegu lan honetan, estrofen neurri desberdinek, zati horiek bereizten laguntzen digute gainera. Lehenengo bi estrofa luzeen bitartez, sarrera osatzen du Emeteriok: bertan hiritar eta nekazarien arteko desberdintasunak aurkezten ditu, argiro nekazarien aldeko jarrera agertuz. Baserritarrek Jaungoikoa eta lana dituzte ardatz. Honela lortzen dituzte “lasaitasuna, gozakiroa, atsedena eta irria” (15. or.). Baserritarrak jartzen ditu Arresek euskaldun jatortzat/ jatorrizkotzat (horra binomioa!): “¿Nork ez du senti erra-yetatik biziro chit on andia oroiturikan ez dala galdu euskaldunen jatorria...?” (16. or.)

Ondoren, sei lerroko estrofen bitartez, nekazarien bizimoduaren berri ematen digu, goizetik gauerainoko ekintzen berri ematen digu. Otoitza, lana, familia eta naturak toki berezia dute nekazarien bizitzan.

97. Emeterio Arrese, idazle tolosarra genuen, 1869an jaioa. Ameriketara asko ibilia genuen, pelota jokua zabaldu asmoz, frontoien eraikuntza bultzatuz. Pello Mari Otaño ezagutu eta euskerarekiko grina piztu zitzaion berari ere. Lan desberdinen egile izan genuen: *Aiton baten eriotza* (1898) bakarhizketa, *Sentierak* opera, *Zara* opera, *Nere bidetan* (1913), eta *Olerki-Berritze*(1928), beste batzuen artean. In: *Enciclopedia General ilustrada del País Vasco*. Donostia, 1970. 588. or.



Victoriano Iraola

Amaitzeko, 10 lerroko estrofe-tan, hiritar eta nekazarien arteko erkaketara joko du berriro ere Emeteriok. Nekazarien bizimoduaren aldeko apustua egingo du Arresek.

Victoriano Iraolaren⁹⁸ *Nekazariya*, berriz, hiru ataletan banatzen den hamar bertso-lerroz osatutako 20 estrofadun lana dugu. Hiru ataletan banatzen du egileak lana. Lehenengo atalean, nekazarien bizimodu zailari buruz zaigu mintzo, baita nekazariak berezkoak dituzten dohainez ere: langile izatea, umiltasuna, fededun izatea... Oraingo honetan ere fedea, familia eta lana ageri zaizkigu oinarri gisa. Bigarren atalean, nekazariak naturaganako bizi duten dependentzia baina aldi berean miresmena aipatzen dizkigu Victorianok, eta nekazarien egunerokotasunaren berri ematen digu.

Amaitzeko, bi bertsoetan nekazariak nahiz eta munduan bizimodu gogorra izan, ondorenean saria izango duela (hiritarrak ez bezala) adierazten digu.

José Ganboak⁹⁹ bere *Nekazaritza* lanean egitura argia erakusten digu. Sarrerako estrofan nekazarien lanaren gogortasunaz aritzen zaigu. Ondoren, 20 bertso-lerrotako lau estrofeetan urtaroen araberako egitura jarraituz, nekazarien bizimoduaren berri ematen digu (egiturak berak, nekazaria naturarekiko zein loturik dagoen aditzera ematen digularik). Udaberrian jorra, udan goldea, udazkenean belarra biltzea, neguan etxera biltzea eta ganaduari jaten otea ematea... Amaitzeko, azken estrofan nekazaria beren ohikotasunetik zein ekintzek ateratzen duten azaltzen digu: feriak, erromeriak, mezak... Baina nekazariak

98. Pasai Donibanen jaio zen 1841. urtean. *Revista Euskara de Navarra, Euskal-Erria, Euskal esnalea, Baserritarra...* aldizkarietan parte hartu zuen. Askotan izan zen lorejokuetan saritua. Erraz idazten zuen idazlea genuen, txantxa eta maitasun gaiak atsegin zituen. Komeri, zarzuela, eta abar ere idatzi zituen. 1919. urtean hil zen Donostian.

99. 1896an jaio eta 1914an hil zen. *Euskal-Erria* aldizkarian lankide izan genuen. Hemen dakusgun bezala 1898ko Zestuako lorekojuetan saria irabazi zuen, bai eta 1899ko Zumarragako euskal jaietan ere. Badugu bere zenbait lanen berri: "Aitona... Aitona"; "Txardiñak" (1903); "Krispiña ta Krispin"; "Mikelatxo" bakarhizketa (1915)... In: *Enciclopedia General Ilustrada. Diccionario Enciclopédico*. XV. alea. Donostia, 1983.

“kaleko gauza ikusgarriyak
denboraz utzitzen ditu,
ostera echian sartu artian
kezkarik eziñ banatu,
baserri umill arlotetsuban
pakian naidu bizitu” (32. or).

Musika lehiaketari dagokionez, eskainitako aukera eta sariek musikala-rien onespena izan zutela dirudi.

Literatur lehiaketako sari emateei buruz esan, *La Unión Vascongada* egun-
kariko korresponsalaren hitzetan saritutako zenbait lan jendaurrean irakurriak
izan zirela¹⁰⁰:

“Mas tarde se han leído en el salón de las Casas Consistoriales las
composiciones premiadas en el certamen euskaro.

D. Domingo de Aguirre ha dado lectura á la de D. Emeterio Arrese, D.
Juan I. Uranga a la de D. Victoriano Iraola, y D. Antonio Arzác, á la de D.
José Gamboa”.

Eguerdian, Angelusarekin batera, denak zutitu eta errezoa egin zuten erre-
toreak zuzendurik. Ondorenean, gazteen artean lasterketak egin ziren herriko
plazan. Javier Sudupe azkoitiarra, eta Manuel Aizpuruk lortu zituzten lehe-
nengo sariak eta bigarrenak aldiz, Simon Lizaso eta Jose María Alberdik.

Ondoren, danbolin-joleen lehiaketa ospatu zen. Zumarraga, Errenteri eta
aretxabaletatarrak aurkeztu ziren. Bina pieza jo zituzten: lehiaketan irabazle
suertatu zen zortzikoa eta beraiek aukeratua bigarrena. Lehendabiziko saria
Zumarragako taldeak irabazi zuen, bigarrena errenteriarrek eta hirugarrena
Aretxabaletakoek.

Arratsaldez, dantzari txikiek berriro ere beren emanaldia eskaini zuten.
Arratsaldeko zazpitan bertsolarien arteko desafioa ospatu zen:

“y a las siete y sobre el tablado que había ocupado los bailarines se
llevó á efecto, bajo la presidencia de la Diputación, Párroco, Alcalde é indi-
viduos del Consistorio de Juegos florales, el hermoso desafío de los ber-
solaris, que dirigidos por el popular D. José Zapirain hicieron las delicias del
público, siendo escuchados en religioso silencio, interrumpido a veces por
tempestades de aplausos. Sobresalieron el veterano Pello-Errota, de Aste-
asu, y el inspirado Chirrita, de Rentería, resultando también premiados Ole-
gario, de Hernani, y Arregui, de Urnieta” (*Euskal-Erria*, XXXIX. alea, (1898)
267. or.).

Irrintzilarien lehiaketa etorri zen gero. Honi buruz ere esaten digu gauza
kuriatorik Bonifaciok¹⁰¹, *La Unión Vascongada* egunkariko korresponsalak:

100. *La Unión Vascongada*, 1898ko irailaren 20an.

101. *La Unión Vascongada*, 1898ko irailaren 21ean.

“Poco después se verificó la lucha de los “irrintzilaris”.

Llamó la atención un joven de Azpeitia; pero quien hizo disfrutar al público fue un anciano conocido en estos contornos por el nombre de “El mayorazgo de Arrona”, el cual, rejuvenecido por completo, se lanzó a dar el grito de nuestras montañas, su voz no era todo lo limpia que fuera de desear, pero de todos modos la aparición del viejo en el tablado fue una prueba de la virilidad de la raza vasca, cuyos individuos, por mucha edad que tengan, conservan la energía y salud de los hijos de Aitor.”

Lehiaketa honetan sarituak izan ziren José Egaña azkoitiarra, Juan José Cendoya azpeitiarra, José María Lizarralde azkoitiarra eta Esteban Lazcano, Arroakoa (azken hau izango da Bonifaciok aipatua!).

Lasturko dulzaina-jole bat ere aurkeztu zen eta baita saria irabazi ere.

Gauetz,

“el *zezen-suzko*, que por primera vez se quemaba en la plaza de Cestona, los fuegos artificiales, la iluminación y las hogueras en las cumbres de los montes de Erchina, Etorra y Balzola resultaron de un efecto sorprendente y toda esta última parte fué amenizada por los armoniosos acordes de la banda municipal de Zumarraga y el tamboril, continuando la animación hasta las once de la noche, con lo que tuvieron fin tan memorables fiestas” (*Euskal-Erria*, XXXIX. alea, (1898), 267. or.

Su artifizial eta suzko zezenei buruz berriz *La Unión Vascongada*...

“Esnaola, el popular pirotécnico donostiarra, se lució con su bonita colección de fuegos artificiales; el *zezen-suzko* nos transportó en espíritu á la plaza de la Constitución de San Sebastián, a los plenos dominios de Marcelino Soroa, el cantor de las “koskas””.

3.5. Euskal festen balantzea

Jende ugari hartu zuen parte euskal festetan. Entzun *La Unión Vascongada*ko kazetariak, Bonifaciok, zer esaten digun:

“Desde las primeras horas de esta mañana se ha notado gran afluencia de forasteros en las calles de Cestona” (1898-IX-20an, irailaren 18ko festari buruz).

“A las cuatro de la tarde se procedió a la distribución de premios á los ganados. Un gentío inmenso ocupaba la plaza, hasta tal punto que no encontrando sitio, pude subir a la torre de la Iglesia, gracias á la amabilidad de la sacristana, á la que doy un expresivo voto de gracias desde estas columnas” (1898-IX-20an, irailaren 18ko festari buruz).

“Como es natural á esa hora todo el mundo se retiró á comer, unos á sus casas, otros á las fondas, ó á cualquier lado donde hubiera algún refrigerio, pues tal ha sido el gentío que ha invadido Cestona los días pasados que era muy difícil encontrar sitio para satisfacer el estómago con cierta comodidad” (1898-IX-21ean, irailaren 19ko festari buruz).

Euskal-Erria aldizkaria ere iritzi honetakoa dugu¹⁰²:

“La concurrencia á ellas ha sido grande, hasta el punto de haberse agotado por completo las subsistencias el domingo al medio día, viéndose en la necesidad de traer pan del inmediato pueblo de Aizarna; y -lo que sucede siempre en nuestra tierra,- á pesar de la gran aglomeración de gente y animación verdaderamente extraordinaria, se han deslizado los tres días consecutivos de fiestas sin registrarse riña alguna ni el menor incidente desagradable”.

Jende ugarik hartu zuen parte eta ez zen ezer apartekorik gertatu: ez istilurik eta gainontzekorik. Ezbehar txiki bat gertatzeko puntu-puntu izan zen baina, festak aurrera egin zuen eragozpen handiegirik gabe¹⁰³.

“El orden ha sido completo, y así tenía que serlo para que estas fiestas tuvieran carácter de euskaras, porque las diversiones del pueblo bascongado y las reyertas y altercados son cosas que no pueden verse unidas.

Antes de dar comienzo el baile de los niños pudo haber ocurrido una desgracia; varios individuos, en el afán de colocarse en buen sitio para ver el espectáculo, tomaron por asalto el tendido, y en su precipitación, derribaron uno de los palos sostenedores de las ruedas de los fuegos artificiales.

Por fortuna, no hubo que registrar ningún lamentable accidente, pues eran muchas las personas que en aquel momento ocupaban la plaza, y muy fácil hubiera sido que el tablón cayese sobre algunos”.

Zeintzuk izan ziren euskal festek eragin zituzten gastuak? Zestoako Udaleko artxiboak zenbait datu ematen dizkigu festen balantze ekonomikoari buruz (Udalak jarri beharreko diru kopuruari buruz).

Prestaketa lanek ondorengo gastuak sortarazi zituzten¹⁰⁴:

- Udaletxeko sarrera edo ataria eta Udaletxe barne alde txukuntzea, 850 pezeta.
- Santa Cruz kalea garbitzea, beste zenbait txoko ere txukuntzea (“conducción de los escombros depositados entre la casa de Illarraga y la de Apategui), 300 pezeta.
- Orotariko gastu gisa, 1.000 pezeta.
- Udaletxea zuritu, atontzeagatik, 1.024 pezeta.
- Ohiko festak eta euskal festak sortarazitako gastuei aurre egiteko (“Para gastos de las funciones y festejos de la Patrona de Cestona, Aizarna y

102. *Euskal-Erria*, XXXIX. alea, (1898), 267. or.

103. *La Unión Vascongada*, 1898ko irailaren 21ean.

104. Z.U.A. Sail. C., Neg.1., Lib.1. 1895-1900: Presupuestos de gastos e ingresos para los años económicos de 1894-1895 hasta 1899-1900.

Arrona y los de Santiago, ánimas ofrendas y extipendios de sermones según costumbre, así como para los que se han de originar con motivo de las fiestas euskaras y concursos de agricultura y ganadería que se han de celebrar en esta villa en julio próximo...): 3.000 pezeta.

Bada ordea, zehatzago den dokumentua, euskal festek sortutako gastuak banan bana aztertzen dituen¹⁰⁵. Ikus dezagun zein informazio eskaintzen digun:

Gastua zertan	Pezeta	Zentimo
Pagadas al Director de la Banda de música por sus servicios según recibo nº 1. (joan etorria, estantzia, soldata)	1.351	
Idem al maestro de danzaris José Ansa, recibo nº 2 (estantzia eta soldata)	461	
Idem a Faustino Usain por los servicios prestados con su silbote, recibo nº3	31	
Idem a Gregorio Larralde, por los de tambor, recib. nº4	26	50
Idem á D ^a Josefa Antonia Muguerza por telas y demás efectos para trajes de bailarines, recibo nº5 (hemendik aurrera ez dugu errezibo zenbakia adieraziko, jarraikako zenbakia dutelako)	153	
Idem a Vidaurre hermanos y Comp. ^a por Shurá color para el mismo fin	52	50
Pagadas a D. José Ramon Elorza por telas y efectos facilitados	72	
Idem al mismo por tela para cubrir el tablado por los cuatro lados (35 metrotako bandera espainiarra zen hau!)	42	
Idem a D ^a . Josefa Mendizabal por hechura de trajes de niños para bailar	45	
Idem a D. José Ramón Elorza por faroles y velas de ? para la iluminación	28	20
Idem a D. Simon Lizano por el material del baile de niños y construcción del tablado (makil txikiak, makil handiak, arku txikiak, arku handiak, zintatarako zuhaitza)	128	85
Retenidas por premios a varios	135	

105. Z.U.A. Sail. C, Neg. 2., Lib. 20.

Gastua zertan	Pezeta	Zentimo
Pagadas a D ^a . Ignacia Antonia Zubimendi por la ocupación de un local	10	
Pagadas a José Manuel Odriozola por importe de 30 pares de abarcas	64	18
Id. al Secretario del Ayuntamiento para repartir como gratificación á los quince niños de la comparsa de danzari-chiquis	187	50
Id. á José Manuel Cestona por gratificación del servicio prestado como tamborilero	50	
Id. a D. Francisco Larrañaga por un rótulo para un arco de entrada	12	50
Id. a D. Simon Lizaso por preparación de fogatas y otros servicios prestados durante las fiestas euskaras	70	
Id. á D. Benito Eguiguren por estancia y manutención de bersolaris	70	
OROTARA	2.990	23

Gastu horietaz gain emandako sariak ere izan behar ditugu kontuan:

*Korrikalariei:

1 ^o Javier Sudupe. Azkoitia	10 pezeta.
1 ^o Manuel Aizpurua. Azpeitia	10 pezeta.
2 ^o Simon Lizaso. Zestoa	5 pezeta.
2 ^o Jose María Alberdi. Zestoa	5 pezeta.

*Emakumezko korrikalariei:

1 ^o Maria Uranga. Deba	15 pezeta.
2 ^o Maria Arocena. Azpeitia	10 pezeta.
3 ^o Juana Elorza. Id.	5 pezeta.

*Bertsolariei:

Joan-etorria eta bost bertsolariei soldata (7 pezetana)	35 pezeta.
--	------------

*Irrintzilariei:

1 ^o José Egaña. Azpeitia	10 pezeta.
2 ^o Juan José Cendoya. Azpeitia	8 pezeta.
3 ^o José M ^a Lizarralde. Azkoitia	7 pezeta.
4 ^o Esteban Lazcano. Arrona	5 pezeta.

*Dultzaineroari:


Nicolas Albizu. Lastur	10 pezeta.
------------------------	------------

OROTARA (sari eta laguntza hauena) 135 pezeta.

Beraz, Udalak, guztira, 6.300 pezeta inguruko gastuari egin behar izan zion aurre (bai kale, eraikuntza eta abar txukunduz, bai festetarako ekitaldi, eta zenbait sari, eta abar prestatuz).

Zestoako euskal jaiak amaitutakoan, haien arduradun izan zen Antonio Arzác-ek memoria aurkeztu zion Diputazioari¹⁰⁶. Memoria horretako zein aspektu aipa ditzakegu? Memorian euskal festen prestakuntza nola izan zen mintzo zaigu Antonio (nola suspenditu ziren, eta abar). Festa haiek nola iragarri ziren ere esaten digu: inguruko herrietako alkateei festen egitaraua bidali zien Antonio Arzác-ek, baita ganadu lehiaketari zegokion arau bilduma ere, eta haiek zabal zitzaten eskatu zien. 3.000 iragarki inprimatu omen ziren eta 200 kartel elebidun (Norteko trenaren eta Zarauzko estazioan jarri ziren haue-tako batzuk). Iragarki haiek ez ziren soilik Zestoa inguruan banatu: Gipuzkoan nekazal munduarekiko interesa zuten pertsonengana ere iritserazi zen.

Antonio Arzác-ek Diputazioari aurkeztutako memoriaren amaieran, aurre-rantzean kontuan hartu beharreko zenbait aspektu izendatzen ditu:



Aldundiak ganadu lehiaketa laburbilduz argitaratutako memoria

106. G.A.O. JD ITF 1538/377.

“1ª Todas las contrariedades sufridas han venido á demostrar el deseo del país de que no se suspenda la celebración de los concursos, con tanto acierto instituidos por V.E., lo cual, si se tiene en cuenta que sólo se han celebrado tres, prueba hasta qué punto se consideran útiles y puede confiarse en el éxito que les reserva el porvenir.

2ª Es general la opinión de que, en lo sucesivo, debieran celebrarse los concursos como se ha hecho el de éste año, por Septiembre, en vez de hacerlo en los primeros días de Julio.

Es verdad que V.E., velando siempre preferentemente por los máspreciados intereses de nuestra nobilísima tierra, acordó conforme á la tradición foral, que se celebraran en la segunda de las épocas indicadas; pero no es menos cierto, Excmo. Sr., que el recuerdo de lo que constituyó la honra y felicidad de nuestros padres es para nosotros imborrable y palpitante siempre, no siendo preciso que se conmemore en un día determinado, si el hacerlo así trae algún perjuicio al pobre labrador: y de boca de muchísimos de éstos, de todos á quienes he preguntado, he oído que vendría mejor á sus intereses la celebración de los concursos por Septiembre, teniendo en cuenta las inaplazables faenas agrícolas de principios de Julio, como la siega del trigo; la dificultad de traer en dicha época á la exposición los frutos del campo; y lo mucho que, á causa del calor, sufre por entonces el ganado. Todo lo cual, aparte de hallarse demostrado por la experiencia en los concursos de Mondragón y Oyarzun y en el relativamente más ventajoso de Cestona, aparece también en las atinadas observaciones que, á raíz del primero de aquello, fueron expuestas á V.E. por la ilustrada Comisión especial de agricultura y ganadería, y que obran en el expediente de su razón, á las cuales sólo añadiré que si se tratase de una feria y el objeto fuese premiar al mayor número de ejemplares cabdos (?), sería más á propósito la fecha de principios de Julio, por la abundancia de pastos propia de ésta época; pero, siendo el fin primordial de éstos concursos el mejoramiento de las razas, entiendo que no debe prevalecer aquella circunstancia.

...Lo que creo debiera adoptarse sin vacilación en cualquiera de los dos casos, es que el ingreso y admisión del ganado y productos agrícolas, examen y clasificación de los mismos se haga en sábado; y el domingo la solemne distribución de premios con presentación de los ejemplares premiados, como se ha hecho este año, lo que resulta ventajoso, tanto por los menores gastos y molestias para los expositores cuanto por la mayor comodidad del público, principalmente de la gente del campo, que acude con más facilidad en Domingo á disfrutar del concurso. La exposición al público podrá durar de 8 á 12 de la mañana y de 2 á 4 de la tarde del Sábado, reservándose exclusivamente para el Jurado las dos últimas horas de 4 á 6.

El tercer día, lunes, podrían celebrarse los Juegos florales y demás fiestas euskaras.

De otros varios detalles tengo tomada nota; pero, sin molestar con ellas la superior atención de V.E., los reservo para cuando llegue la confección del programa y reglamento inmediato.

3ª No puede menos de tenerse en cuenta que los resultados obtenidos en lo que se refiere especialmente al ganado vacuno, han tenido que luchar, de un modo directo, con la pertinaz y excepcional sequía sufrida este verano, que ha agotado los campos; ni menos debe olvidarse que á estas contingencias á que se halla sujeta la vida del labrador, van hoy desgraciadamente unidos los efectos de las desastrosas guerras coloniales,

con cuyo motivo la redención de quintas ha impuesto grandes sacrificios y ? en la penuria á muchas familias que, á fuerza de laboriosidad y economía, gozaban de relativo bienestar. Por esto mismo, esas sencillas y honradas gentes, que son la mayoría en nuestro país eminentemente agrícola, pueden con fundamento esperar que V.E., lejos de atenuar sus loables esfuerzos en la empresa iniciada, perseverará en ellos, velando sin descanso por el futuro bienestar de la humilde clase labradora. (...)

4ª Debo hacer constar, con aprecio, que en Cestona me han sido hechas algunas indicaciones acerca de tales ó cuales reformas ó innovaciones, que me abstengo de señalar, y que, en opinión de sus autores, debieran introducirse desde luego para el fomento de la agricultura y la ganadería. (...)

19 de octubre de 1898, El Delegado, Antonio Arzác”

“Comisión especial para el fomento de la agricultura y ganadería” zeritzonak ere, 1899ko uztailaren 14an ganadu lehiaketetan egin zitezkeen zenbait hobekuntza jakinarazi zizkion Aldundiari. Berrikuntza horien artean, sari berriak sortzea aipatzen zen (txakolin onena saritzeko adibidez, edo urtebete eta 5 urte bitarteko zaldi onena saritzeko)¹⁰⁷.

Epe motzera beraz, Zestoako euskal festek euskal giro “jatorrean” ongi pasatzeko, zenbait sari irabazteko aukera ematen zuten. Epe luze-laburrera, Zestoako euskal festek euskal jaiei buruz zuten esperientzia gehitu zieten horiek antolatzen zituztenei, eta antolakuntzari-eta zegokionez, zenbait aldakuntza sortarazi zituzten.

Eta epe luzera? Zeintzuk izan ziren Zestoako euskal jaiek epe luzera ekarri zituzten ondorioak? Ganadu lehiaketek, J. A. Loidi Bizkarrondoren hitzetan, garrantzi handia hartu zuen barazki eta nekazaritzako tresnen erakusketekin batera Aldundiak bultzatutako euskal jai hauetan. Gipuzkoako nekazaritza eta abelazkuntzak gora egin zuen lehiaketa haiei esker¹⁰⁸.

Eta Aldundi eta gipuzkoar herriaren arteko loturei buruz zer esan? Lortu al zuen Aldundiak bere izate forala mantentzea?

Literatur lehiaketek euskal literaturan eragin handia izan al zuten? Indar-terik ekarri al zuten? Legenda, bertso eta antzerkiaren alorrean euskal jaiek eragindako ondorioak berak izan al ziren? Hurrengo atalean izango duzue, erantzunak apenas, baina galdera horien inguruko galdera gehiago irakurtzeko modurik.

4. AZTERTU BEHARREKOAK

1898. urtean Zestoan ospatu ziren euskal festak, neurri txiki batean bederen, ezagutu ditugu.

107. G.A.O. JD/ITF 1550/451.

108. LOIDI BIZKARRONDO, J.A.: Euskal... op. cit., 28. or.

Euskal jaiak beren banakotasunean aztertzea beharrezkoa dela? Bai, ados. Baina aurreragoko pausoa eman behar dugu. Ez al genuke euskal jaiak beren osotasunean ulertzeko esfortzurik egin behar? Eta horri gehitxo badeiritzogu, Euskal jaien nolabaiteko sailkapenik egiten saia al gaitzke? Zein irizpiderekin? Gure kasuan, Donostiako Itz-Jostaldien Batzarreak antolatzen zituen eta Gipuzkoako Aldundiak babesten zituzten euskal jai eta ganadu lehiaketetara gerturatzen saiatu gara, Zestoakoak lagun genituela. Ez dugu bidea urratu besterik egin ordea. Jantzi oinetako egokiak, eta aurrera! Ez al zaizu iruditzen euskal festa bakoitzari antzeman egiten zaiola, nork antolatua denaren arabera? Ez? Ez al zituen Aldundiak helburu jakinak, Donostiako Itz-jostaldien Batzarreak ere oso konkretuak? Eta nahitaezkoa al da helburu haiek denek eta beti defendatzea? Ez dugu uste. Hona ate eta leihoak zabalik... Euskal jaien kontzeptua bai denboran, baita espazioan ere, esanahi desberdinak batzen dituen kontzeptua delakoan gaude. Politika izango litzateke desberdintasunak aztertu bai, baina hauen gainetik festa horien artean zein berdintasun gailentzen diren ere aztertzea.

Euskal festak gainera, ez dira errealitate birtualean ospatutako festak izan. Errealitate jakin batean sortu, zabaldu eta eragin dute. Euskal festak sortu izandako testuingurua aztertzea oso garrantzitsua izan daiteke, euskal jaien sorreraren zergatietara hurbildu baikaitezke horrela. Aldi berean, hasierako euskal jai haien ezaugarriek garaiko gizarte jakin hura ezagutzen ere lagunduko digute (eta zer esanik ez, literatur lehiaketa haiei esker, guganaino iritsi diren literatur -euskaldunen historia, eguneroko bizitza gogoan- lanek ere).

Euskal festen zabalkundeak aldiz, Euskal Herriko zazpi probintzietara hedatuko du fenomeno bera. Zer eragin izan zezakeen euskal festak lurralde guztietara zabaldu izanak? Ideia eta pertsonen arteko harremanak erraztu egin ziren honi esker. Ikus Koldo Mitxelenak zer dioskun:

“Una consecuencia muy importante fue que a unos y otros acudían gentes de ambos lados de la frontera, con lo que se llegó a un intercambio continuo y personal entre los escritores que faltaba en tiempos anteriores. Más tarde, a consecuencia de las Fiestas de la tradición vasca de San Juan de Luz en 1900, según J. Urquijo, se popularizó el lema “Zazpirak bat”, símbolo de una unidad algo ideal, percibida siempre con más o menos nitidez”¹⁰⁹.

Eta zer esan dezakegu euskal jaiak eta euskal literaturak izan zuten erlazioaz? Euskal festarik gabe posible izango ote zen XIX. mende bukaerako euskal kulturaren loraldia? Nahiz eta neurri txikian izan, euskal jairik gabe hitz lauzko legenda landuko ote zuten euskal idazleek? Euskal antzerki modernorik sortuko ote zen Donostian Itz-jostaldien Batzarrearen bultzadarik gabe?

109. MICHELENA, Luis: *Historia de la literatura vasca*. Madril, 1960. 137-138. or.

Eta aldi berean, ez al zuten euskal jaiek formaz herri literaturari oso lotutako lanak bultzatuz, literaturaren garapenaren oztopo gisa eragin¹¹⁰?

Zenbateraino dira euskal festak “euskaldun” izaera mugatzearen erantzule? Zergatik errepikatzen dira lan desberdinetan euskaldun=baserritar, fededun, nekazari, familiaren zaintzaile... gisako ekuazioak? Zergatik euskalduna historiaurretik gaur arte horrelakoa izan dela defendatu? Zein zen irudi hau bermatzearen helburua?

Zein neurritan baliatuko da euskal nazionalismoa XIX. mende bukaeran sortutako “euskaldun” izatearen eredu horretaz? Zergatik? Noiz, nola eta zein testuingurutan ematen da “patria” hitzak Espainia eta aldi berean Euskal Herria edo Gipuzkoa esan nahi izatetik Euskal Herria edo Gipuzkoa esan nahi izatera emandako pausoa?

Galdera hauek berak egiten genituen Areatzako euskal jaialdiak aztertu eta gero¹¹¹. Galderekin gatoz berriro. Ezin erantzun. Gisa honetako ikerketa txiki eta bakanez ez dute gehiagorako ematen. Baina kontuz! Galderak egitea ere ez da gutxi. Jakin dezagula, badela euskal jaiak aztertzeko orain arte erabilitako betaurrekoek aparte besterik. Eta ez izan argitasun faltaren beldurrik! Euskal jaien azterketak (XIX. mende bukaeraren azterketak) uste baino ezuste gehiago emango baitizkigu!

5. LABURBILDUZ

Argi dakusat Areatzako euskal jaiet buruz egindako lana eta hemen aurkeztzen dudana hau liburu bakarreko txatal izan zitezkeela. Izan ere, zenbait atal errepikatu beharrean aurkitu naiz: gai orokorrak aipagai dituztenak bereziki, bai lan hura bai lan hau irakurtzen duten irakurleek ezer ulertzea nahi badugu behintzat, beharrezkoak direnak. Horretaz gain, bi lanak alderatzeak, erkatu edo konparatzeak, aurkituko genituzkeen desberdintasunen bitartez aurrera egiten lagunduko liguke.

110. Gai honen inguruan, iritzi desberdinak aurki ditzakegu. Batzuek euskal jaiak euskal literaturarentzat onuragarri izan zirela defendatzen dute, eta besteek aldiz, nahikoa kaltegarri izan zirela. Bistadizo bat ematerik badiezue...

JUARISTI, Jon: *Literatura vasca*. Madril, 1987. 77-80. or. or.

KORTAZAR, Jon: *Euskal literaturaren historia txikia*. Donostia, 1997. 113. or.

LASAGABASTER, J.M.: “La literatura vasca entre 1700 y 1879”. In: Eusko Ikaskuntzaren IX. kongresua. *Gaurko euskal gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. mendeak*. Bilbo, 1983. 275. or.

MUJICA, L.M.: *Historia de la literatura euskerika*. Donostia, 1979. 247. or.

SARASOLA, Ibon: “Hitzaurrea”. In: ARESTI, Gabriel: *Obra guztiak. Poemak (I)*. Donostia, 1976, 16. or.

TOLEDO LEZETA, Ana: *Domingo Agirre: euskal eleberraren sorrera*. Bilbo, 1989. 95-96. or.

111. *Areatzako euskal jaien mendeurrena* lanean liburuko laugarren atalean gisa honetako gaiet buruz erreflexionatu aritu ginen.

Zestoako euskal jaiak orain ehun urte ospatu ziren hiru egunetako festak izan zirela ikusi dugu. Hiru ekitaldi ziren gainerakoei gailentzen zirenak: ganadu lehiaketa, prozesioa eta meza nagusia, eta literatur lehiaketa. Festetan ondo pasatzeaz gain, Gipuzkoako nekazal eta abeltzaintzak aurrera egitea, lehen Foru Aldundi zena orain Probintziala bihurtua “probintzial” izenez baina “foral” izaten jarraitzea, eta euskal letren trebatzea (euskal historian eta euskal gizon-emakumeen egunerokotasunean sakonduz) bilatzen zuten.

Foruak galtzeak euskaldunak behartu egin zituen bizi edo iraun nahia oroitzeta eta esperantzetan oinarritzera. Oroitu zergatik? Euskaldun izateak ezinbestekoa zuelako sistema forala berriro ezartzea, eta berau ahaztea euskaldun izaera ahaztea izango zatekeelako (ikusiko dugu aurrerago zergatik). Eta esperantza zergatik? Foruen berrezarkuntzan sinesten zutelako, foruen berrezarkuntza itxaron zutelako. XIX. mende amaierako giro gatazkatsu hartan, euskal festek oroitzeta eta esperantza hartu zituzten oinarri. Hala ikusi dugu Zestoako euskal jaiak zegoenez: literatur lehiaketan sormena saritzen zen, baina historia gaitzat zuen sormena gehienbat. Ganadu lehiaketek esperantza haziak ugaltzen zituzten gipuzkoar abeltzain eta nekazarien artean. Prozesioak aldiz oroitzapena zuen oinarri eta esperantza helburu (1898an haur zirenak, sistema foralaren berrezarkuntza ezagutuko zutenaren itxaropena). Gipuzkoako Aldundiak beraz, gipuzkoar ekonomia, kultura eta politika bere eskutan mantentzen zituen (gobernu zentralak emandako aukerarik txikienez baliatuz). Ekonomia, kultura eta politika baina ez horietako bakoitza gainerakoengandik aparte, modu bateratuan baizik, sistema gisa (ez al dugu ikusi euskal festak modu osoan ospatu arte bakerik izan ez zela?). Aipagarriak ditugu Aldundiak gipuzkoarrekin zituen harremanak odol erlaziotan irudikatu izana (ama, guraso dute gipuzkoarrek Aldundia). Aldundian agintari direnak ez dira txirripaz agintari: herriarekin dituzten loturak ez dira kasualitateak eraginak, familiarte loturek baizik (zein zentzutan ulertuko zen familia ordea garai hartan?). Euskal nazionalismorako pausoa ez dugu urruti.

Aldaketa garaia beraz. Lehenean oinarrituz, aurrera egin beharra. Baina zeintzuk ziren aurrera egin behar horretan kontuan izan beharrekoak? Ezinezkoa zen izateari uko egitea, euskal izatean oinarritzko ziren elementuak aldatzea. Zeintzuk ziren bada euskal izaeran oinarritzko elementuok? Euskal izatearen definizioa ematen da orain. Euskaldunak beharko du izan fededuna, langilea, familiari atxikia... Euskal festek euskal eredu hau sendotzen lagunduko zuten.

Zerk ematen die beldurra aldaketan murgildurik dauden euskaldun hauei? Hiriak. Hiritarrek. Fededun ez denak. Alfer denak. Familia zaintzen ez duenak. Euskara maite ez duenak. Euskaldun ez denak. Desberdin izanez bere izatea kolokan jartzen duenak. Estereotipoak estereotipoen aurka. Hori da gaurko ikuspegi murriztutik ikusten duguna. Hori agerian dena. Agerikoaren ezkutuan dagoena aztertzeak denbora eta lan gehiago eskatzen digute. Izango dugu denbora eta badugu lanerako gogoia, beraz...

Ezin al dugu hiri euskaldunik sortu? Ba al da gaur egunean hiri euskaldunik? Hemen legoke gakoa, ezta, Bernardo?

6. ZESTOAKO EUSKAL FESTEN MENDEURRENA: 1898-1998

1998an ehun urte bete ziren Zestoan Euskal festak antolatu eta ospatu zirela. Hori zela eta, Zestoako Udalak, Eusko Ikaskuntza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin ekitaldi eta ekintza bereziak antolatu zituen, horien artean aurkitzen zelarik esku artean duzun liburuxkaren argitalpena. Baina zein ekintza gehiago izan ziren honetaz gain?

Ondorengo lerroetan 1998ko irailaren 17, 19 eta 20an Zestoan izandako festen berri emango dizuegu.

Irailaren 17an, mahai ingurua ospatu zen Zestoako Udaletxean, Zestoako Euskal Jaien inguruan. Bertan Patri Urkizu (Eusko Ikaskuntzako kidea eta Hizkuntza eta Literatura saileko lehendakaria), Iñaki Azkune (Elhuyar elkartearen kidea) eta eskuetan duzun argitalpenaren egilea aritu ginen¹¹². Jende ugari gerturatu zen mahai ingurura. Euskal Jaiei buruz, Zestoako euskal jaiei buruz, eta XIX. mende amaierako Zestoa eta zestoarrei buruz aritu ginen.

Irailaren 19an, larunbata, arratsaldeko sei eta erdiak aldera, herri kirol jaialdia ospatu zen herriko plazan. Bertan Olasagasti eta Arrospide aizkolariak, Goenatxo harri-jasotzailea, trikitilariak eta Jose Agirre eta Jose Lizaso bertsolariak izan genituen. Gaueko hamaiketarik aurrera erromeria ospatu zen.



Euskal festen mendurreneko argazkiak Zestoan. Joxe Agirre eta Joxe Lizaso

¹¹². Norbaitek han esandakoen berri nahi balu, mahai ingurua grabatu egin zela esan beharra daukagu.



Euskal festen mendeurrenako argazkiak Zestoan. Patri Urkizu, Luzia Alberro eta Iñaki Azkune

Irailaren 20an berriz, igandea, herriko txistularien dianaren ondoren, Zestoako Musika Banda, beste zenbait bandekin batera kalejiran ibili zen, eta 11:30etan Zumarragako Musika Bandari ongietorria eman zitzaion (lehenago aipatu dugunez herri horretako banda izan zen Zestoako Euskal Jaietan, duela ehun urte). 12:00etan ospatu zen Meza Nagusia. Ordu bataz eta laurdenetan mendeurrenako ospakizun nagusia egin zen Udaletxeko Areto Nagusian.

7. BIBLIOGRAFIA

7.1. Orokorrak. Bibliografia¹¹³

BILBAO, Jon: *Eusko Bibliographia*. Donostia, 1970-1981.

Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Diccionario. Donostia, Auñamendi.

RUIZ DE GAUNA, Adolfo: *Catálogo de Publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*. Donostia, 1991.

113. Atal honetan, gaiari buruzko bibliografia aurkitzeko erabilitako tresnak aipatzen ditugu. Jon Bilbaoren lanetaz gain, kontsultatu ditugun liburu, artikulu eta abarretako bibliografiak berak izan zaizkigu bibliografia gehiago bilatu eta aurkitzeko baliagarri.

7.2. Euskal literatura¹¹⁴

AULESTIA, Gorka: *Euskal idazleak*. Vitoria-Gasteiz, 1996.

ERZIBENGOA, Joshe: *Euskal literatura*. Bilbo, 1972. 3. tomoa, 2. bolumena.

JUARISTI, Jon: *Literatura vasca*. Madrid, 1987.

JUARISTI, Jon: "Romanticismo europeo y romanticismo vasco". In: *XI Congreso de estudios Vascos: Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa*. Donostia, 1992, 191-194. or.

KORTAZAR, Jon: *Euskal literaturaren historia txikia*. Donostia, 1997.

LAFFITE, Pierre: *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona, 1941.

LAFFITE, Piarres: *Euskal literaturaz*. Donostia, 1990.

LASAGABASTER, J.M.: "La literatura vasca entre 1700 y 1876". En: *Eusko Ikaskuntzaren IX. kongresua. Gaurko euskal gizartearen sorburu hurbilak. XVIII-XIX. mendeak*. Bilbo, 1983.

MICHELENA, Luis: *Historia de la literatura vasca*. Madril, 1960.

MUJIKA, L.M.: *Historia de la literatura euskerika*. Donostia, 1979.

ONAINDIA, S: *Euskal literatura (II). XIX. mendea*. Bilbo, 1973.

ORPUSTAN, Jean-Baptiste: *Précis d'histoire littéraire basque. 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskara*. 1996.

RODRIGUEZ ALONSO, Manuel: "Los Juegos Florales en la literatura gallega". In: *Jornadas de lengua y literatura catalana, gallega y vasca*. UNED, 1992, 59-62. or.

SARASOLA, Ibon: *Euskal literaturaren historia*. Donostia, 1971.

SARASOLA, Ibon: *Historia social de la literatura vasca*. Madril, 1976.

SARASOLA, Ibon: "Hitzaurrea" in Gabriel ARESTI: *Obra guztiak (I). Poemak (I)*. Donostia, 1976.

TAYADELLA, Antónia: "La Renaixença i els certàmens literaris". In: *Jornadas de lengua y literatura catalana, gallega y vasca*. UNED, 1992. 51-55. or.

TOLEDO LEZETA, Ana M^a: *Domingo Agirre: euskal eleberraren sorrera*. Bilbo, 1989.

TORREALDAY, Joan Mari: *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y la literatura vascas*. Oñati-Arantzazu, 1977.

URQUIZU, Patri: "Antoine d'Abbadie y el resurgir literario vasco en la segunda mitad del siglo XIX". *Jornadas de lengua y literatura catalana, gallega, y vasca*. UNED, 1992. 85-99. or.

URQUIZU, Patri: *Lengua y literatura vasca*. Donostia, 1978.

VILLASANTE, Fr. Luis: *Historia de la literatura vasca*. Bilbo, 1961.

114. Hemen agertzen ditugun lanak, Areatzako euskal jaialdien azterketan burututako lanean kontsultatutakoak dituzu. Euskal jaiek euskal literaturan duten tokiaz, XIX. mendeko kultur berpizkundeaz... mintzo zaizkigute orohar.

VILLASANTE, Luis: *Literatura vasca*. Madrid: Editorial Magisterio Español, 1972.

VV.AA.: *Leiendak (1879-1891)*. Donostia, 1990.

XARRITON, Pierre: *Euskal literaturaren oinarrizko gidaliburua*.

7.3. Euskal historia¹¹⁵

ALTZIBAR, X.: "Euskaldunen nazio eta hizkuntza". In: *Euskera*, XXXI, 1986, 17-45. or.

LARRAMENDI: *Corografía de Guipúzcoa. Descripción escrita en 1754*. Buenos Aires, 1950.

PORTILLO, José María: *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las provincias vascas (1760-1808)*. Madrid, 1991.

PORTILLO, José María: "La jurisdicción inventada. Jurisprudencia y política provincial en la monarquía hispana". In: *Scienza e Politica. Per una storia delle dottrine*. 7. zbkia. 1992. 3-19. or.

PORTILLO, José María: "Las provincias vascas y la guerra de la convención: primer encuentro con la revolución". In: *Studia Historica. Historia Moderna*. XII. zbkia. 1994. 71-89. or.

PORTILLO, José María: "La imagen del político en la ilustración vasca". In: *Elites, poder y red social. Las élites del País Vasco y Navarra en la Edad Moderna*. Bilbo, 1996. 147-159. or.

RUBIO POBES, Coro: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*. Madrid, 1996.

VILLASANTE, Luis: "Domingo Agirre-ren eliz-itzaldiak". In: *Aranzazu* (1966). Iraila-urria. 17-40 or.

VV.AA.: *Historia de las Juntas Generales y Diputación Foral de Gipuzkoa*. Donostia, 1992.

7.4. Antoine d'Abbadie. Euskal jaialdiak modu orokor batean

ABBADIE, Antoine d': *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma (1851-1897)*. Donostia, Bilbo, 1997. Patri Urkizuk prestatutako argitalpen.

